



TOLOSAKO  
UDALA

## **OHIKO OSOKO BILKURA**

**2020.03.05**

Tolosako Udaletxean, 2020ko martxoaren bostean, 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohiko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da, eta eguneko gai-zerrenda aztertzeko, udal batzarkide hauek agertu dira:

**Alkate-lehendakaria:**

Olatz Peon Ormazabal

**Bertaratutako zinegotziak:**

Begoña Tolosa Mendia  
Nerea Letamendia Belloso  
Jose Francisco Amantegi Zubiria  
Joseba Koldo Ormazabal Lopez  
Egoitz Sorozabal Iturain  
Xabier Balerdi Tolosa  
Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe  
Angel Andu Martinez de Rituerto Arregui

Kristina Pelaez Errazquin  
Aitana Amondarain Esquisabel  
Aitzol Garcia Azurmendi  
Olatz Artola Apezteguia  
Ander Figuerido Zubiria  
Garbiñe Marzol Ormazabal  
Xabier Martinez Quinquilla  
Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria

**Idazkaria:**

Begoña Garmendia Vazquez

**Jarduneko kontuhartzailea:**

Paulino Alonso Eraso

### **Eguneko gai-zerrenda**

1. Zozketa, hauteskunde-mahaietako kideak izendatzeko Eusko Legebiltzarrerako 2020ko apirilaren 5ean egingo diren hauteskundeetarako.
2. Ondorengo akta onartzea:  
2020 urtarrilaren 31ko Osoko Bilkurakoa.
3. Hasierako onarpena ematea Udalbatzako kideen informazio publikoko eskubidea



TOLOSAKO  
UDALA

arautzen duen erregelamenduari.

4. Onartzea 2018ko Udal Sektore publikoaren Kontu Orokorra.
5. Onartzea Tolosako Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa (2020-2022).
6. Hasierako onarpena ematea Tolosako hirigintza katalogoa aldatzeko prozedurari.
7. Hasierako onarpena ematea Soldadu 8 eraikinaren atzealdean Udal honek duen zatia soberako lurzati deklaratzeko espedienteari.
8. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:  
2020ko urtarrilaren 1etik 31ra (2020/1-2020/222).
9. Mozioa: Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 44. urteurrena.
10. Mozioa: 2020ko martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna.
11. Mozioa: Gipuzkoako senideak elkartea.
12. Galderak eta eskaerak.

Alkate-lehendakariak batzarrari hasiera eman dio gai hauek aztertzeko:

**1. ZOZKETA, HAUTESKUNDE-MAHAJETAKO KIDEAK IZENDATZEKO EUSKO LEGEBILTZARRERAKO 2020KO APIRILAREN 5EAN EGINGO DIREN HAUTESKUNDEETARAKO.**

Lehendakariak otsailaren 10ean emandako 2020/2 Dekretuaren bidez, Eusko Legebiltzarra desegin eta hauteskundeetarako deialdia egin zen apirilaren 5erako, eta ekainaren 19ko Hauteskunde Araubide Orokorreko 5/85 Legearen 26. artikulua xedatutakoaren arabera, hauteskunde mahai bakoitzeko lehendakaria eta mahaikideak izendatu behar dira zozketa publikoa eginda hauteskunde sekzio bakoitzean zentsatuta daudenen artean.

Hauteskundeetako mahaiak osatzeko kideen zozketa egiteko programa informatikoa erabili da. Hauek dira irizpideak:

Hauteskunde mahaien eraketarako kideen izendapena gardentasun eta ausazkotasunez egiteko zozketa publikoa egingo da sistema informatikoa erabiliz, hemen azaltzen den prozedura hau baliatuta:



1. Zozketa egiteko Estatuko Estatistika Institutua erakundeak emandako hautesle zentsu osoa erabiliko da, 2019ko abenduaren 1ean itxitakoa. Hautesleak izango dira 18 urte edo gehiago eta 70 urte baino gutxiago dituztenak, eta idazten eta irakurtzen jakin beharko dute.
2. Zozketa egiteko, Udaletxean sortutako datu base bat erabiliko da INEk duen CONOCE programatik haurtutako hautesle zentsu osoa erabiliz, "generación de ficheros" programaz baliatuta
3. Mahai bakoitzeko honako hauek finkatuko dira:
  - -Hautesle kopurua. Hautesle bakoitzak mahai bakar batean emango du botoa; hurrenkera zenbakia dauka modu bakarrean identifikatzen duena.
  - Lehendakari izateko izangai kopurua. Lehendakari izateko izangaiak hirurogeita hamar urte baino gutxiago izango du, Batxilergo edo bigarren mailako Lanbide Heziketa titulua izango du edo, modu subsidiarioan, Eskola graduatu titulua edo baliokidea.
  - Bokal izateko izangai kopurua. Bokala izateko izangaiak hirurogeita hamar urte baino gutxiago izan eta idazten eta irakurtzen jakin beharko du.
4. Programa honek ausazko zenbakiak sortzeko funtzioak dauzka.
5. Mahaiko kide bakoitza honela aukeratzen da, eta prozesu hau errepikatu egiten da izangai bakoitzeko eta hautesle mahai bakoitzeko:
  - a) Programak ausazko zenbaki bat lortzen du hautesle zenbakiaren arabera.
  - b) Hurrenkera zenbakia kalkulatu, izangaiak ondoko baldintzak betetzen ote dituen egiaztatzen da:
    - Aurretiaz hautatua ez izana zozketa honetan. Izangai bakoitza modu independentean lortzen denez, litekeena da lortzen den hurrenkera zenbakia lehendik hautatua izana egotea.
    - Aztertu egiten da 26.2 artikuluan xedatutakoa betetzen ote den: "Mahai bakoitzeko Lehendakaria eta Bokalak zozketa publiko bidez izendatzen dira, dagokion hauteskunde-atalean zentsatuta dauden pertsona guztien artean, hauek hirurogeita hamar baino gutxiago dutenak izango dira eta idazten eta irakurtzen dakitenak".
    - Lehendakariak Batxilergo titulua edo Lanbide Heziketako bigarren mailako titulua izan beharko du edo, modu subsidiarioan, Eskola graduatu titula edo baliokidea.

Hortaz, aipatu zozketa egiteko erabiliko den prozedura informatikoa etorritakoei ezagutzera eman eta gero, Alkatetzak ebazpen proposamen hau egin dio Udalbatzari:



TOLOSAKO  
UDALA

## EBAZPEN -PROPOSAMENA

**Lehena.-** Zozketa publikoa egitea, hauteskunde mahai bakoitzeko lehendakaria eta mahaikideak izendatzeko eta, bide batez, mahaiko kide bakoitzak izango dituen hiru ordezkioak izendatzeko.

**Bigarrena.-** Zozketa eginda, eta emaitzen arabera, izendatzea hauteskunde mahaietako kideak, idazkariak behar bezala izapidetutako espedientean agertzen direnak.

**Hirugarrena.-** Erabakia Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari jakinaraztea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** zozketa, hauteskunde-mahaietako kideak izendatzeko Legebiltzarrerako 2020ko apirilaren 5ean egingo diren hauteskundeetarako.

### **2. ONDORENGO AKTA ONARTZEA: 2020KO URTARRILAREN 31KO OSOKO BILKURAKOA.**

Izenburuan aipatutako akta aho batez onartu dute.

### **3. HASIERAKO ONARPENEA EMATEA UDALBATZAKO KIDEEEN INFORMAZIO PUBLIKOKO ESKUBIDEA ARAUTZEN DUEN ERREGELAMENDUARI.**

Udal idazkariak azalpenak eman ditu prozedurari buruz. Izan ere, gai honetan bi puntu bozkatuko dira, batetik, bilkura honen bezperan aurkeztu zen emendakina eta, bestetik, batzordeak onartutako irizpena. Beraz, emendakina onartzen bada, zuzenketa onartzeko gero, ondoren bozkatuko da irizpena, baina zuzenketa horrekin.



TOLOSAKO  
UDALA

Lehenik emendakinaren azalpenak eman dira. Parte-hartzeak honako hauek dira:

- ... Xabier Balerdi Tolosa, Antolakuntzako zinegotzi delegatua (EAJ-PNV): *“Emendakina azaltzearen, aurtengo otsailaren 18an egin zen Antolakuntzako batzorde informatiboan EHBILDU talde politikoak aipatutako erregelamenduaren gaineko proposamen bat egin zuen, ahoz, esanez txostenen eskaera izeneko 11. puntuko atal baten inguruan. Proposamen horretan 11. puntuan agertzen zen hilabeteko epea gehiegizkoa irizten zitzaion bai txostenen eskaerei erantzuteko alde batetik eta, baita ere, txosten eskabideren bat udal-arloak bereizkuntzarik gabekoa dela edo beraren funtzionamendu normala oztopatzeko moduko konplexutasuna duela adierazteko. Eta, ondorioz, epe hori, alegia, hilabeteko epe hori murrizteko proposamena egiten zen ahoz. Proposamen hori batzordean hasiera batean onartu ez bazen ere, araudiak epe hori egokitzeko bidea ematen du eta murrizteko epea. Hori horrela izanik, proposamena kontuan hartu eta irizpen hori zuzendu egin nahi da. Beraz, hilabeteko epe hori erdira murriztea zuzenketa egin nahi da eta hamar lan egunetako izatea. Orduan, zuzenketa ustez idatziz jaso duzuela, badakizue zein ataletan zuzentzen den. Hori da egiten den zuzenketa. Oker ez banago idazkariak esan duenaren arabera bozkatu egingo dugu emendakina.”*
- ... Ander Figuerido Zubiria (EHBILDU): *“Argitzeko, hasiera batean bidali zenigun dokumentuan aldatzen zen azkeneko parrafoan epea baina ez lehenengoa. Hitzez esan zeniguten aldaketa egingo zenuela. Idatziz, ez”*
- ... Xabier Balerdi Tolosa, Antolakuntzako zinegotzi delegatua (EAJ-PNV): *Zuzenketa idatziz bidali nizuen, ez dakit bidali zizuen, bieran aldatzen da txosten eskaerak aldatzen duen atalean alkateak edo zinegotzi delegatuak erantzungo du hilabete epea dioen lekuan esaten esaten du hamar eguneko lanegun epean. Gero lehen esandako oztopatzeko konplexatuna duela baita hilabeteko epea zen eta orain hamar lan egunetara aldatzen da epea.”*

Jarraian, Udalbatzak bozkatu du eta aho batez onartu du emendakina.

Ondoren, irizpenaren inguruko azalpenak eman dira, eta honako parte-hartze hauek izan dira:

- ... Xabier Balerdi Tolosa, Antolakuntzako zinegotzi delegatua (EAJ-PNV): *“Erregelamenduaren sorrera Udal korporazioaren eskubidea bermatu eta arautzeko helburuarekin sortu da eskuartean dugun araudi hau. Beti ere gardentasun eta gobernu onaren printzipioak jarraituta. Azpimarratzekoa da orain artean Tolosako Udalak ez duela horrelako erregelamendurik edo araudi izan. Gaur egun, Tolosako Udala eraldaketa prozesu erabakigarri batean murgilduta dago. Eraginkortasunean urratsak egite aldera eta administrazio elektronikoa erabat ezartzea eta helburu hartuta. Erregistro elektronikoa guztiz operatiboa dago, udal espediente ia gehienak*



*elektronikoko kudeatzen dira jada. Jakinarazpena elektronikoa errealtate bat dira. Eta epe laburrean sinadura elektronikoa ere ezarriko da. Araudi berri honek ere eraginkortasun eta gardentasun printzipio berari erantzuten dio eta araudi berri honen bitartez, gainera gobernu kide zein udaleko zinegotzi guztiek espedienteak kontsultatzeko aukera izango dute. Elektronikoko zein fisikoki. Informazio eskaeraren prozedura ere arautuko da eta arautzen da eta korporazioko kideek udaleko teknikariei txostenak egindako eskaerei aplikatu beharreko araudi juridikoa ere argitzen da. Era berean, izaera bereziko espedienteetan, datuen babes delak eta, zein kasuetan mugatu edo egokitu ahal izango diren eskaerak zehazten dira. Informazio bereziki babestua den kasuetan korporazioko kideen informazio eskubidea bermatzen da, baina espediente hori behar duten trataera berezia errespetatuz. Amaitzeko, azpimarratuko nahi nuke orain artean gobernu kide ez ziren korporazioko zinegotzien informazio sarbidea erraztu eta areagotu egingo dela araudi berri honi esker. Hau da, udal espediente eta informazio guztia eskura izango dutela zinegotzi guztiek orain arte ez bezala. Beraz, gardentasunaren eta eraginkortasunaren aldeko urrats garrantzitsua egingo dugulakoan gaude.”*

... Kristina Pelaez Errazkin (EHBILDU): *“Lehenengo argitzeagatik, zuek herenegun eman zeniguten zuzenketa hori egiteko asmoa. Argitzea ere bai, gure eskera hori ahoz egin zela batzordean baina idatziz beste proposamen batzuk ere egin genituela eta horiek ez zirela onartu. Emendakina begi onez ikusten dugu, keinu bezala ikusten dugulako epe murrizketa hori, baina aldi berean egin genituen beste proposamenak kontuan ez dira eduki eta ez zaigu iruditzen nahikoa denik. Guk egiten genituen proposamenak bi oinarri nagusi zeuzkaten. Alde batetik, espediente guztietan sarbidea edukitzea baimenik eskatu beharrik gabe. Horrek bi arrazoi zeuzkan, alde batetik, informazio eskubidea eta datu babesaren aurrean, esan zitzaigunaren arabera, informazio eskubidea zen gailentzen zena eta bost eguneko epe hori, erantzunaren bost eguneko epe hori, itxaron beharrean proposatzen genuen espediente berezi horietara edo sarbidea erabiltzeko asmoa baldin bagenuen jakinaraztea baimena eskatu gabe eta bost eguneko itxaron beharrik ez izateko. Udal korporazioko kide gara, karguari zin egin genionean zin egin genuen ere bai datuak eta informazioa zaindu egingo genuela eta gure Udal jardunerako mugarik ez izatea zen proposamen horren helburua. Gure Udal jardunetako bat Gobernuak eta Gobernu honek hartzen dituen erabakien jarraipena egitea eta horretarako informazioa behar dugu. Aipatzen zenuen sarbidea erraztuko dela eta orain arte ez bezala, espediente guztietako sarbidea edukiko dugula, baina ezin dugu ahaztu lehenago ere bai beste motako informazio mota batera errazago iristeko aukera genuela teknikoekin eta batzordeetan, beste eztabaida tekniko batzuk eta beste informazio mota baterako erraztasuna geneukalako. Beraz, orain idatzizko informazio horretara bai sarbidea edukiko dugu baina ez informazio zuzena erabakiak hartzen ari diren momentuan edo erabakiak hartu aurretik. Ezezko honen ondorioa, guk ikusten dugunaren arabera edo egiten dugun irakurketa da, gure fiskalizazio lanari kontrola egitea dela. Beraz, fiskalizazioari fiskalizazioa egitea dela. Beste puntu bat eta beste proposamena egin genuena zen txostenak eta azterketak sailetara eskatzeko zinegotzi guztiak ahalmenak edukitzea, ez bakarrik oposiziokoak baita gobernuan zaudeten eta delegaziorik ez daukazuen zinegotziak ere bai eta eskaera jaso duen saileko arduraduna izatea azterketa edo txosten hori*



*eragikintasunak kaltetuta dezakeen irizten diona. Hala izango bazen azterketa hori edo txosten hori kanpo enpresa bati eskatu egitea. Eman zitzaigun erantzuna alde batetik harrigarria iruditu zitzaigun esan baitziguten alderdi politikoentzako ez direla txostenak, espedienteak informatzeko baizik, eta hori nik badakigu hori horrela dela, eta alderdi bakoitzak udal talderako diru ekarpenak jasotzen dituela eta hori baliatu daitekeela kanpo enpresa bati guk nahi dugun txostena egiteko. Argitu nahi duguna da kontu honetan EHBILDUren asmoa inondik inora ez dela gure programa egiteko txostenak eta azterketak eskatzea udal langileagori. Ez da gure programa osatzeko nahi ditugula txosten horiek. Udal honi eta herri honi dagozkion gaien inguruko informazioa izatea da eta hartzen diren erabakietan daukagun parte-hartze mugatua kontutan edukita hartu diren erabakiak eraginkorren direla ziurtatu nahiko genituzke. Horretarako ikusten dugu batzuetan txosten eta azterketa batzuk gehiago edo osagarri izan daitezkeenak eskatzea baliagarria izan daitekeela. Horretarako eta kasu askotan Udalaren eta ematen dituen zerbitzuaren informazio eta ezagutza beharrezkoa da eta Udalaren barruan egin beharrekoei buruzkoak izango lirateke eskatuko genituzkeen txostenak. Honen adibidea da Udal informatika sistemaren migrazioa non 550 mila euroko gastua izango duen eta Gobernuaren erabaki bat da, osatu gabeko txosten baten edo, guretzako behintzat, osatu gabeko txosten batean oinarrituta dagoena, beraz, erabakia guztiz politikoa iruditzen zaiguna eta ez iritzi tekniko eta erabateko edo behintzat osatutako iritzi tekniko eta ekonomikoetan oinarritu gabekoa. Beste alde batetik, batzorde bertan gai honi buruz eztabaidatzen eta gure proposamenak aintzat ez zirela kontutan hartuko jakinda ere, korporazioko kideen artean isiltasun administratiboa ez ematea eskatzen genuen. Zegoen, aipatzen zenuten epea murriztearena eta bestalde batetik, eskatzen genuen zehaztea erregelamendu honetan isiltasun administratiborik ez zela egongo. Hau da, beti egongo zela erantzun bat. Guk eskaerak idatziz egin behar ditugu, horrela behartzen du legeak, eta eskatzen genuena zen erregelamendu honetan zehaztea erantzun bat edukiko genuela. Eta esan zitzaiguna ez da batzordeko irizpenean esaten den bezala eskera ontzat edo onartutzat joko da administrazio isiltasunez. Beraz, errespetu falta bat iruditzen zaigu erantzunik ez emateko aukera hori irekita edukitzea, gure proposamena zenean aukera hori ez egotea. EHBILDUtik ulertzen dugu informazio publikoko eskubidea arautu beharra dagoela beste Udal askotan eta gehienetan egiten ari den moduan baina erregelamendu horrek legeak jasotzen duenaren gain legearen barruan egongo balitz beste hainbat konpromiso hartzeko aukera ematen du. Esan duzuen bezala, hau egokitzeko edo mugatzeko. Erregelamendu honetan Tolosako Udal gobernua, ikusten dugunez, mugatzeko aukera hartu du egokitzearena baino. Horregatik ezezkoa emango diegu.”*

... Xabier Balerdi Tolosa, zuen eskaerak, zuen emendakinak bi puntu zituen eta idatziz egindako aurreneko puntua kosta egin zitzaigun ulertzea zertaz zihoan, baina uste dut erantzun genuela eta bigarren puntuari ere bai. Dena den, erantzunean, idatzizko erantzunean, eta jada batzorde informatiboan joan zen erantzunean, ulertzen dut gaia astuna dela eta ez naiz gehiegi xehetasunetan sartuko bina zuek bi parrafoetan egindako proposamenetan lau sartzen ziren eta eta bidali zitzaizuen txostenean esaten zen lehenengo eta laugarren puntuak jada erregelamenduan sartuta zeudela. Eta beste puntu bat, bigarren puntuan, baita ere, ez zela legezko prozedura eta baita ere azkeneko puntua txosten eskaerak egiteko orduan eta baita Udaletxearen kontura oposizioak eskatutako txosten bat udaletxearen kontura joatea esaten genuen horretarako zuzkidura ekonomiko bat daukala talde politikoak eta hortik joan beharko lukeela. Dena den, nik eta esan dudana bezala xehetasunetan ez



*du sartu nahi, eta errepikatu nahi dut lehen esandakoa. Ni gutxienez, udaletxean sartu berria naiz, baino orain ikusi eta entzun dudanaren arabera, inoiz talde politiko batek oposizioak egon edo barruan egon izan duen informazioa eskuragarrik ez du inoiz izan. Hau onartuz gero, araudi hau onartuz gero, espedienteetara araudi honek sartzeko moduan dioen bezala, espedienteetara sartzeko modua izango duzue. Bestela, mahaiez mahai, elektronikoko gainera, bestela mahaiez mahai joan behar zenuen modura, gaur egun espediente guztietara sartzeko moduan egongo zarete. Nik uste dut gardentasun seinale dela eta hori mahai gainean jarri nahi dut eta, gainera, azpimarratu nahi dut. Hemendik aurrera talde politiko zinegotzi guztiek, talde politikoko zinegotzi guztien eskura izango dutela udaletxean zer gertatzen ari den. Uste dut hori mahai gainean jarri behar dela, azpimarratu behar dela eta lehenengo aldiz gertatzen dela Tolosako udaletxean, nik dakidala”.*

- ... Alkatea: *“Nik bakarrik berretsi Xabier Balerdi zinegotziak orain esan dituen hitzak. Eraldaketa prozesu batean sartuta gaude. Tolosako udaletxean hainbat aldaketa sartu dira, egitura berria txertatu da batzordeetan inoiz eman den txosten osatuena pasatzen da hileru datu guztiekin. Administrazio elektronikoen ezarpenarekin Xabierrek aipatu bezala eta araudi honen bitartez, zinegotzi guztiok Gobernuak eta oposiziokoak espediente guztiak kontsultatzeko aukera izango da uneoro. Jasotzen dugu jarri duzuen kritika, seguraski beti egin daitekeela hobeto eta askoz zabalago, baina egia da Xabierrek esan duena, parte-hartze mugatu ez baino inoiz izan duen informazio zabalena eta eskuragarria izango du oposizioak hemendik aurrera erregelamendu honen bitartez Tolosako Udalean.”*
- ... Udal idazkaria: *“Aukera oposizioa eta delegaziorik ez duten zinegotziak baita ere, ez da bakarrik ez dago pentsatuta bakarrik Gobernuak eta oposizioko klabeetan.”*

-----

### **Antolakuntza Batzordearen irizpena.**

#### **Aurrekariak**

Idazkaritza honetan dagoen informazioaren arabera, Tolosako Udalak ez du erregelamendu organikorik, besteak beste, korporazioko kideen eskubideak eta betebeharrak, kide anitzeko organoen funtzionamendua eta indarrean dagoen ordenamendu juridikoak haiei aitortzen dizkien eskubideak bermatzeko beharrezkoak diren prozedurak arautzeko.

Berme-premia horrek eta zinegotziak informazio publikorako sarbidea baliatzeko bideak garrantzi berezia hartzen dute Tolosako Udalak eraldaketa erabakigarria izango duen une honetan, administrazio elektronikoa ia erabat ezarriz.

Administrazio elektronikoa ezartzeko prozesuak bilakaera garrantzitsua izan du azken hilabeteetan: Erregistro Elektronikoa guztiz operatibo dago; udal-espediente gehienak (epe laburrean guztiak izango dira) espedienteak kudeatzeko programa elektronikoen bidez kudeatzen dira; sinadura elektronikoa ezartzear dago; jakinarazpen elektronikokoak





errealitate bat dira... testuinguru horretan, Korporazioko kideek informazioa eskuratzeko eskubidea arautzerakoan, kontuan izan behar da informazio hori non dagoen, edo, hobeto esanda, informazio horren euskarria.

Hots, Tolosako udal korporazioari proposatzen zaion araudiaren xedea da Udalbatzako kideen informazio-eskubidea arautzea, baldin eta alkateza-eskuordetzarik ez badute edo, zinegotzi delegatuak izanik, informaziorako eskubidea baliatu nahi badute eskuordetzaren xedearekin zerikusirik ez duten gaiei buruz.

Era berean, Erregelamendu honen bidez, korporazioko kideek udal teknikariei txostenak egiteko eskaerari aplikatu beharreko araubide juridikoa argitu nahi da, eskubide hori eta udal zerbitzuen funtzionamendu normala bermatuta gera daitezten.

Azkenik, araudi honetatik kanpo gelditu da udal intranet zerbitzuaren araudia, tresna hau oraindik ez dagoelako indarrean. Hala ere, Intraneta diseinatzeko jardunbidea garatu eta ezartzearekin batera, dagokion araudia onartzea proposatuko zaio organo eskudunari.

## **AZTERKETA JURIDIKOA**

### **1. Erregelamenduaren esparru subjektiboa**

a) Erregelamenduaren xedapenak aplikatuko zaizkie:

1. Alkatearen eskumenak eskuordetzan ez dituzten Tolosako Udaleko zinegotziei.
2. Udal honetako zinegotzi delegatuei, eskatutako informazio publikoa eskuordetzaren xede diren gaietatik kanpo dagoenean.

b) Bestaldetik, Alkateak Udalaren esku dagoen informazio publiko guztia eskuratzeko eskubidea du, eta espediente guztien kontsultarako sarbidea izango du (elektronikoa zein fisikoa). Halaber, zinegotzi delegatuek dagozkien sailtako espediente guztiak kontsultatzeko sarbidea izango dute (elektronikoa zein fisikoa), ondoko artikuluetan xedaturiko terminoetan.

### **2.- Informazio publikoa: kontzeptua eta eskuratzeko mugak.**

19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak, bere 13. artikuluan xedatzen du informazio publikoaren kontzeptua honako era honetan: *Informazio publiko dira titulu honen aplikazio-eremuan aipatutako subjektuen esku dauden eduki edo dokumentuak, haiek beren funtzioen jardunean egin edo eskuratu dituztenak, edozein formatu edo euskarritan daudela ere.* Beraz, araudi horrek arautuko du bere 1.a) artikuluan xedaturiko subjektuek duten informazio publikoaren informazio eskubidea, Tolosako Udalari eta bere sektore publikoa osatzen duten erakundeei buruzkoa.



Bestaldetik, aipatu Legearen 14. artikuluan xedaturikoa jarraituz, eskubide hau mugatu edo egokitu ahal izango da kasu hauetan, besteak beste (kontuan hartu dira tokiko korporazioetan arruntenak izan daitezkeenak):

- Zigor-, administrazio- edo diziplina-arloko egintza ez-zilegien prebentzioa, ikerketa eta zigorra.
- Prozesu judizialtako aldean berdintasuna eta benetako babes judiziala.
- Zaintza, ikuskaritza eta kontroleko funtzio administratiboak.
- Interes ekonomiko eta komertzialak.
- Sekretu profesionala eta jabetza intelektual eta industrialak.
- Erabakiak hartzeko prozesuetarako beharrezko konfidentzialtasunaren edo sekretuaren bermea.

### 3. - Espediente elektronikoen kontsultak

Udaleko zerbitzu informatikoen ahalbideratuko dute korporazioko kideek espedienteetara sarbidea izatea soilik kontsultak egiteko. Eskubide honek ez du ahalbideratuko kontsultatzen diren espedienteetan aldaketak egitea, edota edozein interbentzio mota gauzatzea, espediente horien osotasuna edo benetakotasuna aldatzeko xedea baldin badu, sinadura elektronikoa beharrezkoa den kasuetan izan ezik.

Horretaz gain, espedienteak kudeatzeko programa erabiliz gero, Udaleko zerbitzu informatikoen bermatu behar dute korporatiboaren nortasuna, noiz sartzen den, eta azterturiko dokumentazioaren identifikazioa; halaber, informazioaren osotasuna kontrolatuko da. Espedienteak kudeatzeko programak jaso eta kontserbatuko ditu hemen aipatzen diren datuak, eta ahalbideratuko du informazio hori lortzea beharrezkoa denean.

### 4.- Korporatiboen Informazio eskubideen lege-oinarriak

Erregelamenduak araututako informazio eskubideak xedapen hauek ditu oinarri:

- a) Indarrean dagoen Konstituzioaren 23. artikulua: *1. Los ciudadanos tienen el derecho a participar en los asuntos públicos, directamente o por medio de representantes, libremente elegidos en elecciones periódicas por sufragio universal.*
- b) 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; 77 artikulua: *Todos los miembros de las Corporaciones locales tienen derecho a obtener del Alcalde o Presidente o de la Comisión de Gobierno cuantos antecedentes, datos o informaciones obren en poder de los servicios de la Corporación y resulten precisos para el desarrollo de su función. La solicitud de ejercicio del derecho recogido en el párrafo anterior habrá de ser resuelta motivadamente en los cinco días naturales siguientes a aquél en que se hubiese presentado.*



- c) 2568/1986 Errege Dekretua, Toki Erakundeen Antolakuntza, Jarduera eta Araubide Juridikoa (AJA) arautzen dituen; 14. 15. eta 16. artikulua:
- 14. artikulua: *1. Todos los miembros de las Corporaciones Locales tienen derecho a obtener del Alcalde o Presidente o de la Comisión de Gobierno cuantos antecedentes, datos o informaciones obren en poder de los servicios de la Corporación y resulten precisos para el desarrollo de su función. 2. La petición de acceso a las informaciones se entenderá concedida por silencio administrativo en caso de que el Presidente o la Comisión de Gobierno no dicten resolución o acuerdo denegatorio en el término de cinco días, a contar desde la fecha de solicitud. 3. En todo caso, la denegación del acceso a la documentación informativa habrá de hacerse a través de resolución o acuerdo motivado.*
  - 15. artikulua: *No obstante lo dispuesto en el número 1 del artículo anterior, los servicios administrativos locales estarán obligados a facilitar la información, sin necesidad de que el miembro de la Corporación acredite estar autorizado, en los siguientes casos:*
    - a) *Cuando se trate del acceso de los miembros de la Corporación que ostenten delegaciones o responsabilidades de gestión, a la información propia de las mismas.*
    - b) *Cuando se trate del acceso de cualquier miembro de la Corporación, a la información y documentación correspondiente a los asuntos que hayan de ser tratados por los órganos colegiados de que formen parte, así como a las resoluciones o acuerdos adoptados por cualquier órgano municipal.*
    - c) *Cuando se trate del acceso de los miembros de la Corporación a la información o documentación de la entidad local que sean de libre acceso para los ciudadanos.*
  - 16. artikulua: *1. La consulta y examen concreto de los expedientes, libros y documentación en general se regirá por las siguientes normas:*
    - a) *La consulta general de cualquier expediente o antecedentes documentales podrá realizarse, bien en el archivo general o en la dependencia donde se encuentre, bien mediante la entrega de los mismos o de copia al miembro de la Corporación interesado para que pueda examinarlos en el despacho o salas reservadas a los miembros de la Corporación. El libramiento de copias se limitará a los casos citados de acceso libre de los Concejales a la información y a los casos en que ello sea expresamente autorizado por el Presidente de la Comisión de Gobierno.*
    - b) *En ningún caso los expedientes, libros o documentación podrán salir de la Casa Consistorial o Palacio Provincial, o de las correspondientes dependencias y oficinas locales.*



TOLOSAKO  
UDALA

*c) La consulta de los libros de actas y los libros de resoluciones del Presidente deberá efectuarse en el archivo o en la Secretaría General.*

*d) El examen de expedientes sometidos a sesión podrá hacerse únicamente en el lugar en que se encuentren de manifiesto a partir de la convocatoria.*

- *2. En el supuesto de entrega previsto en el apartado a) del número anterior, y a efectos del oportuno control administrativo, el interesado deberá firmar un acuse de recibo y tendrá la obligación de devolver el expediente o documentación en un término máximo de cuarenta y ocho horas, o antes, en función de las necesidades del trámite del expediente en cuestión.*
- *3. Los miembros de la Corporación tienen el deber de guardar reserva en relación con las informaciones que se les faciliten para hacer posible el desarrollo de su función, singularmente de las que han de servir de antecedente para decisiones que aún se encuentren pendientes de adopción, así como para evitar la reproducción de la documentación que pueda serles facilitada, en original o copia, para su estudio.*

d) 19/2013 Legea, Gardentasunari, Informazioa eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzkoaren xedapenak (publizitate aktiboari eta informazio publikoko eskubideari dagozkionak).

e) 2/2016 Legea, Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzkoa; VI. Tituluan xedaturikoa (Gobernu irekia. Gardentasuna, datu irekiak eta herritarren parte-hartzea).

Beraz, Erregelamenduan jasotako arauak aipatutako legeriaren arabera interpretatuko dira. Araudi hori, gainera, Erregelamenduan aurreikusten ez den guztirako osagarri gisa aplikatuko da.

## **5.- Informazioa egikaritzeko eskubidea**

Erregelamenduaren 1.a) artikuluan xedaturiko subjektuek Tolosako Udalaren espedienteak kudeatzeko programa informatikoan sartzeko aukera izango dute, baina soilik kontsultak egiteko, 1. eranskinean adierazten diren izaera konfidentzialeko espedienteak salbu.

Zinegotziak informazioa paperean eskuratzen badu, jaso izanaren agiria izenpetuko du, dagokion Departamentuko langileak eginda, Erregelamendu honen 2. eranskinean dagoen ereduari jarraituz.



Izan ere, Toki-korporazioetako kideen eskubidea da alkatearengandik lortzea "beren eginkizuna betetzeko beharrezkoak diren udal datuak eta informazioak". Beraz, alkateak informazio hori eskuratzeko baimena emateko gakoa da informazio hori beharrezkoa izatea hala eskatzen duten Udalbatzako kideen eginkizunak garatzeko, Auzitegi Gorenaren 2000ko azaroaren 27ko epaia ñabardura gisa hartuta, "Beharrezkoa" baita udal jarduera fiskalizatu eta kontrolatzeko eginkizunarekin zerikusia duen guztia, eta, beraz, informazio bat eskatzea inplizituzat jo behar baita. Zinegotziek beren eginkizunak betetzean, Auzitegi Gorenak bere eginkizunarekin zerikusia duten gaiak modu zabalean eta korporazioko kideen alde interpretatuz, eta, gainera, Korporazioak frogatu behar du lortu nahi den helburua ez dela zinegotzien informazio-eskubidea beren eginkizunarekin lotzen duena.

Udalbatzako kideek idatziz eskatu beharko diote informazioa alkateari edo zinegotzi delegatuari, eta eskaera onartutzat joko da administrazio-isiltasunez, eskaera egin eta bost eguneko epean ezezko ebazpenik edo erabakirik ematen ez bada. Nolanahi ere, ukatzeko erabakia ebazpen edo erabaki arrazoitu bidez egin beharko da, eta Estatuko legeriak udal informaziorako sarbidea zergatik uka daitekeen adierazten ez badu ere, pentsa daiteke, ohorerako, intimitaterako, norberaren irudirako edo sekretu ofizialerako konstituzio-eskubideak babestu behar diren kasuetatik kanpo, zaila dela alkateak udal informaziorako sarbidea baimendu ezin duen beste kasu batzuk aurkitzea, baina ez dago eragozpenik informazio hori blokean ez emateko, baizik eta pixkanaka eta progresiboki (STS 1988/11/8).

Nolanahi ere, Udalbatzako kideek isilpean gorde behar dituzte beren eginkizuna bete ahal izateko ematen zaizkien informazioak, eta ez dute erreproduzitu behar, ez jatorrizkoan, ez kopian, azter ditzaten.

Korporatiboen informazio eskubidea eta udal zerbitzuen ohiko funtzionamendua bermatzearen, zinegotziek antolatu beharko dituzte beren informazio eskaerak, udal sailtako lan-prozesuei eta teknikarien lanari ahalik eta eragin txikiena sortzeko moduan. Beraz, informazioa jasotzeko eskubidea erabiltzeak ezingo du berekin ekarri administrazioaren eraginkortasunaren printzipioa kaltetzea; hala, bada, eskubide hori udal zerbitzuen lan-araubidearekin harmonizatu beharko da. Bereziki, ezingo da egin informazio-eskabide generikorik eta bereizkuntzarik gabekorik, eta eskabide hori jaso duen udal arloak bereizkuntzarik gabekoa dela edo beraren funtzionamendu normala oztopatzeko moduko konplexutasuna duela irizten badio, hala jasota utzi beharko du ebazpen arrazoitu baten bidez, bost egun naturaleko epean, gehienez, eskabidea idatziz egiten denetik hasita.

## **6.- Kopia eskuratzea.**

Bereziki kontuan hartzekoa da kopia igortzeari buruzko gaia. AJAren 16. artikuluko a) idatz-zati hau aztertuta, ondorioztatu dezakegu, arlo horretako jurisprudentzia ugariak



(Auzitegi Gorenaren 2006/03/29ko epaia) dioen bezala, Espainiako Konstituzioaren 23.2 artikulutik eratorritako informazio-eskubideak ez duela oinarrizko eskubidearen berezko edukizat hartzen kopiak lortzeko eskubidea, zeina AJAren 16 a) artikulukoak berak mugatzen baitu. Beraz, kopia lortzeko eskubidea zinegotziak informaziorako sarbide libreko kasuetara mugatzen da (AJAren 15. artikulukoak), bai eta Tokiko Gobernu Batzarreko presidentek hala baimentzen duen kasuetara ere (AJAren 14. artikulukoak).

Azkenik, eta lizentziak lortzeko Udaletxean aurkeztutako proiektu teknikoak eskuratzeko eskubideari dagokionez, esan behar da Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bateginaren 10.1f) artikuluan jasotako jabetza intelektualerako eskubideak babesten dituela (apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuak onartu zuen testu bategin hori), bai eta etxebizitzaren jabearen intimitate pertsonalerako eskubideak ere. Beraz, espedientea amaituta badago, ezin da ukatu espedienterako sarbidea, baina bai pertsonen intimitateari buruzko datuak dituzten dokumentuetarako sarbidea, eta proiektuen kopiak egiteari dagokionez, ukatu egin daiteke, egile-eskubideen babesean oinarrituta.

## **7.- Datu pertsonalen babesa.**

Ez TAOALEk ez AJAk ez dute inolako mugarik ezartzen informaziorako sarbidea ukatzeko, horrek pertsonen pribatutasun-eremuari eragiten dionean; izan ere, intimitaterako eskubidearen aurkakotasunak, eta informaziorako eskubidea, 23.1 Estatuko Konstituzioarena, azken horren alde ebatzi da. Beraz, arau orokor gisa, ez da bidezkoa udal informaziorako sarbidea ukatzea, pertsonen intimitateari edo pribatutasunari eragiten dioten datuak dituela argudiatuz, korporaziokideen konfidentzialtasun-betebeharrari kalterik egin gabe, nahiz eta datu pertsonalak babesteko fitxategietan sartutako dokumentuak izan.

Abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa -Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa-. urratzeari dagokionez, berriro esan behar da dokumentazioa eskuratzeko legezko gaikuntza dagoen neurrian ez dela urratzen datu pertsonalak lagatzeko debekua. Eta hori guztia Legearen 8.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, lagapen hori lege-arau batek babesten baitu. Alde horretatik, Datuak Babesteko Espainiako Agentziak zinegotzien informazio-eskubidea baliatzeari buruz emandako doktrinaren arabera, emandako informazioa isilpean gordetzeko betebeharra eta kontrol politikoaren funtzioa legitimatzen duten helburuetarako erabiltzeko betebeharra alde batera utzita, informazio hori aipatu Legeak aurreikusten duen erregimenaren arabera eman behar da.

Hala eta guztiz ere, bereziki babestutako datu pertsonalak dauzkaten espedienteetan ezin izango da sarbide elektronikorako baimenik eman, eta debekaturik dago horiek eskuratzea Alkatzetzaaren edo dagokion zinegotzi delegatuaren baimenik gabe, beti ere udal idazkariaren iritzia kontuan harturik. Horiek espediente erreserbatuak izango dira.



## 8.- Informazioa ukatzeko edo mugatzeko arrazoiak

Informazioa ukatzea eta informaziora sartzea mugatzea arrazoitu egin beharko da beti, eta idatziz. Erregelamenduan jasotzen diren arrazoiak eskaerak ez izapidetzeko, 19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak, 18. artikuluan xedatutakoarekin bat datoz .

## 9.- Txostenen eskaerak

Txostenen eskaeren izapidetzea, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak, apirilaren 18koak, toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duenak, 55. artikuluan xedaturiko kasuetan eman behar dira nahitaezko izaeraz. Xedapen honen arabera, udal idazkariak espedienteak informatu behar ditu:

- a) Korporazioko lehendakariak hala agintzen duenean edo kideen herenak hala eskatzen duenean, osoko bilkura egin aurretik.
- b) Gehiengo berezia behar duten gaiak buruzko gaiak direnean.
- c) Lege Sektorial batek hala eskatzen duenean.

Kasu horietan, idazkariak, edo bere kasuan, dagokion Administrazio Orokorreko teknikariak, idazkariaren oniritziarekin, eman behar dute txostena.

Udal teknikariek informatu beharko dituzte gainontzeko espedienteak, udal organo batek dagokion ebazpena eman aurretik.

Kasu horiek alde batera utzita, indarrean dagoen legediak ez du arautzen udal teknikariek edo udal idazkariak txostenak egitea Korporazioko kideek eskatuta. Aipatutako kasuetatik kanpo, Korporazioko kideek eskatutako txostenak egitea, beraz, ez da haien eskubidea, eta Alkatetzaren edo gaian eskumena duen zinegotzi ordezkariaren aginduz baino ezin da egin. **Azken buruan, legeak ez du aurreikusten "ad hoc" txostenik egitea, zinegotzi edo talde batek eskatuta eta edozein administrazio-espediente alde batera utzita.**

## 10.- Erregelamendua onartzeko organo eskuduna

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 22.2.d) artikuluan xedaturikoaren arabera, Erregelamenduaren onarpena udalbatza plenoaren eskumena da.

Bestaldetik, erabaki honek korporazioa osatzen duten kideen gehiengoa behar du, aipaturiko Legearen 47.2.f) artikuluan xedaturikoa jarraituz. Izan ere, Araudi honen xedapenek, Erregelamendu Organikoaren izaera dute, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeak arautzen dituenak, bere 25.1, 29.1 eta Lehenengo Xedapen Gehigarriaren 1.a) atalean xedatutakoaren arabera.



TOLOSAKO  
UDALA

## 11.- Onartzeko prozedura.

7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, 49. artikuluan xedatutakoaren arabera, Erregelamendua onartzeko jardunbidea ondokoa izango da:

- a) Hasierako onespena, udalbatza plenoak ebatzita gehiengo absolutuz.
- b) Erabakiaren publikazioa eta Informazio publikoko izapidea, 30 lanegunez. Hasierako onespenerako iragarkia argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta udaletxeko web orrian eta iragarki taulan
- c) Alegazioei buruzko ebazpena eta behin betiko onespena, udalbatza plenoak emanda. Alegaziorik ez balitz aurkeztuko, Erregelamendua onartutzat emango da informazio publikoko epea amaitu eta gero.
- d) Behin betiko testuaren publikazioa, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta udaletxeko web orrian eta iragarki taulan.

Ez da beharrezkoa Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 133.4 artikulua, korporazioaren berezko antolaketa-araua baita.

Tolosako Udaleko Antolakuntza Batzorde Informatiboak, 2020ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, irizpen hau aztertu eta bozkatu zuen, eta bozketaren emaitza honako hau izan zen:

**Aldeko botoak:** Xabier Balerdi, Begoña Tolosa, Nerea Letamendia, eta Jose Mari Villanueva.

**Abstentzioak:** Garbiñe Marzol, Kristina Pelaez eta Ander Figuerido.

Beraz, Tolosako Udalbatza Plenoari honako hau onartzea proposatzen zaio:

## IRIZPENA

**LEHENIK:** UDALEKO KIDEEN INFORMAZIO PUBLIKOKO ESKUBIDEA ARAUTZEN DUEN ERREGELAMENDUA hasieraz onartzea, honako testu honen arabera:

### **UDALEKO KIDEEN INFORMAZIO PUBLIKOKO ESKUBIDEA ARAUTZEN DUEN ERREGELAMENDUA**

#### **AURREKARIAK**

*Tolosako Udalak ez du erregelamendu organikorik, besteak beste, korporazioko kideen eskubideak eta betebeharrak, kide anitzeko organoen funtzionamendua eta indarrean dagoen ordenamendu juridikoak haiei aitortzen dizkien eskubideak bermatzeko beharrezkoak diren prozedurak arautzeko.*





*Berre-premia horrek eta zinegotziek informazio publikorako sarbidea baliatzeko bideek garrantzi berezia hartzen dute Tolosako Udalak eraldaketa erabakigarria izango duen une honetan, administrazio elektronikoa ia erabat ezarriz.*

*Administrazio elektronikoa ezartzeko prozesuak bilakaera garrantzitsua izan du azken hilabeteetan: Erregistro Elektronikoa guztiz operatibo dago; udal-espeditente gehienak (epe laburrean guztiak izango dira) espeditenteak kudeatzeko programa elektronikoaren bidez kudeatzen dira; sinadura elektronikoa epe laburrean ezartzeaz dago; jakinarazpen elektronikoak errealitate bat dira... testuinguru horretan, Korporazioko kideek informazioa eskuratzeko eskubidea arautzerakoan, kontuan izan behar da informazio hori non dagoen, edo, hobeto esanda, informazio horren euskarria.*

*Hots, Tolosako udal korporazioari proposatzen zaion araudiaren xedea da Udalbatzako kideen informazio-eskubidea arautzea, baldin eta alkatetza-eskuordetzarik ez badute edo, zinegotzi delegatuak izanik, informaziorako eskubidea baliatu nahi badute eskuordetzaren xedearekin zerikusirik ez duten gaiei buruz.*

*Era berean, Erregelamendu honen bidez, korporazioko kideek udal teknikariei txostenak egiteko egindako eskaerari aplikatu beharreko araubide juridikoa argitu nahi da, eskubide hori eta udal-zerbitzuen funtzionamendu normala bermatuta gera daitezen.*

*Azkenik, araudi honetatik kanpo gelditu da udal intranet zerbitzuaren araudia, tresna hau oraindik ez dagoelako indarrean. Hala ere, Intraneta diseinatzeako jardunbidea garatu eta ezartzearekin batera, dagokion araudia onartzea proposatuko zaio organo eskudunari.*

## **ERREGELAMENDUKO XEDAPENAK**

### **1.- Erregelamenduaren esparru subjektiboa**

*Erregelamenduko xedapenak aplikatuko zaizkie:*

- 1. Alkatearen eskumenak eskuordetzan ez dituzten Tolosako Udaleko zinegotziei.*
- 2. Udal honetako zinegotzi delegatuei, eskutatako informazio publikoa eskuordetzaren xede diren gaietatik kanpo dagoenean.*

*Bestaldetik, Alkateak, udalaren esku dagoen informazio publiko guztia eskuratzeko eskubidea du, eta espeditente guztien kontsultarako sarbidera izango du (elektronikoa zein fisikoa) . Halaber, zinegotzi delegatuek dagozkien sailtako espeditente guztiak kontsultatzeko sarbidea izango dute (elektronikoa zein fisikoa), artikulua hauetan xedaturiko terminoetan.*

### **2.- Eskubidearen esparru objektiboa**

*Araudi honek xedatzen du korporatiboen informazio eskubidea, batez ere elektronikoki izapidetzen diren espeditenteen kasuan. Hala ere, hainbat xedapen kontuan hartu dira paperean dagoen dokumentazio publikoa eskuratzeko eta txostenak eskatzeko eskubidea arautzeko.*

*Udaleko zerbitzu informatikoen ahalbideratuko dute aurreneko atalean aipaturiko korporazioko kideek espeditenteetara sarbidea izatea soilik kontsultak egiteko. Eskubide honek ez du ahalbideratuko kontsultatzen diren espeditenteetan aldaketak egitea, edota edozein interbentzio*



*mota gauzatzea, espediente horien osotasuna edo benetakotasuna aldatzeko xedea baldin badu, sinadura elektronikoa beharrezkoa den kasuetan izan ezik.*

### **3.- Informazio publikoa: kontzeptua eta eskuratzeko mugak.**

*19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak, 13. artikuluan xedatzen du informazio publikoaren kontzeptua era honetan: Informazio publiko dira titulu honen aplikazio-eremuan aipatutako subjektuen esku dauden eduki edo dokumentuak, haiek beren funtzioen jardunean egin edo eskuratu dituztenak, edozein formatu edo euskarritan daudela ere. Beraz, araudi honek arautuko du bere 1.a) artikuluan xedaturiko subjektuek duten informazio publikoaren informazio eskubidea, Tolosako Udalari eta bere sektore publikoa osatzen duten erakundeei buruzkoa.*

*Bestaldetik, aipatu Legearen 14. artikuluan xedaturikoa jarraituz, eskubide hau mugatu edo egokitu ahal izango da ondorengo kasuetan:*

- Zigor-, administrazio- edo diziplina-arloko egintza ez-zilegien prebentzioa, ikerketa eta zigorra.*
- Prozesu judizialtako aldean berdintasuna eta benetako babes judiziala.*
- Zaintza, ikuskaritza eta kontroleko funtzio administratiboak.*
- Interes ekonomiko eta komertzialak.*
- Sekretu profesionala eta jabetza intelektual eta industrial.*
- Erabakiak hartzeko prozesuetarako beharrezko konfidentzialtasunaren edo sekretuaren bermea.*

### **4.- Korporatiboen Informazio eskubideen lege-oinarriak**

*Erregelamendu honek araututako informazio eskubideak xedapen hauek ditu oinarri:*

- a) Indarrean dagoen Konstituzioaren 23. artikulua: 1. Los ciudadanos tienen el derecho a participar en los asuntos públicos, directamente o por medio de representantes, libremente elegidos en elecciones periódicas por sufragio universal.*
- b) 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; 77 artikulua: Todos los miembros de las Corporaciones locales tienen derecho a obtener del Alcalde o Presidente o de la Comisión de Gobierno cuantos antecedentes, datos o informaciones obren en poder de los servicios de la Corporación y resulten precisos para el desarrollo de su función. La solicitud de ejercicio del derecho recogido en el párrafo anterior habrá de ser resuelta motivadamente en los cinco días naturales siguientes a aquél en que se hubiese presentado.*
- c) 2568/1986 Errege Dekretua, Toki Erakundearen Antolakuntza, Jarduera eta Araubide Juridikoa arautzen dituena; 14. 15. eta 16. artikulua:*
  - 14. artikulua: 1. Todos los miembros de las Corporaciones Locales tienen derecho a obtener del Alcalde o Presidente o de la Comisión de Gobierno cuantos antecedentes, datos o informaciones obren en poder de los servicios de la Corporación y resulten precisos para el desarrollo de su función. 2. La petición de acceso a las informaciones se entenderá concedida por silencio*



*administrativo en caso de que el Presidente o la Comisión de Gobierno no dicten resolución o acuerdo denegatorio en el término de cinco días, a contar desde la fecha de solicitud. 3. En todo caso, la denegación del acceso a la documentación informativa habrá de hacerse a través de resolución o acuerdo motivado.*

- *15. artikulua: No obstante lo dispuesto en el número 1 del artículo anterior, los servicios administrativos locales estarán obligados a facilitar la información, sin necesidad de que el miembro de la Corporación acredite estar autorizado, en los siguientes casos: a) Cuando se trate del acceso de los miembros de la Corporación que ostenten delegaciones o responsabilidades de gestión, a la información propia de las mismas. b) Cuando se trate del acceso de cualquier miembro de la Corporación, a la información y documentación correspondiente a los asuntos que hayan de ser tratados por los órganos colegiados de que formen parte, así como a las resoluciones o acuerdos adoptados por cualquier órgano municipal. c) Cuando se trate del acceso de los miembros de la Corporación a la información o documentación de la entidad local que sean de libre acceso para los ciudadanos.*
  
- *16. artikulua: 1. La consulta y examen concreto de los expedientes, libros y documentación en general se regirá por las siguientes normas: a) La consulta general de cualquier expediente o antecedentes documentales podrá realizarse, bien en el archivo general o en la dependencia donde se encuentre, bien mediante la entrega de los mismos o de copia al miembro de la Corporación interesado para que pueda examinarlos en el despacho o salas reservadas a los miembros de la Corporación. El libramiento de copias se limitará a los casos citados de acceso libre de los Concejales a la información y a los casos en que ello sea expresamente autorizado por el Presidente de la Comisión de Gobierno. b) En ningún caso los expedientes, libros o documentación podrán salir de la Casa Consistorial o Palacio Provincial, o de las correspondientes dependencias y oficinas locales. c) La consulta de los libros de actas y los libros de resoluciones del Presidente deberá efectuarse en el archivo o en la Secretaría General. d) El examen de expedientes sometidos a sesión podrá hacerse únicamente en el lugar en que se encuentren de manifiesto a partir de la convocatoria.*
  
- *2. En el supuesto de entrega previsto en el apartado a) del número anterior, y a efectos del oportuno control administrativo, el interesado deberá firmar un acuse de recibo y tendrá la obligación de devolver el expediente o documentación en un término máximo de cuarenta y ocho horas, o antes, en función de las necesidades del trámite del expediente en cuestión.*
  
- *3. Los miembros de la Corporación tienen el deber de guardar reserva en relación con las informaciones que se les faciliten para hacer posible el desarrollo de su función, singularmente de las que han de servir de antecedente para decisiones que aún se encuentren pendientes de adopción, así como para evitar la reproducción de la documentación que pueda serles facilitada, en original o copia, para su estudio.*



TOLOSAKO  
UDALA

d) 19/2013 Legea, Gardentasunari, Informazioa eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzkoa; xedapen hauek: publizitate aktiboari eta informazio publikoko eskubideari dagozkionak.

e) 2/2016 Legea, Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzkoa; VI Tituluan xedaturikoa (Gobernu irekia. Gardentasuna, datu irekiak eta herritarren parte-hartzea)

Erregelamendu honetan jasotako arauak aipatutako legeriaren arabera interpretatuko dira. Araudi hori, gainera, Erregelamenduan aurreikusten ez den guztirako osagarri gisa aplikatuko da.

### **5.- Informazioa egikaritzeko eskubidea formatuaren arabera**

Aurreko xedapenak interpretatu behar dira gaurko errealitatea ikusirik, alegia, udal informazio gehiena espediente elektronikoetan jasota dagoela kontutan hartuta. Hala, aurreko atalean aipatu diren arauak egokitu behar dira espediente elektronikoak jasotzen dituen programaren funtzionamendu eta aukeretara.

Beraz, Erregelamendu honen 1.a) artikuluan xedaturiko subjektuek Tolosako Udalaren espedienteak kudeatzeko programa informatikoan sartzeko aukera izango dute, soilik kontsultak egiteko, 1. eranskinean adierazten diren izaera konfidentzialeko espedienteak salbu.

Halaber, informazioa eskuratzean, korporatiboaren nortasuna, noiz sartzen den, eta informazio horren edukia eta osotasuna kontrolatuko direla bermatuko da. Halaber, espedienteak kudeatzeko programak jaso eta kontserbatuko ditu hemen aipatzen diren datuak, eta ahalbideratuko du informazio hori lortzea beharrezkoa denean.

Zinegotziak informazioa paperean eskuratzen badu, jaso izanaren agiria izenpetuko du, dagokion saileko langileak eginda, Erregelamendu honen 2. eranskinean dagoen ereduari jarraituz.

Korporazioko kideek zehurtiaz eta erreserbaz jokatu behar dute beren eginkizuna betetzeko lortutako informazioei dagokienez, bereziki oraindik hartu gabe dauden erabakietarako aurrekari izan behar dutenei dagokienez. Era berean, eskura duten informazioa erreproduzitzea edota beste zereginetarako erabiltzea saihestu beharko dute.

Halaber, isilpean gorde beharko dituzte argudiaketak, eztabaidak edo bozketak, edo beren karguagatik ezaguturiko edozein informazio, bereziki pertsonen oinarriko eskubideei doazkienean

### **6.- Informazioa publikoa paperean eskuratzeko prozedura**

Tokiko administrazio-zerbitzuek informazioa eman beharko dute, aurretik idatziz eskatuta, 1.a) artikuluan xedaturiko korporazioko kideak baimenduta dagoela egiaztatu beharrik gabe, honako kasu hauetan:

1. Kide anitzeko organoek aztertu beharreko gaien buruzko informazioa eta dokumentazioa, baldin eta eskatzailea organo horien kidea izango balitz.
2. Edozein udal organok hartutako ebazpen edo erabakiak.
3. Toki-erakundearen informazioa edo dokumentazioa, herritarrentzako sarbide askekoa dena.



Gainontzeko kasuetan, zinegotziak idatziz eskatu beharko du informazioa edo dokumentazioa, udaleko sarrera erregistrotik, bide telematikoa erabiliz. Eskaera alkateari edo, hala dagokionean, zinegotzi delegatuari egin behar zaio, eta erantzun beharko du bost egun naturaleko epean. Erantzuten ez badu, administrazio-isiltasuna positiboa izango da.

Zinegotziek antolatu beharko dituzte beren informazio eskaerak, udal sailtako lan-prozesuei eta teknikarien lanari ahalik eta eragin txikiena sortzeko moduan. Beraz, informazioa jasotzeko eskubidea erabiltzeak ezingo du berekin ekarri administrazioaren eraginkortasunaren printzipioa kaltetzea; hala, bada, eskubide hori udal zerbitzuen lan-araubidearekin harmonizatu beharko da. Bereziki, ezingo da egin informazio-eskabide generikorik eta bereizkuntzarik gabekorik, eta eskabide hori jaso duen udal sailak bereizkuntzarik gabekoa dela edo beraren funtzionamendu normala oztotatzeko moduko konplexutasuna duela irizten badio, hala jasota utzi beharko du ebazpen arrazoitu baten bidez, bost egun naturaleko epean, gehienez, eskabidea idatziz egiten denetik hasita.

#### **7.- Kopia eskuratzea.**

Dokumentazioa inprimatzea edo fotokopiak lortzea beharrezkotzat joko da soilik korporazioko kideak nahitaezko duenean bere eginkizunak betetzeko, eta ingurumenari loturiko irizpideak jarraituz.

Fotokopiak edo kopia formatu elektronikoan eskuratzeko, informazio mota hauek bereiziko dira:

- a) Ez dute alkatearen edo zinegotzi delegatuaren baimenik behar kasu hauetan: zinegotziaren kide anitzeko organoen bilkurari dagozkion dokumentuak direnean; dagokion delegazioaren eremuko espedienteak direnean; edo herritar guztientzat eskuragarri dagoen informazioa denean (gardentasunari buruzko araudian arautua, ekintza publikoa edo herri-akzioaren printzipioan oinarritutako espedienteak, etab.).
- b) Gainerako espedienteen kopia eskuratzeko, alkatearen edo dagokion zinegotzi delegatuaren baimena behar dute.

#### **8.- Datu pertsonalen babesa.**

Kasu honetan aplikagarriak izango dira 2016/679 Europako Erregelamendu Orokorrak, Datuen Babesari buruzkoak, eta 3/2018 Lege Organikoak, Datu Pertsonalen Babesari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzkoak, xedaturikoa.

Erregelamendu honen hirugarren atalean jasotako legeriak ahalmena ematen dio Udalari espedienteetan dauden datu pertsonalak korporazioko kideei lagatzeko, beti ere bertan xedaturiko baldintzak kontuan hartuta, eta aipatu den araudian xedaturiko mugak errespetatuz.

Hala eta guztiz ere, bereziki babestutako datu pertsonalak dauzkaten espedienteetan ezin izango da sarbide elektronikorako baimenik eman, eta debekaturik dago horiek eskuratzea Alkatezaren edo dagokion zinegotzi delegatuaren baimenik gabe, beti ere udal idazkariaren iritzia kontuan harturik. Horiek espediente erreserbatuak izango dira.

Korporatiboak Udal honen esku dagoen informazio publikoa eskuratu behar badu bere karguarekin zerikusirik ez duten zereginetarako, gainerako herritarren posizio bera izango du, eta informazio publikoa eskuratzeko araudi orokorra aplikatuko zaio.



### **9.- Espediente erresebatuen zerrenda.**

Udal idazkariak —udal artxiboen arduraduna den heinean— ebatziko du espediente baten izaera erresebatua, espedienteari dagokion saileko buruak proposatuta. Izaera erresebatua, sailari, korporazioko kideei eta udal zerbitzu informatikoei jakinaraziko zaie, beharrezkoak diren konfidentzialtasunezko neurriak har ditzaten.

Gaur egun izaera erresebatua duten espedienteen zerrenda erantsi zaio Instrukzio honi 1. eranskin gisa.

### **10.- Informazioa ukatzeko edo mugatzeko arrazoiak**

Informazioa ukatzea eta informaziora sartzea mugatzea arrazoitu egin beharko da beti, idatziz arrazoitu ere.

Informazioa ukatu edo mugatu ahal izango da, ebazpen arrazoitu bidez, honako kasu hauetan:

- a) Informazioa egiteko bidean dagoenean eta hirugarrenen eskubideak edota administrazio prozedura kaltetzen duenean.
- b) Informazioa espediente batean dagoen dokumentazioaren osagarri edo laguntzarako denean; esate baterako, halako informaziotzat hartzen da, oharretan, zirriborroetan, iritzietan, laburpenetan, barne komunikazio eta txostenetan jasotakoa.
- c) Informazioa ez dagoenean Udalaren esku.

### **11.- Txostenen eskaerak**

Txostenen eskaeren izapidetzea, 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak, apirilaren 18koak, toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duenak, 55. artikuluan xedaturiko kasutan emango dira nahitaezko izaeraz. Xedapen horren arabera, udal idazkariak espedienteak informatu behar ditu:

- a) Korporazioko lehendakariak hala agintzen duenean edo kideen herenak hala eskatzen duenean, osoko bilkura egin aurretik.
- b) Gehiengo berezia behar duten gai buruzko gaiak direnean.
- c) Lege sektorial batek hala eskatzen duenean

Kasu horietan, idazkariak edo, hala dagokionean, Administrazio Orokorreko teknikariak, idazkariaren oniritziarekin, egin behar du txostena.

Gainontzeko kasuetan, zinegotzien txostenen eskaerak honela izapidetuko dira:

1. Zinegotziak idatziz eskatu beharko du txostena, Udaletxeko sarrera erregistrotik, bide telematikoa erabiliz. Eskaera alkateari edo, hala badagokio, zinegotzi delegatuari egingo zaio, eta haren xedea ahalik eta zehatzena izango da.
2. Alkateak edo zinegotzi delegatuak erantzungo du hilabete bateko epean. Erantzuten ez badu, administrazio-isiltasuna negatiboa izango da.

Zinegotziek antolatu beharko dituzte beren eskaerak udal sailletako lan-prozesuei eta teknikarien lanari ahalik eta eragin txikiena sortzeko moduan. Txostenen idazketak ezingo du berekin ekarri administrazioaren eraginkortasunaren printzipioa kaltetzea; hala, bada, eskaera hori udal zerbitzuen lan-araubidearekin harmonizatu beharko da. Berezik, ezingo da egin eskabide



generikorik eta bereizkuntzarik gabekorik, eta eskabide hori jaso duen udal sailak bereizkuntzarik gabekoa dela edo beraren funtzionamendu normala oztopatzeko moduko konplexutasuna duela irizten badio, hala jasota utzi beharko du ebazpen arrazoitu baten bidez, hilabete bateko epean, gehienez, eskabidea idatziz egin den egunaren biharamunetik hasita.

## 2. ERANSKINA

### ESPEDIENTEA/DOKUMENTAZIOA JASO IZANAREN AGIRIA

|  |  |
|--|--|
| <b>ESPEDIENTEA EDO<br/>DOKUMENTAZIOA:<br/>GAIA</b> |  |
| <b>ESPEDIENTEAREN<br/>KODEA</b>                    |  |
| <b>SAILA</b>                                       |  |
| <b>LANGILE<br/>ARDURADUNA</b>                      |  |
| <b>JASO DUEN<br/>ZINEGOTZIA</b>                    |  |
| <b>ESPEDIENTEA<br/>ITZULTZEKO DATA</b>             |  |

Agiri hau izenpetzen duen zinegotziak honako hau adierazten du:

- 1.- Espediente/Dokumentazio hau erabili duela bere karguari dagozkion funtzio publikoekin loturiko xedeetarako.
- 2.- Errespetatuko duela espedientean/dokumentazioan agertzen diren izaera pertsonaleko datuen zein gainontzeko informazioaren konfidentziasuna.
- 3.- Jatorrizko espedienteen kasuan: espedientea ez dela aterako udal bulegoetatik edo taldearen bulegotik kanpo.

Eta bidezkoak diren ondorioetarako, agiri hau izenpetu dute Tolosan, .....(e)an, funtzionarioak eta zinegotziak.

Funtzionarioa

Zinegotzia



TOLOSAKO  
UDALA

**BIGARRENA.-** Espedientea informazio publikoan jartzea hogeita hamar laneguneko epean, interesatuek aztertu eta, hala badagokie, alegazio edo iradokizunak aurkez ditzaten.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hauek argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta Tolosako Udaleko web orrian eta iragarki taulan.

Horretaz aparte, 2020ko martxoaren 4n, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, EAJ/PNV alderdiko zinegotziak, 2509 erregistro zenbakia duen idatziaren bitartez, honako zuzenketa hau aurkeztu zuen:

### **ZUZENKETA Udaleko kideen informazio publikoko eskubidea arautzen duen Erregelamenduari**

2020ko otsailaren 18an gauzatu zen Antolaketa Batzorde Informatiboan, EHBILDU talde politikoak "Udaleko kideen informazio publikoko eskubidea arautzen duen Erregelamendua"ren gaineko proposamen bat egin zuen ahoz, aipatutako erregelamenduaren Txostenen Eskakerak izeneko 11. puntuko atal baten gainean.

Proposamen horretan, Erregelamenduaren 11. puntuan agertzen zen **hilabeteko epeari** gehiegizkoa irizten zitzaion "txosten eskabideren bat, udal-arloak bereizkuntzarik gabekoa dela edo beraren funtzionamendu normala oztopatzeko moduko konplexutasuna duela" adierazteko, eta ondorioz, epe hori murrizteko proposamena egiten zen.

Proposamen hau Batzordean onartu ez bazen ere, araudiak epe hori egokitzeko bidea ematen duenez, proposamena kontuan hartu eta egokitu egingo da. Beraz, aipatutako hilabeteko epe hori erdira egingo da, eta **10 lan egunetako izango da.**

Beraz, udalbatzan egingo den erregelamenduari ondoren adierazten den zuzenketa hau egin nahi da.

Erregelamenduaren 11. puntuan, Txosten Eskakerak erregulatzen dituen atalean, hauxe dioen lekuan:

"2. Alkateak edo zinegotzi delegatuak erantzungo du **hilabete** bateko epean. Erantzuten ez badu, administrazio-isiltasuna negatiboa izango da.

Zinegotziek antolatu beharko dituzte beren eskaerak udal sailtako lan-prozesuei eta teknikarien lanari ahalik eta eragin txikiena sortzeko moduan. Txostenen idazketak ezingo du berekin ekarri administrazioaren eraginkortasunaren printzipioa kaltetzea; hala, bada, eskaera hori udal zerbitzuen lan-araubidearekin harmonizatu beharko da. Bereziki, ezingo da





TOLOSAKO  
UDALA

egin eskabide generikorik eta bereizkuntzarik gabekorik, eta eskabide hori jaso duen udal sailak bereizkuntzarik gabekoa dela edo beraren funtzionamendu normala oztopatzeko moduko konplexutasuna duela irizten badio, hala jasota utzi beharko du ebazpen arrazoitu baten bidez, **hilabete bateko epean**, gehienez, eskabidea idatziz egin den egunaren biharamunetik hasita."

Hauxe adierazi beharko luke:

"2. Alkateak edo zinegotzi delegatuak erantzungo du **10 lan egunetako** epean. Erantzuten ez badu, administrazio-isiltasuna negatiboa izango da.

Zinegotziek antolatu beharko dituzte beren eskaerak udal sailtako lan-prozesuei eta teknikarien lanari ahalik eta eragin txikiena sortzeko moduan. Txostenen idazketak ezingo du berekin ekarri administrazioaren eraginkortasunaren printzipioa kaltetzea; hala, bada, eskaera hori udal-zerbitzuen lan-araubidearekin harmonizatu beharko da. Bereziki, ezingo da egin eskabide generikorik eta bereizkuntzarik gabekorik, eta eskabide hori jaso duen udal-arloak bereizkuntzarik gabekoa dela edo beraren funtzionamendu normala oztopatzeko moduko konplexutasuna duela irizten badio, hala jasota utzi beharko du ebazpen arrazoitu baten bidez, **10 lan eguneko epean**, gehienez, eskabidea idatziz egin den egunaren biharamunetik hasita."

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

**Aurkako botoak:** Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

Beraz, Udalbatzak gehiengo absolutuz **onartu du** Udaleko kideen informazio publikoko eskubidea arautzen duen Erregelamendua, aipatutako zuzenketarekin.

#### **4. ONARTZEA 2018KO UDAL SEKTORE PUBLIKOAREN KONTU OROKORRA.**

Parte-hartzeak:

... Begoña Tolosa Mendia, Ogasuneko zinegotzi delegatua (EAJ-PNV): "Kontestuan



TOLOSAKO  
UDALA

*jartzeko zertan ari garen ze 2018 kontu orokorra da. Ekitaldiko aurrekontua ixten denean, abenduaren 31, ordura arte onaturiko eskubideak eta betebeharrak dagokienez ikusita martxan jartzen dira bi prozesu. Alde batetik Udal aurrekontuaren likidazioa, organismo autonomoarena, lurramendikoa, eta sozietateen likidazioa. Udal aurrekontua kontuhartzailletzan egiten da Kontuhartzailerearen eskutik, prestatu egiten da txostena eta alkatearen dekretuaren bidez onesten da eta Udalbatzan berri ematen da. Hor izango da lehenengo prozesua. Gero bigarrena dago honekin lotuta kontu orokorra eta hemen pasatzen duguna 2018. urteetakoa. Kasu honetan, kontu orokorraren erakusten da ondarearen egoera, egoera finantzarioa baita ere, eta emaitzen eta aurrekontuaren gauzatze maila nolakoa izan den. Kontu orokorra hau osatzeko beharko genuke berriro Udalaren aurrekontuaren likidazioa, organismo autonomoarena eta Udalen menpeko merkataritza sozietateen urteko kontuak. Hau dena egiteko eskatzen zaigu, ez bakarrik Udalaren aurrekontua itxita egotea eta baita organismo autonomoarena eta Udal menpeko sozietateena ere. Hori egin da, orain dela pare bat hilabeteetan, urtarrilean, Kontu Batzorde Berezia egin genuen, Antolakuntza batzordearen barruan, dokumentazioa osoa banatu zen, dokumentazio teknikoa, Paulinoren eskutik formazioa eman zen eta bertan oniritzia eman zitzaion Kontu Orokorrari jendaurrean jartzeko hamabost lan egunetan. Beste kasuetatik prozedura ezberdina da, aurretik jartzen da jendaurrean eta gero onartu. Egun horiek pasa ondoren, alegaziorik ez da egin, eta otsailaren 19ko Antolakuntza batzordearen barruan berriro diktaminatu zen Udalbatzaren onespena jaso ahal izateko. Aipatu gaia oso teknikoa dela, Kontu Orokorraren onespena funtsezko ekintza bat da kanpoko kontrol organoek fiskalizatu ahal egin dezaten. Ekintza hau, gaur egun egin behar dugun, ez du kontuan jasoko jardueretik adostasunik eskatzen eta ez du honek inolako erantzukizun sorrarazten. Bakarrik prozedimentu administratiboa nolabait 2018. urteko kontua ixteko eta kanpoko kontrolak fiskalizatu dezaten gure kontuak.“*

-----

### **Antolakuntza Batzordearen 2020ko otsailaren 19ko irizpena.**

#### **Aurrekariak**

2018ko Udal Sektore Publikoaren Kontu Orokorrak Kontuen Batzorde Bereziaren aldeko txostena jaso zuen 202ko urtarrilaren 22an.

Kontu Orokorra ondorengo entitateen kontuek osatzen dute:

1. Udalaren Kontua
2. Iurreamendi Egoitzaren Kontua
3. Erretengibel S.A.ren Kontua
4. Tolargi S.L.ren Kontua
5. Tolosa Lantzen S.A.ren Kontua
6. Tolosa Gasa S.A.ren Kontua
7. Tolosa Lotzen S.A.ren Kontua



TOLOSAKO  
UDALA

Dokumentu osagarrien artean, Udalaren mende eta kontu orokorrean integratu gabe dauden entitate hauen urteko kontuak ere sartu dira:

1. Tolosaldea Garatzen S.A.
2. Zazpiturri S.A.
3. Apattaerrekako Industrigunea S.L.

Kontu Orokorraren laburpenean honako dokumentu hauek bildu dira.

#### 1. Udalaren dokumentazioa.

- 1.1. Egoera Balantzea 2018-12-31n
- 1.2. Ekonomia eta ondare arloko emaitzaren kontua
- 1.3. Ondare garbiaren aldaketen egoera-orria
- 1.4. Diru-fluxuen egoera orria
- 1.5. Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria
- 1.6. Memoria
- 1.7. Aurrekontu emaitza eta kontabilitate emaitza berdinkatzeko egoera orria

#### 2. Iurreamendi Egoitzaren dokumentazioa.

- 1.1. Balantzea 2018-12-31n
- 1.2. Ekonomia eta ondare arloko emaitzaren kontua
- 1.3. Ondare garbiaren aldaketen egoera-orria
- 1.4. Diru-fluxuen egoera orria
- 1.5. Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria
- 1.6. Memoria
- 1.7. Aurrekontu emaitza eta kontabilitate emaitza berdinkatzeko egoera orria

#### 3. Erretengibel S.A.ren dokumentazioa.

- 3.1. Egoera Balantzea 2018-12-31n
- 3.2. Galera-Irabazien Kontua
- 3.3. Memoria

#### 4. Tolargi S.L.ren dokumentazioa.

- 4.1. Egoera Balantzea 2018-12-31n
- 4.2. Galera-Irabazien Kontua
- 4.3. Memoria

#### 5. Tolosa Lantzen S.A.ren dokumentazioa.

- 5.1. Egoera Balantzea 2018-12-31n
- 5.2. Galera-Irabazien Kontua
- 5.3. Memoria



TOLOSAKO  
UDALA

## 6. Tolosa Gasa S.A.ren dokumentazioa.

- 6.1. Egoera Balantzea 2018-12-31n
- 6.2. Galera-Irabazien Kontua
- 6.3. Memoria

## 7. Tolosa Lotzen S.A.ren dokumentazioa.

- 7.1. Egoera Balantzea 2018-12-31n
- 7.2. Galera-Irabazien Kontua
- 7.3. Sozietatearen disoluzio eta iraungipenaren eskritura

## 8. Dokumentazio osagarria.

- 8.1. Tolosaldea Garatzen S.A.ren Urteko Kontuak
- 8.2. Zazpiburri S.A.ren Urteko Kontuak
- 8.3. Apattaerrekako Industrigunea S.L.

Ekitaldi bakoitzeko Kontu Orokorrari dagokionez, hurrengo ekitaldiko maiatzaren 15a baino lehen Kontu batzorde bereziak txostena eman beharko du.

Kontu Orokorra eta Kontu batzorde bereziaren txostena jendurrean egongo dira hamabost egunez. Denbora horretan interesdunek erreklamazioak edo oharrak aurkeztu edo eragozpenak aurkitu ahal izango dituzte. Kontu batzorde bereziak hauek aztertu ondoren, beste txosten bat emango du.

Kontu Orokorra Udalbatzari aurkeztuko zaio, Kontu batzorde bereziaren txostenekin eta aurkeztutako erreklamazio eta eragozpenekin batera, hala egokituz gero uztailaren 31 baino lehen onar dezan.

### **Araubide aplikagarria**

- 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, 62, 63 eta 64. artikulua.
- 86/2015 Foru Dekretua, abenduaren 15ekoa, Gipuzkoako Toki Entitateen kontabilitatearen arau esparrua arautzen duena, 1. Eranskinaren II. kapitulua.

Kontu Orokorra, Kontuen batzorde bereziaren txostenarekin batera, jendurrean jarri da hamabost egunetan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu ondoren. Epealdi horretan ez da inongo erreklamaziorik izan.

Hori dela eta, 2018ko Kontu Orokorra Udalbatzak onar dezan proposatu da.

Proposamena bozkatu da, ondorengo emaitzarekin:



TOLOSAKO  
UDALA

**Aldeko botoak:** Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Kristina Pelaez Errazkin eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Hau dela eta, batzordeak hau diktaminatu du:

**Lehena.-** 2018ko Udal Sektore Publikoaren Kontu Orokorra onartzea.

**Bigarrena.-** Espedientearen berri Herri Kontuen Euskal Epaitegiari eta Foru Aldundiari ematea

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** 2018ko Udal Sektore Publikoaren Kontu Orokorra.

## **5. ONARTZEA TOLOSAKO UDALAREN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA (2020-2022).**

Parte-hartzeak:

... Begoña Tolosa Mendia, Ogasuneko zinegotzi delegatua (EAJ-PNV): *“Dirulaguntzen plan estrategikoa edozein dirulaguntzak eman baino lehen Udalak eduki behar du onartuta plan estrategikoa.. Gaur egun hemen aurkezten dugu 2020tik -2022tako, hiru urte legeak hori onartzen duelako. Ez du arau izaera, bere onarpena ez dakar onuradunaren elkarteak edo pertsonen eskubiderik sortzen. Hemen aurreikusten ari gara dirulaguntzak eraginkorrak izateko dagozkion kontsignazioak sartu beharko genituzke urteroko aurrekontuetan eta jarraitu dirulaguntza arautzen dituen arauak. Guk zabaldutako edo banatutako txostenetan Plan Estrategiko honetan ikusten duguna da zortzi Udal sail jorratu dituzte bere dirulaguntza lerro ezberdinak, gizarte zerbitzuak, kirolak, Euskara, Garapen ekonomikoak eta lerro guztietan identifikatu ditugu zeintzuk izango diren hartzaileak helburuak, lortu nahi diren ondorioak, ekintza plana eta baita ere jarraipena bukaeran eta ebaluazioa. Ez da plan itxia, izan ere, momentu batean ikusten bada urtean zehar aurreikusita ez dagoen dirulaguntzaren bat sartu nahi dela, sartu egingo genuke. Egin beharko genuke dirulaguntzaren eranskina aldatu egingo beharko genuke eta baita plan estrategikoa aldatu. Jarraipena*



TOLOSAKO  
UDALA

*eta ebaluazioa urtero egingo da eta horrela eskatzen delako eta sail bakoitzaren buruak egin beharko hurreko lehenengo lau hilabeteetan kontuhartzaitzara pasa memori bat non adieraziko den lerro estrategikoaren bat aldatzen den, lerro estrategiko berria sartzen den e.a. eta noski, memorian azaldu beharko da lortu diren dirulaguntza lerro horren helburuak eta lortu nahi genituen ondorioak. Honekin batera, agian, azpimarratu lanean ari garela momentu honetan deialdi bateratu bat egiteko laguntza eta laguntza zerbitzua indartu egingo da taldeei eta baita ere, bestalde herriko talde eragile eta norbanakoei zuzenduta ikastaro bat egin zela, dirulaguntzak nola aurkezteko azaltzeko, nahiko arrakastatsua izan zena, eta hirugarren untutik baita aipatu Tolosako Eskola Irekian ere tailerra emango dela honi buruz. Dirulaguntzaren Plan Estrategikoa onartzeko eskumena Osoko bilkurak du horrela jasota daukagulako ordenantza orokorrean. Orain falta zaigu udalbatzaren onespena lortzea.”*

-----

### **Antolakuntza Batzordearen 2020ko otsailaren 19ko irizpena.**

Dirulaguntzen plan estrategikoa egiteko justifikazioa 38/2003 Legearen 8. artikuluan oinarritzen da. Lege hori garatzen da Dirulaguntzei buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 10. artikuluan eta ondorengoetan. Artikulu horrek oinarritzko izaera du, eta, beraz, dirulaguntzak eman nahi dituzten udal guztiek dagokien dirulaguntzen plan estrategikoa onartu behar dute.

Plan estrategikoak edozein dirulaguntza ezarri aurrekoak dira, eta plan horretan aurreikusitako dirulaguntzak benetan ezartzeko, urte bakoitzeko udal aurrekontuetan dagozkion diru-izendapenak sartu beharko dira eta aurrekontu-egonkortasuneko helburuak bete beharko dira.

Hori horrela, Kontuhartzaitzak Tolosako Udalaren 2020-2022 urteetarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa prestatu du, udal departamentuekin batera.

Dirulaguntzen Plan Estrategikoa izaera programatikoa duen kudeaketa tresna bat da, indar arautzailerik ez duena. Horregatik, Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzeak ez dakar berekin onuradun izan daitezkeen erakunde edota pertsonen aldeko eskubiderik batere sortzea. Dirulaguntzen Plan Estrategikoa gida bat da, zeinak, aurretik ezarrita dagoen arau-esparruaren barruan, interes orokorreko jarduerak sustatzeko jarraibidea ematen duen.



TOLOSAKO  
UDALA

Plan honetan aurreikusitako dirulaguntzak eraginkorrak izateko, dagozkion kontsignazioak sartu beharko dira urte bakoitzeko udal aurrekontuetan eta dirulaguntzak arautzeko oinarriak onartu.

Indar arautzailerik ez duenez, nahikoa izango da indarrean sartzeko erabakia eta Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzeko eskumena duen organoa Osoko Bilkura da, Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak 6. artikuluan jasotzen duenaren arabera.

Proposamena bozkatu da eta hau izan da emaitza:

**Aldeko botoak:** Xabier Balerdi Tolosa, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Kristina Pelaez Errazkin eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Hori dela eta, batzordeak honako hau diktaminatu du:

**Lehena:** Tolosako Udalaren 2020-2022 urteetarako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea. Planak honela dio:

### **TOLOSAKO UDALA. DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA 2020-2022.**

#### **HITZAURREA**

*Ikuspegi ekonomikotik, dirulaguntzak gastu publikoaren modalitate garrantzitsu dira, eta, beraz, aurrekontu-politikaren gidalerroetara egokitu behar dira. Ildo horretan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra beste urrats bat da sistema ekonomikoa hobetzeko eta arrazionalizatzeko prozesuan. Legea zuzentzen duen printzipioetako bat gardentasunarena da, eta gardentasun horri eta legean egituratzen diren tresna ugariari esker,*



gora egin dute eraginkortasun- eta efizientzia-mailek dirulaguntzen gastu publikoaren kudeaketan.

Efizientzia hobetzeko, aipatutako legeak ezartzen du dirulaguntzen plan estrategiko bat egin behar dela, kudeaketa-elementu eta hobekuntza-tresna gisa, erlazionatu ahal izateko lortu beharreko helburuak eta lortu nahi diren ondorioak aurreikusitako kostuekin eta finantzaketarekin. Gainera, legeak jarraipen-sistema bat planteatzen du, helburuen kontrolaren eta ebaluazioaren bidez.

Jarraipen-sistema horrek planaren edukia aldatzeko aukera eman behar du; nolana ere, plana egokitu beharko da legera, berariazko ordenantzara, unean uneko gizarte-errealitatera eta, batez ere, dagokion ekitaldiko aurrekontuetara.

Dirulaguntzen plan estrategikoa egiteko justifikazioa 38/2003 Legearen 8. artikuluan oinarritzen da. Lege hori garatzen da Dirulaguntzei buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 10. artikuluan eta ondorengoetan. Artikulu horrek oinarritzeko izaera du, eta, beraz, dirulaguntzak eman nahi dituzten udal guztiek dagokien dirulaguntzen plan estrategikoa onartu behar dute.

Plan estrategikoak edozein dirulaguntza ezarri aurrekoak dira, eta plan horretan aurreikusitako dirulaguntzak benetan ezartzeko, urte bakoitzeko udal aurrekontuetan dagozkion diru-izendapenak sartu beharko dira eta aurrekontu-egonkortasuneko helburuak bete beharko dira.

## **1. IZAERA JURIDIKOA**

Dirulaguntzen Plan Estrategikoa izaera programatikoa duen kudeaketa tresna bat da, indar arautzailerik ez duena. Horregatik, Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzeak ez dakar berekin onuradun izan daitezkeen erakunde edota pertsonen aldeko eskubiderik batere sortzea. Dirulaguntzen Plan Estrategikoa gida bat da, zeinak, aurretik ezarrita dagoen arau-esparruaren barruan, interes orokorreko jarduerak sustatzeko jarraibidea ematen duen.

Plan honetan aurreikusitako dirulaguntzak eraginkorrak izateko, dagozkion kontsignazioak sartu beharko dira urte bakoitzeko udal aurrekontuetan eta dirulaguntzak arautzeko oinarriak onartu.

## **2. INDARRALDIA**

Dirulaguntzen Plan Estrategiko hau 2020-2022 aldian egongo da indarrean.

2022ko ekitaldia bukatutakoan, dirulaguntzen beste plan estrategiko bat onartuta ez badago, ulertuko da plan hau luzatu egiten dela gauzatzen jarraituko duten jarduketara-lerroetan, betiere, horretarako aurrekontuko kontsignazio egokia eta nahikoa badago.

Oro har, Udalak emandako dirulaguntzek urtebeteko exekuzio-epea izango dute eta, justifikazioaren ondorioetarako, urte naturala da aukeratzen den epea. Zirkunstantziak hala eskatuta, urtebete baino gehiagoko exekuzio-epea jartzea edo aldi hautagarria aldatzea komeni bada, dagokien dirulaguntzen oinarrietan jaso beharko da.





TOLOSAKO  
UDALA

### **3. ESKUMENA**

*Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzeko eskumena Osoko Bilkurak du, Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak 6. artikuluan jasotzen duenaren arabera.*

### **4. EREMU SUBJEKTIBOA**

*Plan honek, ondorengo udal sail hauen bidez, Udalak zuzenean emandako dirulaguntza guztiak ditu:*

- 1.-Gizarte politika.
- 2.-Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumena.
- 3.-Kultura, Festak eta Gaztedia.
- 4.-Hizkuntza politika eta Hezkuntza.
- 5.-Kirolak.
- 6.-Garapen ekonomikoa, Merkataritza, Feriak eta Turismoa.
- 7.-Berdintasuna.
- 8.-Gobernu Organoak.

### **5. PLANAREN HELBURU OROKORRAK**

*Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoren lanketa politika publikoen benetako planifikazio estrategiko bat egiteko ariketa gisa hartzen da.*

*Planaren lanketak honako helburu orokor hauek lortzea du helburu:*

- 1.-Betetzea azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikuluan jasotako legezko agindua. Horren arabera, udalek dirulaguntzak eman baino lehen plan estrategiko bat onartu behar dute.
- 2.-Udalari tresna bat ematea beraren eskumenekoak diren gaietan interes publiko eta sozialeko jarduerak babestu eta sustatu ahal izan ditzan.
- 3.-Udaleko sailen dirulaguntza multzorako gauzatze-printzipio eta oinarri erkideak ezarri eta normalizatzea.
- 4.-Ekonomiaren ikuspegitik, dirulaguntzen jasangarritasuna eta eraginkortasuna hobetzeko aukera emango duten tresnak definitzea.
- 5.-Gardentasuna eta informaziorako sarbidea hobetzea.

### **6. ARTIKULUA. PRINTZIPIO OROKORRAK**

*Plan honen printzipio orokorrak honako hauek dira:*



1.- Publikotasunaren eta gardentasunaren printzipioa: printzipio hau gauzatzen da objektibotasuna, gardentasuna, publikotasuna, lehia eta funts publikoen banaketan berdintasuna bermatzen dituen aurreiazko deialdia eginda. Dena den, laguntza zuzenean eman daiteke, hala xedatuta baitago azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrean, Tolosako Udalaren aurrekontua Exekutatzeko Oinarrietan eta aplikagarria den gainerako araudian.

Printzipio hau gauzatzen da, orobat, dirulaguntzen alorreko publikotasuna errespetatuta azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrean eta, halaber, Estatuko Kontu-hartzailetza Nagusiaren 2015eko abenduaren 9ko Ebazpenean xedatuta dagoen bezala, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean derrigor argitaratzeari dagokionez.

2.- Lehia askearen, berdintasunaren eta bereizketarik ezaren printzipioa: printzipio hau gauzatzen da onuradunek, interes orokorra erabat asetzeko, bete behar dituzten baldintzak zehaztuta.

3.- Objektibotasunaren printzipioa: dirulaguntzak emango dira irizpide objektibo batzuen arabera. Irizpide horiek deialdia egin baino lehenago ezarriko dira, onuradun izan daitezkeenek ezagutzen dituztela bermatuta egon dadin.

4.- Eraginkortasunaren eta eragingarritasunaren printzipioak: eraginkortasuna ezarritako helburuak betetzen eta eragingarritasuna baliabide publikoen esleipenean, esleipen hori kuantitatiboki eta kualitatiboki justifikatu behar delarik.

5.- Egonkortasunaren eta gastu-arauaren printzipioa: dirulaguntzak emango dira egonkortasunaren eta gastu-arauaren printzipioarekin bat etorrira, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak xedatzen duen bezala

6. Kontrolaren eta helburuetara egokitzearen azterketaren printzipioa: diruz lagundutako jarduerak gauzatzean entitate eskatzaileak berdintasunaren eta bereizketarik ezaren printzipioetara egokitzen ote diren aztertu eta kontrolatu behar da.

## **7. JARDUERA PLANAK DITUEN DIRULAGUNTZA LERROAK.**

Dagokion eranskinean zerrendatuta datoz jarduera planak dituen dirulaguntza lerroak. Dirulaguntza lerro bakoitzean hauek zehazten dira:

- 1.-Eskumen arloak eta dirulaguntzaren sektore hartzaileak.
- 2.-Helburuak eta lortu nahi diren ondorioak.
- 3.-Egikaritze epea.
- 4.-Aurrez ikus daitezkeen kostuak eta finantzaketa iturriak.



TOLOSAKO  
UDALA

5.-Ekintza plana.

6.-Jarraipena eta ebaluazioa.

## **8. DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN KONTROLA ETA JARRAIPENA.**

*Dirulaguntzen Plan Estrategiko honen kontrola eta jarraipena urtero egingo da bi alderditan.*

*- Kontrol ekonomiko-finantzarioa, emandako dirulaguntzena; kontrol horren arduraria Udaleko Kontuhartzailetzarena da, eta egingo da indarrean dagoen legerian xedatutako baldintzetan.*

*-Planaren kontrol eta jarraipena, helburu honekin:*

- Dirulaguntza lerroak aldatzea edo eguneratzea.*
- Zenbatekoak eguneratzea.*
- Jarduketa-ildo berriak sartzea.*

*Jarraipen hori urtero egingo du dirulaguntza ematen duen sail bakoitzeko teknikari arduradunak. Hurrengo ekitaldiko lehen lauhilekoan justifikazio-memoria egingo da eta bertan zehaztuko dira lortu nahi diren helburuen betetze-mailari buruzko adierazleak eta balorazio orokorra, bai eta programa mantentzea edo ezabatzea komeni den ala ez.*

## **9. GARDENTASUNA.**

*Emandako dirulaguntza guztiak urtero Udalaren web orrian argitaratuko dira, erakunde hartzailea, zenbatekoa eta diruz lagundutako proiektua azalduta.*



## ERANSKINA

### Saila: 1.- Gizarte Zerbitzuak eta Osasuna

#### Dirulaguntza lerroa: 1.1.- Uzturre Asistentzia Gunea

|                                   |   |
|-----------------------------------|---|
| Eskumen arloa                     | Gizarte Zerbitzuak  |
| Sektore hartzaileak               | Uzturre Asistentzia Gunea, eta zeharka, bertan eskaintzen diren zerbitzuen onuradun batzuk: Iturriza elkarte, Etxebizitza komunitarioa, alokairu apartamentua, eta jangela soziala.   |
| Helburuak                         | Zerbitzuen kudeaketak Uzturre Asistentzia Guneari eragiten dizkion gastu guztiei aurre egiten zaiela bermatzea.   |
| Lortu nahi diren ondorioak        | Egoera ekonomikoa ez izatea baldintza zerbitzu horien onura jasotzeko, gainerako baldintza guztiak betetzen badira, Pertsona autonomoen Bizitoki Zerbitzuen Udal Erregelamenduan, 2011ko otsailaren 3an argitaratutakoan zehazten den moduan.               |
| Egikaritze epea                   | Zehaztu gabe  |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi.<br><br>Finantziazioa funts propioekin egiten da.   |
| Ekintza Plana                     | Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen Diru-laguntzen Ordenantza Orokorrean eta Pertsona autonomoen Bizitoki Zerbitzuen Udal Erregelamenduan, 2011ko otsailaren 3an argitaratutakoan xedatutakoarekin bat etorritik ordaintzen da udalari dagokiona. |
| Jarraipena eta ebaluazioa         | Zerbitzuaren eta bertan dauden onuradunen jarraipena egiten da.   |

| PARTIDA            | ONURADUNA                 | AZALPENA   | KOPURUA | MOTA     | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|--------------------|---------------------------|--|---------|----------|-------------------------------|
| 0500.471.01.231.92 | UZTURRE ASISTENTZIA GUNEA | Erabiltzeileek ordaindu ezin duten kuota osatzeko laguntza | 97.000€ | Izenduna | 291.000€                      |



Dirulaguntza lerroa: 1.2.- Gizarte Inklusionara laguntza familiei

|                                   |   |
|-----------------------------------|---|
| Eskumen arloa                     | Gizarte Zerbitzuak  |
| Sektore hartzaileak               | Gizarte bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden herritarrak.   |
| Helburuak                         | Herritarrei laguntzea oinarri-oinarrizko beharrak asetzeari, "Oinarri espezifikoak Diru-Sarrerak Bermatzeko eta gizarte inklusiorako udal laguntzak emateko" 2017ko urriaren 5an GAOn argitaratutako irizpideen arabera diru-sarrerak bermatuta, beti ere bestelako laguntza sistematarako eskubiderik ez badute.                                   |
| Lortu nahi diren ondorioak        | Gizarte bazterkeria egoerak ekiditea edo arintzea, gizarte inklusiboagorako bidean.   |
| Egikaritze epea                   | Zehaztu gabe  |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi.<br><br>Finantziazioa funts propioekin egiten da.   |
| Ekintza Plana                     | Esku-hartze planean txertatzen da laguntza aktibatze aukera. Horretarako, eskaera egin behar du, eta banan-banan aztertzen da eta hartzen da dagokion erabakia, aurrekontua agortu arte "Oinarri espezifikoak Diru-Sarrerak Bermatzeko eta gizarte inklusiorako udal laguntzak emateko" 2017ko urriaren 5an GAOn argitaratutako irizpideen arabera. |
| Jarraipena eta ebaluazioa         | Kasuz-kasu jarraipena eta ebaluazioa egingo da, esku-hartze planaren helburuekin kontrastatuz. Gainera, kasu bakoitzean dagokion justifikazio-dokumentua aurkeztu beharko du onuradunak emandako laguntzak bere helburua bete duela ziurtatzeko.  |

| PARTIDA            | ONURADUNA   | AZALPENA                                | KOPURUA  | MOTA     | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|--------------------|-------------|---|----------|----------|-------------------------------|
| 0500.480.01.231.00 | HERRITARRAK | Gizarte inklusionara laguntzak familiei | 110.000€ | Akordioa | 330.000€                      |



Dirulaguntza lerroa: 1.3.- Gizarte Inklusiorako laguntza familiei

|                                   |   |
|-----------------------------------|---|
| Eskumen arloa                     | Gizarte Zerbitzuak  |
| Sektore hartzaileak               | Gizarte bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden herritarrak.   |
| Helburuak                         | Gizarte-bazterkeriaren egoerak prebenitzeko, saihesteko edo leuntzeko beharrezko diren gastu espezifikoak –ohikoak zein apartekoak– aurre egitea, behar beste baliabide ez duten pertsonen laguntzeko. 4/2011 DEKRETUA, urtarrilaren 18koa, Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzkoan ezarritako irizpideen arabera. |
| Lortu nahi diren ondorioak        | Gizarte bazterkeria egoerak ekiditea edo arintzea, gizarte inklusiboagorako bidean.   |
| Egikaritze epea                   | Zehaztu gabe  |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi.<br><br>Finantziarioaren gehiengoa Eusko Jaurlaritzaren funtsekin egiten da, nahiz eta funts propioekin osatu egin behar izaten den eskaria jasotzen den funtsa baina haundiagoa delako.  |
| Ekintza Plana                     | Eusko Jaurlaritzak argitaratzen du urtez urte laguntzari dagokion agindua. Eskatzaileak eskaera egin behar du, eta banan-banan aztertzen da eta hartzen da dagokion erabakia, aurrekontua agortu arte, 4/2011 DEKRETUA, urtarrilaren 18koa, Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzkoan ezarritako irizpideen arabera. |
| Jarraipena eta ebaluazioa         | Kasuz-kasu jarraipena eta ebaluazioa egingo da, esku-hartzeko planaren helburuekin kontrastatuz. Gainera, kasu bakoitzean dagokion justifikazio-dokumentua aurkeztu beharko du onuradunak emandako laguntzak bere helburua bete duela ziurtatzeko.  |

| PARTIDA            | ONURADUNA   | AZALPENA                   | KOPURUA  | MOTA     | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|--------------------|-------------|----------------------------|----------|----------|-------------------------------|
| 0500.480.01.231.40 | HERRITARRAK | Gizarte larrialdi laguntza | 165.000€ | Akordioa | 495.000€                      |



Dirulaguntza lerroa: 1.4.- ZUTANI – TOLOSA elkarte

|                                   |   |
|-----------------------------------|---|
| Eskumen arloa                     | Gizarte Zerbitzuak  |
| Sektore hartzaileak               | ZUTANI – TOLOSA elkarte.  |
| Helburuak                         | Bazterkeria egoera larrian, edo arriskuan dauden herritarrei dieta osasuntsu eta orekatua osatzeko oinarrizko ezagutzak eta elikagaiak bermatzea.   |
| Lortu nahi diren ondorioak        | Baldintza zaurgarrietan bizi diren pertsonen eta familien babesasustatu, garapen osasuntsua indartuz eta arazo fisikoak edo gaixotasunak ekidinez.  |
| Egikaritze epea                   | Zehaztu gabe  |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi. Finantziak funts propioekin egiten da.   |
| Ekintza Plana                     | Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra xedatutakoarekin bat etorriz, dirulaguntza izendunei dagokien tramiteak jarraituko dira. Eskaera, hitzarmena eta bere onarpena, dirulaguntzaren justifikazioa eta ordainketa. |
| Jarraipena eta ebaluazioa         | Urte amaieran, laguntza justifikatzeko eta likidatzeko epea irekitzen da, eta bertan aztertzen da emandako laguntzak beren helburua bete duten ala ez.  |

| PARTIDA            | ONURADUNA             | AZALPENA          | KOPURUA | MOTA     | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|--------------------|-----------------------|-------------------|---------|----------|-------------------------------|
| 0500.481.01.231.00 | ZUTANI-TOLOSA elkarte | Elikagaien bankua | 8.000€  | Izenduna | 24.000€                       |



Dirulaguntza lerroa: 1.5.- "ABEGI Hogar del Transeúnte"

|                                   |   |
|-----------------------------------|---|
| Eskumen arloa                     | Gizarte Zerbitzuak  |
| Sektore hartzaileak               | 2015/185 Dekretuaren arabera Udalaren eskumeneoak dira Bazterkeria egoeran dauden pertsonentzat Eguneko arretarako zerbitzuak eta Gaueko harrera-zerbitzuak. Aspaldidanik gaueko harrera zerbitzua eskaintzen ari den boluntarioen elkarteari dirulaguntza ematen zaio dekretu hori indarrean sartu zenetik, zerbitzua ematen jarrai dezaten, eta horrela mantenduko da zerbitzu publiko bihurtu eta proiektu berriaren arabera lanean hasteko beharrezko baldintzak bete artean. |
| Helburuak                         | Abegi Hogar del Transeunte boluntarioen elkarteak eskaintzen duen harrera zerbitzua funtzionamenduan mantentzea zerbitzu publikoa eskaintzeko plangintza burutu bitartean.  |
| Lortu nahi diren ondorioak        | Bazterkeria egoera larrian eta etxerik gabe dauden pertsonen sarrera zuzeneko baliabidea eskaini, behar oinarrikoenak asetzeko (elikagaia, garbitasuna eta alojamentua).  |
| Egikaritze epea                   | Zehaztu gabe  |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi. Finantziaketa funts propioekin egiten da.  |
| Ekintza Plana                     | Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen Diru-laguntzen Ordenantza Orokorrak xedatutakoarekin bat etorriz, dirulaguntza izendunei dagokien tramiteak jarraituko dira. Eskatera, hitzarmena eta bere onarpena, dirulaguntzaren justifikazioa eta ordainketa.  |
| Jarraipena eta ebaluazioa         | Urte amaieran, laguntza justifikatzeko eta likidatzeko epea irekitzen da, eta bertan aztertzen da emandako laguntzak beren helburua bete duten ala ez.  |

| PARTIDA            | ONURADUNA                           | AZALPENEA  | KOPURUA  | MOTA     | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|--------------------|-------------------------------------|--|----------|----------|-------------------------------|
| 0500.481.01.231.00 | ABEGI HOGAR DEL TRANSEUNTE ELKARTEA | Bazterkeria egoera larrian dauden pertsonen harrera zerbitzua. | 100.000€ | Izenduna | 300.000€                      |





Dirulaguntza lerroa: 1.6.- Gizarte zerbitzuen eta osasunaren alorreko lankidetzarako eta garapenerako dirulaguntzak

|                                   |   |
|-----------------------------------|---|
| Eskumen arloa                     | Gizarte Zerbitzuak  |
| Sektore hartzaileak               | Gizarte zerbitzuen eta osasunaren alorreko lankidetzan eta garapenean diharduten gizarte izaerako xedea duten irabazi asmorik gabeko elkarte eta pertsona kooperanteak.   |
| Helburuak                         | Gizarte eta osasun alorreko lankidetzak, nola herrian sortutako beharrei erantzutera bideratuta, hala nazioarteko lankidetzara bideratutakoa ere. "Gizarte zerbitzuen eta osasunaren alorreko lankidetzarako eta garapenerako dirulaguntzen ordenantza espezifikoa" 2019ko urriaren 11ko GAOn argitaratua.  |
| Lortu nahi diren ondorioak        | Gizarte ekintzaren eta osasunaren esparruan jarduerak, proiektuak edo programak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko pertsona edo erakundeei laguntzea diruz, beren egitasmoak bete ditzaten.   |
| Egikaritze epea                   | Zehaztu gabe  |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi. Finantziazioa funts propioekin egiten da.  |
| Ekintza Plana                     | Lehia bidezko dirulaguntza espedienteak, "Gizarte zerbitzuen eta osasunaren alorreko lankidetzarako eta garapenerako dirulaguntzen ordenantza espezifikoa" 2019ko urriaren 11ko GAOn argitaratua araututakoa jarraiki. Deialdia egiten da urteko diru laguntzak emateko iragarpenarekin. Ondoren, araudian jasotako izapideen bidez hartzen da erabakia eta hori jakinarazten zaio interesdunari. |
| Jarraipena eta ebaluazioa         | Urte amaieran, laguntza justifikatzeko eta likidatzeko epea irekitzen da, eta bertan aztertzen da emandako laguntzak beren helburua bete duten ala ez.  |

| PARTIDA            | ONURADUNA   | AZALPENA                                      | KOPURUA | MOTA             | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|--------------------|---|---|---------|------------------|-------------------------------|
| 0500.481.01.231.00 | HERRIAN SORTUTAKO BEHARREI ERANTZUTEN DIETEN IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAKUNDEAK    | Lankidetzarako eta Garapenerako Dirulaguntzak | 55.000€ | Norgehiagoka     | 165.000€                      |
| 0500.491.01.231.00 | NAZIOARTEKO LANKIDETZAN DIARDUTEN IRABAZI ASMORIK GABEKO PERTSONAK ETA ERAKUNDEAK | Lankidetzarako eta Garapenerako Dirulaguntzak | 50.000€ | Norgehiagok<br>a | 150.000€                      |



Dirulaguntza lerroa: 1.7.- "Euskal Fondoa"

|                                   |   |
|-----------------------------------|---|
| Eskumen arloa                     | Gizarte Zerbitzuak – Nazioarteko lankidetzaren eta garapena   |
| Sektore hartzaileak               | Nazioarteko lankidetzaren eta herrialdeen garapena indartzeko tokiko administrazioak bere ardura eta konpromisoak betetzeko sortutako erakundearen bazkidea da Tolosako Udala.  |
| Helburuak                         | Erakunde horretako bazkidetzaren ondorioz sortutako bazkidetzaren kuota eta lankidetzaren proiektuan kolaboratzeko konpromisoa betetzea.  |
| Lortu nahi diren ondorioak        | Erakundearen ekimena sustatu eta berekin kolaboratzea.  |
| Egikaritze epea                   | Zehaztu gabe  |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi. Finantziak funts propioekin egiten da.   |
| Ekintza Plana                     | Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak xedatutakoarekin bat etorriz, dirulaguntza izendunei dagokien tramiteak jarraituko dira. Eskara, hitzarmena eta bere onarpena, dirulaguntzaren justifikazioa eta ordainketa. |
| Jarraipena eta ebaluazioa         | Urte amaieran, laguntza justifikatzeko eta likidatzeko epea irekitzen da, eta bertan aztertzen da emandako laguntzak beren helburua bete duten ala ez.  |

| PARTIDA            | ONURADUNA     | AZALPENA                | KOPURUA | MOTA     | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|--------------------|---------------|-------------------------|---------|----------|-------------------------------|
| 0500.481.01.231.00 | EUSKAL FONDOA | Bazkide kuota           | 3.600€  | Izenduna | 10.800€                       |
| 0500.491.01.231.00 | EUSKAL FONDOA | Lankidetzaren proiektua | 5.000€  | Izenduna | 15.000€                       |



Dirulaguntza lerroa: 1.8.-Tolosaldea Sahararekin elkartea

|                                   |  |
|-----------------------------------|--|
| Eskumen arloa                     | Gizarte Zerbitzuak – Nazioarteko lankidetzeta eta garapena   |
| Sektore hartzaileak               | Tolosaldea Sahararekin elkartea.   |
| Helburuak                         | Oporrak bakean Tolosan programarako etortzen diren haurren bidaien kostua finantzatzea.  |
| Lortu nahi diren ondorioak        | Oporrak bakean proiektua laguntzea, Saharako errefuxiatuen kanpamentuetan bizi diren haurrei garapenerako onura eskainiz.  |
| Egikaritze epea                   | Zehaztu gabe   |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi. Finantziazioa funts propioekin egiten da.   |
| Ekintza Plana                     | Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak xedatutakoarekin bat etorriz, dirulaguntza izendunei dagokien tramiteak jarraituko dira. Eskaera, hitzarmena eta bere onarpena, dirulaguntzaren justifikazioa eta ordainketa. |
| Jarraipena eta ebaluazioa         | Urte amaieran, laguntza justifikatzeko eta likidatzeko epea irekitzen da, eta bertan aztertzen da emandako laguntzak beren helburua bete duten ala ez.   |

| PARTIDA            | ONURADUNA              | AZALPENA                       | KOPURUA | MOTA     | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
| Helburuak                         | Enpresen garapen esperimentalei, prototipoen egintzari eta soluzio edo zerbitzu berritzaileei bultzada ematen dieten proiektuak, eta halaber, prototipo soluzio eta/edo zerbitzu horien balioztapena egitea.  |
| Lortu nahi diren ondorioak        | Tolosako 5 enpresa txikien lehiakortasuna hobetzea  |
| Egikaritze epea                   | Zehaztu gabe  |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi.<br><br>Finantziazioa funts propioekin egiten da.   |
| Ekintza Plana                     | Udal aurrekontua onartu ondoren, deialdi publiko bat egingo da norgehiagoka bidezko diru-laguntza gisa. Laguntzaren zati bat aurreratzea aurreikusten da eta dirulaguntza udalaren dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusitako moduan justifikatzea aurreikusten da. |
| Jarraipena eta ebaluazioa         | - Aurkeztutako enpresen kopurua.<br><br>- Aurkeztutako proiektuen balorazio-teknikoa )deialdian azaltzen diren irizpide eta balioespenaren arabera.   |

| PARTIDA            | ONURADUNA | AZALPENA               | KOPURUA | MOTA        | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|--------------------|-----------|------------------------|---------|-------------|-------------------------------|
| 1100.481.01.430.00 | ENPRESAK  | Lehiakortasuna sustatu | 15.000€ | Norgehiakoa | 45.000€                       |



Dirulaguntza lerroa: 6.2.- Lanbide Heziketa Azoka

|                                   |   |
|-----------------------------------|---|
| Eskumen arloa                     | Garapen Ekonomikoa  |
| Sektore hartzaileak               | Tolosaldean Lanbide Heziketa eskaintzen duten 5 zentroak.   |
| Helburuak                         | - Lanbide heziketako ikasketak hobeto ezagutza.<br><br>- Emakumeen presentzia ziurtatzea (batik bat ziklo industrialetan) eta enpresak naiz erakundeak gonbidatzea beren iritziak jasotzeko.                            |
| Lortu nahi diren ondorioak        | Gazteen formakuntza eta enplegarritasuna hobetzea   |
| Egikaritze epea                   | Zehaztu gabe  |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi.<br><br>Finantziarioa funts propioekin egiten da.   |
| Ekintza Plana                     | Udal aurrekontua onartu ondoren, Udalak eta ikastetxeek artean sinatuko dute hitzarmena, Azoka egunetan Udalak hainbat zerbitzu eta jarraipena eskainiko ditu eta kontu zuriketa egin ondoren, ekarpena egin du Udalak. |
| Jarraipena eta ebaluazioa         | - Ikastetxe gonbidatuen kopurua.<br><br>- Bisita gidatuen kopurua.<br><br>- Azoka egunean parte-hartzea.  |

| PARTIDA            | ONURADUNA  | AZALPENA                  | KOPURUA | MOTA     | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|--------------------|--|---------------------------|---------|----------|-------------------------------|
| 1100.481.01.430.00 | TOLOSALDEA<br>LANBIDE<br>HEZIKETAKO<br>IKASTETXEAK | Lanbide Heziketa<br>Azoka | 5.000€  | Izenduna | 15.000€                       |



Dirulaguntza lerroa: 6.3.- Babarrunaren sustapena

|                                   |  |
|-----------------------------------|--|
| Eskumen arloa                     | Merkataritza, Azoka eta Turismoa   |
| Sektore hartzaileak               | Tolosako Babarrun Kofradia.  |
| Helburuak                         | Tolosako babarruna sustatzea, Tolosako babarrun elkartearekin lankidetzan.   |
| Lortu nahi diren ondorioak        | Babarrun Elkartearekin lankidetzan   |
| Egikaritze epea                   | Zehaztu gabe   |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi.<br><br>Finantziazioa funts propioekin egiten da.  |
| Ekintza Plana                     | Udal aurrekontua eta dirulaguntza nominatiboak onartzen direnean, hitzarmena egingo da baldintzak finkatzeko, bai egiteari dagokionez, baita laguntza ordaintzeko erakunde onuradunek bete behar dutenari buruz ere.<br><br>Bi aldeek onartu eta sinatu ostean, hitzarmen xedatutako moduan ordainduko da. Programa gauzatu ondoren, erakundeak dirulaguntza justifikatu beharko du, hitzarmenean adierazten den moduan. |
| Jarraipena eta ebaluazioa         | - Egindako ekintza kopurua.<br><br>- Egindako ekintza bakoitzeko bertaratutakoen kopurua.  |

| PARTIDA            | ONURADUNA         | AZALPENA        | KOPURUA | MOTA     | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|--------------------|-------------------|-----------------|---------|----------|-------------------------------|
| 1100.481.01.431.10 | BABARRUN KOFRADIA | Ohiko jarduerak | 5.000€  | Izenduna | 15.000€                       |



TOLOSAKO  
UDALA

Dirulaguntza lerroa: 6.4.- Merkataritza biziberritzea

|                                   |   |
|-----------------------------------|---|
| Eskumen arloa                     | Merkataritza, Azoka eta Turismoa  |
| Sektore hartzaileak               | Tolosako Saltokiak.   |
| Helburuak                         | Saltokien eskualdaketa bermatzea.   |
| Lortu nahi diren ondorioak        | Saltokien jarraipena  |
| Egikaritze epea                   | Zehaztu gabe  |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi.<br><br>Finantziazioa funts propioekin egiten da.   |
| Ekintza Plana                     | Zinegotzi delegatuak deialdia onartuko du. Eskaerak forman aurkeztuz gero, alkatetzaren dekretuaren bidez laguntza emateari buruz ebatziko da. Dirulaguntzarako jarduera, lokalen alogera hiru hilabetetan behin aurkeztuko da eta justifikazio kontuaren forma hartuko du. |
| Jarraipena eta ebaluazioa         | - Egindako ekintza kopurua.<br><br>- Egindako ekintza bakoitzeko bertaratutakoen kopurua.   |

| PARTIDA            | ONURADUNA          | AZALPENA                   | KOPURUA | MOTA         | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|--------------------|--------------------|----------------------------|---------|--------------|-------------------------------|
| 1100.481.01.431.00 | TOLOSAKO SALTOKIAK | Merkataritza biziberritzea | 23.400€ | Norgehiagoka | 70.200€                       |





Dirulaguntza lerroa: 6.5.- Merkataritzaren lehiakortasuna

|                                   |  |
|-----------------------------------|--|
| Eskumen arloa                     | Merkataritza, Azoka eta Turismoa   |
| Sektore hartzaileak               | Gipuzkoako Merkataritza Federazioa.  |
| Helburuak                         | Tokiko merkataritzaren sustapena.  |
| Lortu nahi diren ondorioak        | Tokiko merkataritzaren lehiakortasuna.   |
| Egikaritze epea                   | Zehaztu gabe   |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi.<br><br>Finantziarioa funts propioekin egiten da.  |
| Ekintza Plana                     | Udal aurrekontua eta dirulaguntza nominatiboak onartzen direnean, hitzarmena egingo da baldintzak finkatzeko, bai egiteari dagokionez, baita laguntza ordaintzeko erakunde onuradunek bete behar dutenari buruz ere.<br><br>Bi aldeek onartu eta sinatu ostean, hitzarmen xedatutako moduan ordainduko da. Programa gauzatu ondoren, erakundeak dirulaguntza justifikatu beharko du, hitzarmenean adierazten den moduan. |
| Jarraipena eta ebaluazioa         | Formazio ekintzetan parte hartu duten saltoki kopurua.   |

| PARTIDA            | ONURADUNA               | AZALPENA                | KOPURUA | MOTA     | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|--------------------|-------------------------|-------------------------|---------|----------|-------------------------------|
| 1100.481.01.431.00 | MERKATARITZA FEDERAZIOA | Merkataritza bultzatzea | 6.000€  | Izenduna | 18.000€                       |



Dirulaguntza lerroa: 6.6.- Tokiko merkataritza sustatzea

|                                   |  |
|-----------------------------------|--|
| Eskumen arloa                     | Merkataritza, Azoka eta Turismoa   |
| Sektore hartzaileak               | Gipuzkoako Merkataritza Federazioa.  |
| Helburuak                         | Tokiko merkataritza sustatzea.   |
| Lortu nahi diren ondorioak        | Tolosako merkataritza bizirik mantentzea eta herritarrei zerbitzuak ematea   |
| Egikaritze epea                   | Zehaztu gabe   |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi.<br>Finantziarioa funts propioekin egiten da.  |
| Ekintza Plana                     | Udal aurrekontua eta dirulaguntza nominatiboak onartzen direnean, hitzarmena egingo da baldintzak finkatzeko, bai egiteari dagokionez, baita laguntza ordaintzeko erakunde onuradunek bete behar dutenari buruz ere.<br><br>Bi aldeek onartu eta sinatu ostean, hitzarmen xedatutako moduan ordainduko da. Programa gauzatu ondoren, erakundeak dirulaguntza justifikatu beharko du, hitzarmenean adierazten den moduan. |
| Jarraipena eta ebaluazioa         | - Egindako ekintza kopurua.<br>- Egindako ekintza bakoitzeko saltoki onuradunen kopurua.<br>- Antolatutako formazio ikastaroetan bertaratutako merkatarikopurua.<br>- Antolatutako ekitaldietan bertaratutakoen kopurua.   |

| PARTIDA            | ONURADUNA | AZALPENA                | KOPURUA | MOTA     | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|--------------------|-----------|-------------------------|---------|----------|-------------------------------|
| 1100.481.01.431.00 | TOLOSA&CO | Merkataritza bultzatzea | 30.000€ | Izenduna | 90.000€                       |



## Saila: 7.- Berdintasuna

### Dirulaguntza lerroa: 7.1.- Berdintasunerako sentsibilizazioa

|                                   |  |
|-----------------------------------|--|
| Eskumen arloa                     | Berdintasuna   |
| Sektore hartzaileak               | Elkarteak  |
| Helburuak                         | - Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatutako duten programak, ekintzak eta jarduerak sustatzea, Tolosako politikagintzaren, ekonomiaren, kulturgintzaren eta gizarte esparru guztietan.<br><br>- Informazio, sentsibilizazio eta kontzientzia soziala areagotzeko balioetan eta jarreretan hezteko ekintzak bultzatzea, alegia, gizarte ereduaren eraldaketa bultzatzea. |
| Lortu nahi diren ondorioak        | Tolosan elkarte-sarea eta sare feminista indartzea, hainbat gizarte-sektoretako emakumeen eskubide indibidual eta kolektiboen defentsan, haien bizi-baldintza materialak eta generoaren araberrako posizio soziala hobetzeko.  |
| Egikaritze epea                   | Zehaztu gabe   |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi.<br>Finantziaketa funts propioekin egiten da.  |
| Ekintza Plana                     | Udal aurrekontua onartu ondoren, deialdi publiko bat egingo da norgehiagoka bidezko diru-laguntzen kasuan, eta bi alderdiek hitzarmen bat sinatuko dute diru-laguntza izendunetan. Laguntzaren zati bat aurreratzea aurreikusten da eta dirulaguntza udalaren dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusitako moduan justifikatzea aurreikusten da.                               |
| Jarraipena eta ebaluazioa         | - Diru-laguntzaren eskatzaile-kopurua.<br>- Laguntzen guztizko zenbatekoa.   |

| PARTIDA            | ONURADUNA | AZALPENA     | KOPURUA | MOTA        | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|--------------------|-----------|--------------|---------|-------------|-------------------------------|
| 1400.481.01.231.60 | ELKARTEAK | Berdintasuna | 8.000€  | Norgehiakoa | 24.000€                       |



Dirulaguntza lerroa: 7.2.- Emakumeen Etxea

|                                   |   |
|-----------------------------------|---|
| Eskumen arloa                     | Berdintasuna  |
| Sektore hartzaileak               | Tolosaldeko Emakumeen Etxearen Elkarteak  |
| Helburuak                         | Tolosaldeko Emakumeen Etxearen kudeaketa eta garapena.<br>Urteko programazioa prestatzea eta bertan antolatuko diren jarduerak eta eskainiko diren zerbitzuak garatzea.   |
| Lortu nahi diren ondorioak        | Eskualdeko emakumeentzako bilgune, babesleku eta erreferente bat izatea.<br>Eskualdeko emakumeen autonomia eta ahalduntzea sustatzea, bai maila indibidualean, bai kolektiboan.<br>Emakumeen asoziazionismoa eta partaidetza sozio-politikoak sustatzea eguneroko bizitzaren arlo guztietan.<br>Begirada feminista txertatzea eskualdeko erakundeek sustatutako politika, programa eta proiektuen diseinuan, garapenean eta ebaluazioan.<br>Emakumeen bizitzako baldintzak ez ezik, gizartean duten kokapena ere hobetzen laguntzea.<br>Emakumeen aurkako indarkeria matxista eta eraso sexualak deuseztatzen laguntzea.<br>Berdintasunaren inguruko ikuspegi berrien sorkuntza, ikerketa eta antolaketa sustatzea. |
| Egikaritze epea                   | Zehaztu gabe  |
| Kostuak eta finantzaketa iturriak | Aurrekontuen aurreikuspenaren arabera. Taulan ikusi.<br>Finantziaketa funts propioekin egiten da.   |
| Ekintza Plana                     | Tolosaldeko Emakumeen Etxearen Elkartearen eta Tolosako Udalaren artean hitzarmena adostuko da, lokala lagatzeko. Sinatuko den hitzarmenean, dirulaguntza izenduna jasotzea hitzartuko da, Tolosaldeko Emakumeen Elkarteak urteko programazioa abiatzeko, antolatuko diren jarduerak eta eskainiko diren zerbitzuak garatzeko.  |
| Jarraipena eta ebaluazioa         | Egitasmoari etengabeko jarraipena egiteko, hainbat adierazle hartuko dira aintzat, hala nola, antolatutako jarduerak-kopurua eta tipologia; parte-hartzaile kopurua (sexua, udalerrria, jatorria, etnia, gizarte-maila, dibertsitate sexuala, adinaren arabera bereizita); parte-hartzaileen balorazioak, eta abar.   |

| PARTIDA            | ONURADUNA | AZALPENAK     | KOPURUA | MOTA     | INDARREKO PLANEAN AURREIKUSIA |
|--------------------|-----------|---------------|---------|----------|-------------------------------|
| 1400.481.01.231.61 | ELKARTEAK | Emakume etxea | 0 €     | Izenduna | 30.000€                       |



TOLOSAKO  
UDALA

**Bigarrena:** Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Beloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** 2020-2022 urteetarako Tolosako Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa.

## **6. HASIERAKO ONARPENA EMATEA TOLOSAKO HIRIGINTZA KATALOGOA ALDATZEKO PROZEDURARI.**

Alkateak irizpenaren azalpenak eman ditu.

### **2020ko otsailaren 19ko Lurralde Batzordean aho batez onartutako irizpena**

#### **Aurrekariak**

2019ko uztailaren 30ean, Juan Diego del Rey Canal jaunak, ADIF erakundearen ordezkartzan, hirigintza katalogoan jasotako **trenbide langilearen etxea** (52. zb) eta **telegrafo dorreari (30. zb.) erantsita dauden biltegiak** deskatalogatzeko eskaera egin zuen.

2019ko azaroaren 5ean, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren **aldeko txostena** jaso zen Udaletxean. Txostenean honako ondorio hauek jasotzen dira:

- **“Trenbide langilearen etxea” (52 zb.) deskatalogatzeko eragozpenik ez dagoela.**
- **“Telegrafo dorrea”-ri (30 zb.), txostenean “elektrifikazio tailer” izendatzen denari, erantsita dauden eraikin edo biltegiak deskatalogatzeko eragozpenik**



TOLOSAKO  
UDALA

**ere ez dagoela, baina etxebizitzaren eraikina eta luzetara dagoen nabe erantsia mantendu egingo direla katalogoan, herri mailako interes nahikoa duelako.**

Era berean, aipatutako ondare txostenean, eraispena baino lehen **eraikinak dokumentatu** egin beharko dira (jasoketa planimetrikoa, argazki erreportajea eta dokumentazio historikoa). Gainera, bermatuko da **eraiспенarekin ez direla kaltetuko katalogatuta dauden eraikinak.**

2019ko azaroaren 26an Adif-ek dokumentazio gehigarria aurkeztu zuen, eraikinak dokumentatzeko helburuarekin. Baina aurkeztutako dokumentazioa ez da nahikoa eta egokia aipatutako eraikinak dokumentatzeko ondare ikuspegitik.

### **Zuzenbide oinarriak**

2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, Lurzoru eta Hirigintzari buruzkoak, 100. artikuluan xedatutakoaren arabera, Katalogoak onartzeko prozedura toki erakundeen ordenantzak aprobatzeko prozedura berbera izango da. Aipatu legeak ez du berariaz erregulatzen katalogoa aldatzeko prozedura, baina 100. artikulua era zabalean interpretatuz, ulertzen da udal ordenantzak aldatzeko prozedura berbera jarraitu behar dela.

Toki Erakundeen 7/1985 Oinarri Legearen 49. artikulua xedatzen du udal ordenantza izapidetzeko prozedura:

- 1) Udalbatzarrak hasierako onespena egin.
- 2) Jendaurreko informazioa hogeita hamar (30) egunez, GAO-n eta iragarki taulan argitaratuko dena.
- 3) Alegaziorik egon ezean, behin betikoz onartutzat emango da hasierako onespena.

Jendaurreko informazio garaian kultur ondarearen txostena eskatuko da.

Aurrekarien berri izanik, hauxe da

### **IRIZPENA**

**LEHENENGOA.-** Hasierako onespena ematea Tolosako hirigintza katalogoa aldatzeko prozedurari. Proposatzen diren aldaketak honako hauek dira:

- “Trenbide langilearen etxea” (52 zb.) katalogotik kentzea.
- “Telegrafos dorrea”ren (30 zb.) izena aldatzea eta “elektifikazio etxea” izendapena ematea. Katalogoan mantentzea proposatzen da, lehenengo babes mailarekin. Dena den, eraikin honen alboko egitura gehigarria katalogotik kentzea proposatzen da.



TOLOSAKO  
UDALA

**BIGARRENA.-** Adieraztea dokumentazio gehigarri hau aurkeztu beharko dela behin betiko onartzeko:

- a) Eraispena egin baino lehen, **eraikinak dokumentatu** egin beharko dira (jasoketa planimetrikoa, argazki erreportajea eta dokumentazio historikoa). Ondare kulturalaren gaietan aditua den teknikari batek izenpetu behar du lan hori.
- b) Elektrifikazio etxea deritzonaren alboko eraikinak ez direla kaltetuko ziurtatzen duen dokumentazio teknikoa aurkeztuko da, eskumena duen teknikari batek izenpetuta.

**HIRUGARRENA.-** Erabakiaren berri ematea Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzari, txostena egin dezan.

**LAUGARRENA.-** Erabakia GAO n eta iragarki taulan argitaratzea hogeita hamar egunez eta interesatuari jakinaraztea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** hasierako onespena ematea Tolosako hirigintza katalogoa aldatzeko prozedurari.

## **7. HASIERAKO ONARPENA EMATEA SOLDADU 8KO ERAIKINAREN ATZEALDEAN UDAL HONEK DUEN ZATIA SOBERAKO LURZATI DEKLARATZEKO ESPEDIENTEARI.**

Parte-hartzeak:

... Andu Martinez de Rituerto Arregi (EHBILDU): *“Batzordean azaldu bezala ados gaude gaiarekin baina harridura sortu zitzaigun behin obra guztia egin ondoren orain ateratzea gaia eta ez proiektua egin zenean. Pentsatzen dugu horrelakoak proiektua mahai gainean dagoenean eta obrari ekin aurretik egokiagoa izango litzatekeela. Momentu onetan espazio hartuta eta obra bukatuta dago.”*



TOLOSAKO  
UDALA

-----

Alkateak irizpena aurkeztu du.

## 2020ko otsailaren 19ko Lurralde Batzordeak aho batez onartutako irizpena

### Aurrekariak

2018ko ekainaren 21eko 2018/1312 Alkatetza Dekretuz, obra baimena eman zitzaion Soldadu Berri Promociones SL enpresari Soldadu kaleko 8 zk.an 14 etxebizitza eta 7 trasteleku eraikitzeko.

Obra proiektuan adierazten ez den arren, behe solairuko terrazek Udalaren jabetzakoa den terreno bat okupatzen dute, katastroan zenbakirik ez duena eta udal inbentario eta jabetza erregistroan jaso gabekoa.

Hori horrela izanik, 2020ko urtarrilaren 8ko 2020/29 Alkatetza Dekretuz, Soldadu Berri Promociones SL enpresari lehen erabilerako baimena ukatu zitzaion, besteak beste, **sustatzaileek terrazen jabetza ehuneko ehunean eskuratu arte.**

Komenigarria gertatzen da etxebizitzaren sustatzaileek eskuratzea aipatutako lursaila, batez ere, obran jada lursaila terrazak handitzeko erabili delako eta Udalaren titulartasuneko izateak ere funtsik ez duelako. Aipatutako lursail hori, metro gutxi izateaz gain, eraikin horren jarraian dagoen urbanizazioko eskaileretako paretaren atzean ezkutatuta geratzen da. Ondorioz, lursail horren mantentze-lana egitea oso zaila litzateke Udalarentzat.

Beraz, egoera ikusirik, egokiena “soberako lurzati” deklaratu, jabetza erregistroan inskribatu eta Soldadu Berri Slri besterentzea da, horiek ondoren beheko solairuko bi etxebizitzetara gehitu eta saltzeko. Hiru pausoak izapide bakar batean egitea interesgarria litzatekeen arren, lursailaren balorazio ekonomikoa —enkargatuta dagoena— oraindik ez da egin. Horregatik, akordiorako proposatzen da soberako lurzati deklaratzeko espedientea bideratzea eta besterentzea ondoren izapidetuko den espediente baterako utzita..





TOLOSAKO  
UDALA

Soldadu Berri Promociones SLk "soberako lurzati" deklaratzeko espedienteari hasiera eman zion 2019ko azaroaren 20an. Eskararekin batera, hainbat dokumentu aurkeztu zituen:

- 1) Idatzia, soberako lurzati deklaratzeko eskaera agertzen dena.
- 2) I. Eranskina: ordezkaritza agiriak
- 3) II. eranskina: Jabetza Erregistroko informazioa.
- 4) III. Eranskina: planoak

### **Soberako lurzatiaren deskribapena**

1. Kokapen geografikoa: Soldadu kaleko 8aren atzealdea (Planoa, katastrokoa 1 zb.). Katastroan alta emateko pendiente. Jabetza erregistrora eraman aurretik, katastroan alta eman behar zaio.
2. Azalera: 58,08 m<sup>2</sup> (sustatzailearen planoak 2 zb.. Behin betiko jasotze topografikoaren zain).
3. Mugak: iparraldean, Soldadu kaleko 8 etxebizitza-erakina; ekialdean, Soldadu kaleko 8 etxebizitza-erakina; mendebaldean, San Joan plazaren urbanizaziokoa den eskaileren pareta; hegoaldean, Soldadu kaleko 6 eraikina eta San Joan plazaren urbanizaziokoa den eskaileren pareta.
4. Titulartasuna: ez dago titulurik, oso aspaldidanik Udalarena.
5. Kargarik ez du.
6. Hirigintza-parametroak: hiri lurzorua, eraikigarritasunik gabekoa.
7. Ondasunaren erabilera: libre dago, inolako eraikuntzarik gabe.

### **Azterketa juridikoa**

#### **Lehena.- Aplikatu beharreko legeria**

- 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamendua onetsi zuena –TEOE–; 7. eta 8. artikulua.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen –TAOAL–; 22.2.l), 47.2.n) eta 81. artikulua.

#### **Bigarrena.- Soberako lurzatiak**

1372/1986 Errege Dekretuak, ekainaren 13koak, Toki Erakundeetako Ondasunen Erregelamenduarenak, 7. artikuluan ezarrikoaren arabera, **soberako lurzatiak dira toki-erakundearen jabetzako lur-eremuen zatiak, txikiak direlako, forma irregularra dutelako edo dauden lekuan daudelako, erabilera egokirako balio ez dutenak.** Soberako lursailek ondare-ondasunen kalifikazioa dute.



TOLOSAKO  
UDALA

Lur-eremu bat soberako lurzati aitortzeko, kalifikazio juridikoa aldatzeko espediente bat bideratuko da, aipatutako Toki Erakundeetako Ondasunen Erregelamenduaren 8. artikuluari jarraiki.

### **Hirugarrena.- Prozedura**

Hona hemen ondasunaren kalifikazio juridikoa aldatzeko eta soberako lursail aitortzeko prozesua:

- 1) Udalbatzarrak hasierako onespena egin.
- 2) Jendaurreko informazioa hilabetez, GAO n eta iragarki taulan argitaratuko dena.
- 3) Alegaziorik egon ezean, behin betiko onartutzat emango da hasierako onespena.

Bukatzeko, udal inbentarioan, katastroan alta eman eta Jabetza Erregistroan inskribatuko da.

Azkenik, soberako lurzatia Soldadu Berri SLri besterentzeko, dagokion espedientea bideratuko da.

**Laugarrena.-** Ondasun baten kalifikazio juridikoa aldatzeko eskumena Udalbatzarrari dagokio eta erabakia hartu behar du kideen gehiengo osoaren aldeko botoaz (7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki Araubidearen Oinarriak Arazten dituenak, 22.2.l) eta 47.2.n) artikuluetan ezarrikoarekin bat etorritik.

## **IRIZPENA**

**Lehena.-** Hasierako onespena ematea Soldadu 8ko eraikinaren atzealdean Udalarena den lurzatia soberako lurzati deklaratzeko espedienteari.

**Bigarrena.-** Espedientea jendaurrean jartzea, hilabetez, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta eta Udaletxeko iragarki taulan jarrita, interesdunek alegazioak aurkez ditzaten.

**Hirugarrena.-** Adieraztea dokumentazio hau aurkeztu beharko dela, behin betiko onespena emateko:

- Hasierako partzelen eta ondoriozko partzelen dokumentazio idatzi eta grafikoa, eta ondoriozko partzelaren jasotze topografikoa, soberako lurzatiaren aipamen zehatza egingo duena.



TOLOSAKO  
UDALA

**Laugarrena.**- Interesatuari erabakiaren berri ematea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Qinquilla eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** hasierako onarpena ematea Soldadu 8ko eraikinaren atzealdean Udal honek duen lurzattia soberako lurzati deklaratzeko espedienteari.

#### **8. ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2020KO URTARRILAREN 1ETIK 31RA (2020/1-2020/222).**

Alkatetzak 2020 urtarrilaren 1etik 31ra (2020/1-2020/222) bitartean egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Udalbatzako kideak jakinaren gainean geratu dira.

#### **9. MOZIOA: SAHARAR ERREPUBLIKA ARABIAR DEMOKRATIKOA (SEAD) ALDARRIKATU ZENENKO 44. URTEURRENA.**

Parte-hartzeak:

... Mozioa irakurri ondoren, alkateak hitza eman dio Tolosaldea Sahararekin elkarteko ordezkariari: “ *Bozkak nolako izango diren jakin aurretik eskerrak eman nahi dizuet mozioa hemen aurkezteagatik eta otsailaren 27an Saharar bandera zintzilikatzeagatik. Normalean, mozioak tratatzen dira gu kanpalekuetan gaudenean eta han zaudenean sentsibilitatea areagotu egiten da, deia jaso eta mozioa onartu dela jakiteak poza pizten du eta, bestetik ere, , entzuteak norbaitek kontra edo abstentzioa jo duela mina areagotu egiten du beraiekin zaudenean. Han jaimetan gaudenean nire familiarekin, nire ama Fatimetuekin eta bere seme-alabak aurrean daudela kontatzen duenean beraien historia. Etxetxo batean bizi ziren, hondartzaren ondoan, txalupa txiki bat zeukaten eta senarra tarteka itsasora joaten zen, arrainak hartu eta etxean behar zutenen adina hartu eta gainontzekoa ondoekin trukatzeko zuten. Halako batean, Espainiako gobernuak kolonizatua zeukan eremu hori deskolonizatu beharrean, bere beharrezko lana egin beharrean, egin zuena zen Madrilan akordioa sinatu Mauritaniarekin eta Marrokoekin, non beraien esku zuten Mendebaldeko Sahara. Orduan, bertakoak, sahararrak, herri baketsu bat, hartu behar izan zituen zeuzkaten armak, eta, bai, gizonezkoek eta bai, emakumeek bere*



*lurra defendatzen hasi ziren. Eta gero, bestetik, beste populazio zatia, amak zirenak, umeak, agureak e.a. basamortu barrua joan ziren salbazioaren bila. Pentsa ezazue horrelako egoeran, Fatimetu hilabete askotako haurdun zegoen eta halako batean erditu zuen bere alaba zaharrena, zuhaizpean. Pentsatu dezakezue zer egoeratan, egunez estalita ibiltzen ziren, patruilak ibiltzen zirelako gora-behera eta patrula batekin topatuz gero bazekien zer gertatuko zen eta, bestetik, abiazioa gelditu gabe ibiltzen zen bonbardaketak egiten, eta ez bakarrik armak arruntekin baizik arma kimikoekin, fosforo zuria e.a. Gauez abiatzen ziren basamortu barrura eta halako batean umea izan zuen. Kontatzen du zer gogorra izan zen momentua, ez zekien zer gertatuko zen, alaba bizituko ote zen, beraiekin zer gertatuko zen,.. eta, han daude oraindik, eta begiratzen digute eta galdetu baina munduak badakit zer gertatu den. Gure erantzuna da bai, bai munduak badaki zer gertatu den baina zuen alde oso gutxi daude. Tamalez, hau konpondu dezaketenak beste asmoak dituzte, gehienbat etekin ekonomikoak, arrazoi bakarra okupazioarena. Bueno eskaini nahi dizuet, eskerrak eman nahi dizkizuet, bai EAJri, betidanik, bai Jokin Bildarratzekin, bai zurekin Olatz, zuek ere, bat eremu errefuxiatuetan ibili izan da, zu ere harrera familia bezala izan zara, Patxik ere ezagutzen du errefuxiatu kanpamentuak, EHBILDU alderdiarekin ere, aurreko bi alkateak, bai Antton Izagirre errefuxiatuen kanpalekuetan, bai Ibai Iriarte eremu okupatuetan. Gero Bilduk dauzkan komite ezberdinak, bereziki bat dauka Sahararekin lotuta jende potentearekin. PSOeri, berriz, ikusiko dugu zer ateratzen den hemendik. Joxemari lehengoan esaten zenuen bide berria zegoela Gobernu honetan. Ez naiz hasiko harrotzen hauts zaharrak, ez naiz hasiko hitz egiten Felipe Gonzalez, Carmen Chacon, Ramon Jauregui edo Europar Batasunean eman dituzuen botoak. Hitz egingo dut oraingoz esaterako, Borrell Marokoarekin juntatuta zegoela hango gobernuarekin ez zitzaien gauza hoberik okurritu esatea kooperante guztiak atera behar zirela eremu errefuxiatuetatik benetako arriskua zegoelako atentatua izateko. Gezurra latza, askoz seguruago gaude han Madrilen baino, seguru. Edo azken adierazpenak egin dituenak bere postu Europar handi horretan. Ez dakit badakizun edo nahi duzuenean erakutsiko dizut eremu okupatuetan nola bizi diren. Ezin ahaztu ere Marlaska jauna eman diela kondekorazio altuena Marokoko polizi jefeari eta Marokoko jefe polizi hori sartuta dago hainbat eta hainbat tortura kasuetan, desagertzetan eta giza eskubideen urraketetan. Ezin ahaztu superministroa, Pablo Iglesias utzi duela lur alturan bere kide bat juntatzeagatik Osasun ministro batekin. Ezin ahaztu ere "la perla corona", Rodriguez Laya, pertsona erabat artoa, ez daukana inongo ebazpen eta txosten juridiko eta nazio batuek emandako txostenekin, bere asmo bakarra da Maroko kontentu izatea da. Ez nuke horrela bukatu nahi, eskerrak eman nahi dizkizuet mozio honengatik eta seguru asko aterako den emaitzarengatik. Eskerrik asko."*

... Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria (PSE-EE): "Nik behintzat dakidana hau ez dela Espainiako parlamentua, ni zinegotzi xume bat naiz eta Tolosan eta zuek aipatutako hainbat adibide, arduragabekeri, nire esku ez dago. Nik dakidana nire urte dezente nik eskolako kide izan naizela eta Saharako Euskadin, orain ez naiz izenotaz gogoratzen, ez dakit zenbatu urteetan ekarri ditut eskolara hitzaldiak ematera. Sahara joateko aukerak bai baina ez naiz joan,. Ez dut ezagutzen baina badakit zer gertatzen den Sahararekin. Logikoki, nik kontraesan politiko asko dauzkat, noski, eta nik Espainiako gobernuak kasu honetan azken urteetan emandako politika Saharari buruzkoarekin ados ez nago. Beste gauza askokin ados nago, baina kasu honetan Sozialista asko bezala ez gaude gustura. Konplexua da, nazioarteko politikan



sartzen gara, aipatu dituzu interesa ekonomikoa direla eta bai, bizitza horrelakoa da. Sahararekin ez daukat harremana handia baina Kamerunekin bai. Kamerunen adiskide asko ditut, baina gainera bat oraintxe bertan etorri berria da eta Kamerun joateko aukera izan dut. Eta batez ere gustatzen Afrikan gertatzen dena eta batez ere, Europak Afrikara trasladatu dituen arazoak, ez zait batere gustatzen, baina kontziente naiz errealitatea, historia ez da zerotik hasten, historia joan egin behar dugu. Orain gaudela koronabirus gora eta koronabirus behera, baina zenbat jende hiltzen ari da hiltzen Estrechoan? Zenbat jende? Kamerunetik nola etortzen dira hona, nik hori ezagutzen dut. Istorio hau ere bai baina gertuagotik ezagutzen dut Kameruneko egoera. Beste pertsona batzuk ere aipatu ditzakezu, begira Odon Elorza, adierazpen asko egin ditugu azkeneko hogeitun urteetan esanez ez dagoela ados Espainiako gobernuarekin. Gainera gauza batzuk aztertu egin beharko genituzke, nahiz eta dokumentu puntuko aipamen batekin erabat ados ez egon nik adierazpena honen filosofiarekin bat egiten dut. Nola ez dut egin behar? Nire bizitza guztian nik gai honekin. Ni ez naiz independentista, ez da ere nazionalista, etorkizun politikoa Espainia mailan eta Europa mailan ikusten dut, inongo konplexurik gabe. Eta logikoki nire apustua Alderdi Sozialistan dago, pentsatzen dut -entre lo malo pienso que es lo menos malo-, ez dago konplexurik. Eta Alderdi Sozialista beste arloetan ondo ematen dela politika bai, baina kasu honetan ez nago ados Sozialistak egiten ari denarekin, Espainiako gobernuak. Agian, Arantxa Gonzalezek zertxobait aldatuko du baina ez dakit. Bestetik eskertu nahi dut gainera azken berrogei urte hauetan hemen eta Tolosaldean Sahararen alde lan ikaragarri egin duzuen pertsonen eta boluntarioen. Nik Zumarrago eskolako ikasleekin antolatu ditut kamionaka eta hainbat urteetan berrogei urte pasa eta gero Sahara egoera ez ahaztuko zuek egindako lana ikaragarria izan da eta hori eskertu nahi dut. Besterik ez."Hau ez da Espainiako parlamentua" Hemen azaldutako hainbat puntuekin ados nago eta animo, jarraitu horrela".

- ... Andu Martinez de Rituerto Arregi (EHBILDU):"Guk ere eskertu nahi dugu Tolosaldea Sahararekin elkarteko kideek Sahara herriarekin etengabeko elkartasunean aritzea eta egiten duzuen lan eskerga. Sahara herriarekin gertatzen ari diren injustizia eta zapalketa ez zaigu arrotza egiten euskaldunoi eta hemen neukan prestatuta historia errebaso labur bat baino zuek Agus askoz ere era zuzenagoan, lekukotza emozionante batekin azaldu duzu, nik uste dut dezente interesgarriagoa izan dela zure ekarpena. Bai gogoratu nahiko nuke aipatu duzun garaia Arias Navarrok, Maroko eta Marokoari Sahara eskaini edo bandejan jarri dizkien aurretik 1975eko urriaren 16an, hori azaroan izan zen, Justizi Auzitegiak gaitzetsi egin zuen Mauritaniak eta Marokok Mendebaldeko Saharako lurraldeari buruz zituzten asmoak eta eman zuen epaiak halaxe jasota zegoen. Mendebaldeko Saharak ez du subiranotasunik loturarik Maroko edo Mauritaniarekin, administrazio eskubidea aplikatu behar da. Beraz, gero aipatu duzu Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan geratu ziren sahararrak inbaditzaileen aurrean bere identitateari eusteari, torturatuak, espetxeratuak eta desagerturatuak izan ziren eta hala izaten dira oraindik ere. Marokok urratu zituen eta urratzen ditu giza eskubideak. Aipatu duzu baita ere, Espainiako estatuak Mendebaldeko Sahararen auzian duen erantzukizuna, arrazoi historikoengatik eta arrazoi humanitarioengatik ere. Horregatik Espainiako gobernuak saharar herriari bere lurraldea berreskuratzeko eta bakean bizitzeko aukera emango dion irtenbide duin bat lortzeko ahalegin betean saiatzeko egiten diegu baita ere. Eta injustizia eta zapalketaz ari garen honetan, Joxemari ere aipatu du beste afrikar herrialdeak, Turkiatik ihes datozen



*migratzaileekin Europak hartu duen jokabide inhumanoa Hau ez da guk nahi dugun Europa eta jarrera hauek ez dute inongo konponbiderik ekarriko eta giza eskubideen gerra irmoki saltzen dugu.”*

... Joseba Ormazabal (EAJ-PNV) *“Honen inguruan ezer gutxi dago esateko. Orain dela lau urte Patxirekin batera aukera izan genuen Tindufeko kanpalekura joateko bisitan. Niretzat esperientzia izugarria izan zen Bisita politikoa izan zen, alderdi guztietako pertsonak joan ginen, talde bat osatu genuen eta hemendik ateratakoan politika hemen gelditu zen eta interesatea izan zen alderdi guztietakoak pentsatzen genuen pertsona bezala. Denok bueltatu ginen halako erreflexio berdina egin da. . Bidai hortan erakutsi ziguten izugarritzko antolakuntza, politikoa, administratiboa, Horrelako egoera gogorretan berrogei urteetan basamortu erdian bizitzen, ez dago modurik aguantatzeko ez badago horrelako antolakuntza ona. Beste aldetik, emakumearen inguruan, emakumearen papera kanpamentuetan, eta uste dut prozesu guztietan izugarri izan dela han azaldu zigunetik. Baina plano politikotik eskaera idatzia dihoa, baina plan humanitarioren gisa, han nola dauden 150.000 pertsona basamortu erdian izugarritzko egoera batean. Ezin da ulertu nola hori horrela izanda inork ez du ezer egiten. Ematen du ahal duenak ez duela egiten. Izugarria da ezer ez egitea. Hor badago, Marokoko Erresuma izango zen lehenengo ardua daukana baina ez daukate inongo intenziorik ezer egiteko. Baina Espainiako eta Europako ardua, hor dago zelako mundua nahi dugun eta gure eskura, Estatuaren eskura dagoena. Ez dakit noraino iritsi gaitzen erantzun bat emateko baina Maroko erresumarekin akordio ekonomikoak ixtea Sahararren errekursoak nolabait kontsumitzeko ez du ematen inongo pauso onik denik. Lotsagarria da berrogei urteetan horrela egotea. Esan duzuen bezala, eskerrak eman Sahararen alde, beste herrien alde lan egiten duzuen pertsoneri. Zaila da honi buelta ematea baina gu denok batera, umeak, jaio direnak kanpamentuetan eta behintzat oportretan bakean ekimenekin edo behintzat hortik beste errealitate batean, bizitzeko.”*

-----

Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleriak (PSE-EE) mozioa irakurri du. Honela dio:

**RASDen 44. URTEURRENEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALERAKO PROPOSAMENA**

*Egun gutxi barru, 2020ko otsailaren 27an, Saharar Estatua (Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa – RASD) sortu zeneko 44. urteurrena ospatuko du Saharar Herriak.*

*Mendebaldeko Sahara okupatu eta Saharar Herriak borrokan 44 urte eman ondoren, egoera konpondu gabe dago oraindik, eta lurralde okupatueta bizi diren biztanleek zein Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuetan bizi direnek beren giza eskubideak urratuta*



*dituzte, eta Marokoren okupazioaren pean edo errefuxiatu-eremuetan bizitzera behartuta daude.*

*Testuinguru horretan, Nazio Batuek Fronte Polisarioaren eta Marokoko Erresumaren arteko elkarrizketak desblokeatzeko emandako urratsak (duela zazpi urtetik gora geldirik) zapuztu egin dira idazkari nagusiaren ordezkari berezi Köhler jaunaren dimisioarekin, Marokok etengabeko xantaia eta jarrera intrantsigentea izan dituelako eta NBEko Segurtasun Kontseiluko kide diren herrialdeek gaiari heldu ez diotelako.*

*Oso une konplexua da, bide baketsua mehatxatzen duena, saharar herriaren eta Fronte Polisarioaren pazientzia ahuldu nahi duena, eta egintza burutuaren politika bat inposatu nahi duena. Egoera hori ez dator bat Europako Justizia Auzitegiaren epaiarekin. Epai horren arabera, "Marokoko Erresumak Mendebaldeko Sahararekiko duen subiranotasuna ez du aitortzen ez Europar Batasunak, ez haren estatu kideek, ezeta, oro har, NBEk ere".*

*Marokoko Erresumak aldebakarrekotasunez bere itsas eremua mugatzen duten bi lege parlamentario onartzea sustatu du; horrekin, NBEren Itsasoko Zuzenbideari buruzko Konbentzioan ezarritakoa urratu du, eta jurisdikzio-urak bere ur-eremuen 12 miliatara, Eremu Ekonomiko Esklusiboko 200 miliatara eta Plataforma kontinentaleko 350 miliatara zabaldu ditu, kontuan izanik arau horrek Nazioarteko Zuzenbidea urratzen duela eta bereziki larria dela Mendebaldeko Saharako Lurralde Itsasoa barne hartzean.*

*Erabaki horrek ezegonkortasun- eta probokazio-faktore bat gehiago sartzen du Mendebaldeko Saharako gatazkan, eta ez ditu kontuan hartzen sahararrek beren lurraldean aitortuta dituzten eskubide legitimoak, eta, gainera, areagotu egiten da beren aberastasunak eta baliabide naturalak espoliatuta.*

*Gaur irekitzen den zikloan, herrialde okupatzaileak, Marokok, nazioarteko zuzenbidearekiko burutzen dituen ageriko urraketen aurrean eta Marokorekin dagoen kolaborazio politiko eta ekonomikoaren aurrean ezer ez egitea ez daiteke zigorrik gabe geratu. Gaur, inoiz baino gehiago, Espainiari eta Europako Batasunari gatazkan dituzten erantzukizunei aurre egiteko eskatzeko unea da. Bereziki estatu espainiarrari dagokionez, deskolonizazioaren zain dagoen Afrikako azken lurraldearen, Mendebaldeko Sahararen, herrialde administratzailea baita.*

*Halaber, oso beharrezkoa da oraindik ere hainbat misio instituzionalen lana, okupatutako lurraldeetan saharar biztanleekiko adierazpen-, bilera-, elkartze- eta manifestazio-eskubideen urraketa larriak egiaztatzeko, eta Nazio Batuen ebazpenak eta giza eskubideen errespetua bete daitezen exijitzeko.*



TOLOSAKO  
UDALA

### **Horregatik guztiagatik:**

**BERRESTEN DUGU** Fronte Polisarioa dela saharar herriaren ordezkari zilegi eta bakarra, NBEk eta nazioarteak horrela aitortuta.

**SALATZEN DUGU**, berriro ere, Marokok Mendebaldeko Saharan duen presentzia legez kanpoko dela, eta ezin duela Saharar Herriak autodeterminaziorako eta independentziarako duen eskubidea kaltetzen duen ondorio juridiko edo politikorik izan.

**Egiaztatzen dugu** Mendebaldeko Sahara Nazioarteko Zuzenbidearen mende dagoen lurralde ez-autonomia dela, eta ez dela inoiz Marokoko Erresumakoa izan. Horregatik, Mendebaldeko Sahararen legez kanpoko okupazioa eteteko, eta Saharar Herriak autodeterminaziorako duen eskubidea gauzatzeko exijitzen diogu.

Espainia Mendebaldeko Sahararen "zuzenbidezko potentzia administratzaile" dela adieraziz Auzitegi Nazionalak emandako autoa erreferentzia dela **IRIZTEN DIOGU**.

**EXIJITZEN DIOGU** Marokoko Erresumari saharar preso politikoak eta kontzientzia-presoa berehala askatzea, eta kontrolatzen dituen espetxeetan giza eskubideen urraketak bertan behera uztea, eta presoan osotasun fisiko eta psikikoa bermatzea. Eta preso horien familiekiko elkartasuna helaraztea.

**GUZTIZ GAITZESTEN DUGU** Marokoko Gobernuak Mendebaldeko Saharari zuzenean eragiten dioten uretan bere itsas eremua ezartzeko hartutako alde bakarreko erabakia; izan ere, erabaki horrek NBERen Itsasoaren Eskubideei buruzko Konbentzioan adierazitakoa, Marokok onartua, urratzen du.

**SALATZEN DUGU** Marokoko Gobernuak Mendebaldeko Saharan baliabide naturalez egindako espoliazioa, nahiz eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak horren inguruko epaiak eman dituen, eta inguru horretan diharduten enpresei nazioarteko zuzenbidea eta Saharako herritarren eskubideak errespetatzeko exijitzen diegu. Interesdunei (enpresei eta herrialdeei) Saharako Herriaren ordezkari legitimoekin (Fronte Polisarioa) negoziazioak hasteko eskatzen diegu.

**ESKATZEN DIEGU** Nazio Batuei Mendebaldeko Saharako gatazkaren konponbide justu eta behin betikoa luzamendu gehiagorik gabe susta dezatela. Konponbide hori gauzatzeko, Saharako Herriaren autodeterminazio-eskubidea gauzatu behar da erreferendum bidez. Eta, halaber, NBERen Genevako Giza Eskubideen Kontseiluari eskatzen diogu Mendebaldeko Sahararako Giza Eskubideen errelatore bat izenda dezala.

**BERRIRO ESKATZEN DUGU**, Mendebaldeko Saharan bizi den egoera larria ikusita, MINURSOk Mendebaldeko Saharan dituen funtzioak eta zereginak zabaldu behar





TOLOSAKO  
UDALA

dituela. Horregatik, Nazio Batuei **ESKATZEN DIEGU** Misioari ahalmena eman diezaiola Marokok okupatutako lurraldeetan sahararren giza eskubideak zaintzeko eta babesteko.

**EXIJITZEN DIOGU** Europar Batasunari bete dezala Marokoko Erresumarekin adostutako Lehentasunezko Akordioan ezarritako giza eskubideak errespetatzeko klausula.

Saharako Emakumeen Batasun Nazionalarekin (UNMS) dugun lankidetzaren politikoa **INDARTZEN DUGU**, errefuxiatuen kanpamentuetan duten funtsezko eginkizun erabakigarriagatik. Eta, aldi berean, emakume horien ikusezintasun-egoerari buruzko deia egiten dugu, giza eskubideen urraketaren biktima izan diren eta Marokok okupatutako lurraldeetan desagertutako emakumeei aipamen berezia eginez.

**ESKATZEN DIEGU** Euskal erakunde publikoei jarrai dezatela ematen eta areagotu dezatela laguntza solidario eta humanitarioa, bai Tindufeko kanpamentuetan errefuxiatutako biztanleei, bai lurralde okupatutako sahararrei.

**Espainiako Estatuak Mendebaldeko Saharako egoerarekin duen erantzukizun legal eta politikoaz jabetuta, Espainiako Gobernuari dei egiten diogu hauetarako:**

1.- Madrilgo Akordioak erabat deusez **DEKLARATU DITZALA**, eta deklarazio horrekin bat etorritik, Saharako Herriak autodeterminaziorako duen eskubide legitimoa defendatzeko beharrezkoak diren ekimen politiko guztiak susta ditzala.

Espainiako Estatuak ofizialki aitortzen du Madrilgo Akordioak, 1975eko azaroaren 14an sinatuak, ez zuela transferitu lurraldearen gaineko subiranotasuna, eta sinatzaileetako bakar bati ere ez ziola eman herrialde administratzailearen izaera; Espainiak, berez, ezin du alde bakarretik transferitu izaera hori. Beraz, ez du eraginik izango Mendebaldeko Sahara deskolonizatzeko zain dagoen lurralde ez-autonoma gisa duen nazioarteko izaeran.

2.- Fronte Polisarioak Espainian duen ordezkartzari estatus diplomatikoa **EMATEKO**, Saharar Herriaren ordezkari bakarra eta legitimoa den aldetik, NBEk horrela onartuta. Halaber, RASD aitortu dezala.

3.- Saharako errefuxiatuen kanpamentuetako egoera humanitario larria dela-eta, lankidetzaren eta laguntza humanitarioa areagotu dezala, bai errefuxiatuen kanpamentuetan, bai lurralde liberatuetan, kezkaz ikusten baita Espainiako Lankidetzaren Agentziak azken urteotan egindako ekarpenak murriztu izana. Era berean, Mendebaldeko Sahararentzako Europako funtsak gehitu behar direla azpimarratu behar da.

4.- **DEKLARA DEZALA** enpresa publiko eta pribatuek nahitaez errespetatu eta aplikatu behar dituztela Mendebaldeko Saharako lurraldean, itsasoan eta lehorrean baliabide naturalak esploratzeko eta ustiatzeko oinarria ezartzen duten EBko Justizia Auzitegiaren epaiak; esplorazio eta ustiaketa hori Saharar Herriarekin adostu behar dira.



TOLOSAKO  
UDALA

5.- **EXIJI DIEZAIOLA** Marokoko Erresumari Mendebaldeko Saharako lurralde okupatueta giza eskubideak zorrotz errespetatzea eta sahararrek jasaten dituzten eskubide-uraketak etetea. Eta, halaber, eskatzen diogu aktiboki lan egin dezala, Nazio Batuen eta Europar Batasunaren barruan, MINURSOk bere eginkizunak Mendebaldeko Saharako giza eskubideak betetzen direla zaintzera eta babestera ere zabal ditzan.

**Azkenik, euskal gizartearen zereginari dagokionez, honako hau adierazi nahi dugu:**

**ESKERRAK** eman nahi dizkiegu Saharar Herriarekiko adiskidetasunak elkartuta egunez egun lan egiten duten elkarte eta kolektibo solidario eta sozialei, horien helburu bakarra Saharako herri anaiarentzat etorkizun aske bat lortzea baita.

**AITORTZEN DUGU** haurrei bideratutako "oporrak bakean" harrera-programaren funtsezko garrantzia, Saharako eta Euskal Herriko familien arteko elkartasunaren eta maitasun- eta hurbiltasun-harremanen adierazle nagusia. Adierazpen instituzional hau ondorengoei bidaltzea **proposatzen dugu:**

- Nazio Batuen idazkari nagusia
- Genevako Giza Eskubideen Kontseilua
- Europako Batzordea
- Espainiako Gobernua
- Espainiako Errege Etxea
- Fronte Polisarioaren Euskadirako Ordezkaritza
- Marokoko Gobernua

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zeneko 44. urteurrenaren mozioa.



## **10. MOZIOA: 2020KO MARTXOAREN 8A, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA.**

Alkateak mozioa irakurri ondoren, honako parte-hartze hauek izan dira:

- ... Jose M<sup>a</sup>Villanueva Telleria (PSE-EE): *“Ez dut errepikatu behar adierazpen honetan azaltzen diren hainbat puntu, izan ere nik behintzat garbi ikusten dut nondik joan behar dugun. Baloratu behar dut, alde batetik, orain badago baina, aurreko legislaturan egindako lana emakumearen eskubideen alde. Uste dut bide onetatik goazela. Asko egin behar da, ikusi besterik ez dago egunkarietan zer gertatzen den eta zenbat gauza dauzkagun egiteko. Gustatuko litzaidake esatea, feministen historia, emakumeen eskubideen borroka aspalditik datorrela eta nik beti komentatzen nien ikasleei, hemen, Euskal Herrian jaiotako bi emakumeek, Matilde Huizi eta Klara Campoamor, bi hauek garrantzia handia izan zutela Errepublikaren garaian, emakumeen aldeko eskubideak defendatzeko eman zituzten lehenengo pausoak. Eta honekin batera historia jarraituz eta historia lehen aipatu denez, errepikatuko dut, nik orain defendatu behar dut Felipe Gonzalezen gobernu bat eta gaur egun Sanchezek emakumeen eskubideen alde egiten ari diren politika, Espainiako historian ezkertiarrok egin dugu horrelako legeak. Asko falta da oraindik egiteko baina sozialistok egin dituzten edo ditugun horrelako aldaketak eta hori jarri nahi dut mahai gainean. Adierazpen hau bukatzen den moduan emakume eta gizon guztiok egun hauetan martxan jarritako hainbat ekitaldietan parte har dezaten animatu nahi dut, inportantea da.”*
- ... Olatz Artola Apeztegia (EH Bildu): *“Pozteko da feminismoaren gaien norantz berdina daukagula ikusteak, moziorako prestatu ditugun ekarpenekin ere ados zaudetela ikustea ere baita . Bat gatozela esparru honen inguruko azaleko kontuetan, feminismo azaleko konturik baldin bada behintzat. Baina mamira joz gero hor bai ikusten ditugula desberdintasunak, norantz bai, baina norabideak berdinak ez diren susmoa edo kezka daukagu. Emakumearen etxeari gaiari helduta mozioan atzera bota duzuen kontuetako bat horixe izan da, berme hitza. Eta egiari zor, eskatuko genuke konpromisoa hitz zehatzetan eta bereziki ekintzetan islatzea. Hau da, konpromisoa bermatzea eta, uste dut hitz horiek kentzeak daukazuen konpromisoa islatu baino kolokan jartzen duela. Pena litzateke, eta pena da, niri behintzat deskonfiantza sortzen dit hitz hori kendu izanak. Detalle bat da, bai baina detailea ez dute zertan hutsalak edo huskeriak izan, askotan hor dago mamia. Hortaz, gure iritziz eta bereziki emakumearen etxean prozesuan partaide izan diren emakume horiei guztiei zor diegun errespetuekin, 2021eko udazkenerako Etxea prest eta martxan egotea bermatu beharko luke Udalak, lehenago ezinezkoa bada. 2021a urrun ikusten dugu, aurtengo urtean Etxea inauguratzearekin amesten genuen askok eta askok , amets hori ez da egi bihurtuko baina eskertuko genuke ez itzaltzea herri honetako emakumeen ilusioa, ametsa, eta, sikiera, bermatzea 2021erako egi bihurtuko dela. Luze doa prozesua eta are luzeago ez joate aldera ondorengo kontu batzuetan indarra jartzea eskertuko genizueke. Denborak eta epeak lizitazioak adina ez luzatzea. Lizitazioa ateratzen bost hilabete eman ditu Udalak eta hori guretzako luzea da. Aurrera begira lizitazioa emateko obrak egiteko e. a. epeak estutzea eskertuko genuke. Obrari dagokionez, dagoeneko aurreproiektu bat eginda dago, emakume talde eragile eta gune zabalak onartutako proiektua bat egin zuen gaien aditua zen emakume feminista batek eta uste dugu hori oinarri hartu beharko litzatekeela eta, behin obrako tarte horretan lana hori berriro ez berregin eta horrekin iruditzen zaigu obrarako aurreikusten den denbora ere*



*murriztu dezakeela. Ekipamendurako obra listo eduki arte ez itxarotea ere proposatzen dugu, bi lan paraleloan egitea, hau da, batetik, Udalari dagokion lana, Etxearen obrak gauzatzea eta, beste alde batetik, Etxearen mamia litzatekeena. Bigarren hau, orain arte bezala, orain arte bezala emakumeekin batera egitea. Eta bukatzeko, azken puntu bezala, komunikazioa. Prozesuak hiru hanka dauzka, talde politiko-teknikoa, talde eragilea eta gune zabala. Uste dugu prozesu honetan giltzarri izan diren emakumeek prozesuaren nondik norakoaren berri une oro izan behar dutela. Gaur eta hemen 20121erako Etxea osatuta egotea ahalbidetu duela edo onartu dugu edo onartuko dugu eta datorren ondoko arrazoiketen inguruan emakumei aurrez aurre informatu behar zaielakoan nago, hau da, aurrez aurre, publiko egin aurretik eta talde eragilearen bilera bat deituta. 2020 urteko aurrekontuetan tokia dauka Emakumearen Etxeak baina obra ez da 2021 urtera arte bukatuko, Aurreikuspen konpromiso edo interes faltarengatik proiektua are gehiago ez atzeratzera espero dugu. Zuentzat estrategikoa dela diozue eta hori hitzetan ez ezik ekintzetan ere islatzea eskertuko genuke.”*

*... Alkatea : “Matxoaren 8an indar gehiago hartzen ari dela azken urte hauetan, hori oso agerikoa da, egun hori baliatzen dugu orain arteko lorpenak ospatzeko, hori egin behar delako, baina baita ere etorkizunera begira hausnartzeko bidean nola egin, izan ere, oraindik ere Joxemarik aipatu duen bezala, asko dagoelako egiteko. Esparru publikoan eta erakundeetan gero eta nabariagoa da emakumearen presentzia horrek esan nahi duen berdintasun politika nolabaiteko eragina ere badutela, ezta. Eremu publikoan baita ere emakumeon presentziaz hori honez gero gehiago eta handiago da eta adibide bezala jarri ditzakegun oraintxe pasatako Iñauteriak. Baina lorpenak ospatetik haratago aldarrikapenak egiteko eguna ere bada eta konpromisoak hartzeko. Oraindik badagoelako bidea egiteko, eta azken urte hauetako martxoaren 8a egia da baina mugari izan delako egin dira hainbat ekimen emakumeak planto egin dute, kalera atera gara, aldarrikapenak egin, eta emakume guztiok bat eginda, bat eginda, indarrak batuz gure eskubideen defentsan berdintasunaren errealaren alde. Udaletik urteak daramatzagu berdintasun politika sustatzen eta emakumeen ahalduntzeko programak egiten. Egia esan gero eta arrastatsugoak gainera, proiektu ezberdinak garatzen. Genero zeharkakotasuna badago udalaren barne kulturen txertatzea berdintasun erreala hori, lan ildo inportante bat, politika publikoen diseinu eta garapenean emakumeen ikuspegia barneratuta egon dadin. Tolosako Udalak eta Eusko Alderdi Jeltzaleak berdintasunarekin duen konpromisoa sendotzeko asmoa dugu. Berdintasunaren parekidetasunaren eta kontziliazioa erantzukizunaren alde lanean jarraituko behar dugu. Berdintasuna balioetan oinarritutako kultura eta gizartea sustatzeko. Hala ere, lehen aipatu bezala, oraindik asko dago egiteko genero mugari gabeko gure etorkizuna lortu nahi dugulako eta eraiki nahi dugulako emakumeok derrigorrez bat egin behar elkarlanean aritzea ezinbestea da. Ezinbestekoa da. Nik ikuste dut eta bueno aipatu nahi nuen baita ere, martxoaren 8aren inguruan, udalak antolatzen dituen hainbat ekimen elkarlanean emakumeekin aurtengo egitaraua ere inportantea da, Atzo Kultur Etxean egin zen mahai inguru bat, jendea agertu zen eta nahiko arrakastatsua izan zen. Zerkausian badago dagoeneko erakusketa jarrita, martxoaren 6an eta egun berean Leidorren baita ere, antzerkia. Martxa morea martxoaren 7an, Manifestazioa martxoaren 8an, eta filma Mujercitas Leidorren egun berdinean. Martxoaren 9an, kiroldegian “Emakumeak kirolari” erakusketa Kultur etxean martxoaren 10ean, Irene Arrarats –itzultzailea- eta Uxue Alberdi idazlea eta bertsolariaren eskutik”Bigarren sexua orain da atzokoa” liburuaren aurkezpena.*



*Hitzaldia izango martxoaren 11n, Kultur Etxean, "Estrategias feministas contra la Neocropolitica y Neofacismo" Nuria Alabao, periodista eta antropologoaren eskutik. Martxoaren 17an, dokumentala Zauriak filma Topic-en eta 24n "Zinegoak" laburmetraia. Konpromisoa, konpromisoa esaten duzuenean, uste dut, Gobernu talde honi ezin zaiola konpromisoa zalantzan jarri eta adibide oso argi bat jarriko dut. Emakumearen Etxearen beharra azaltzen da udaletxe honetan partaidetza prozesuetan uste dut EHBILDUren gobernuaren aurretik ia edo gobernuaren inguruan eta EHBILDU gobernuan izan zen lau urte horietan ez zen aurrerapausorik eman. Motelago edo azkarrago, egiari zor, aurrerapausoak eman dira Etxearen inguruan aurreko legealdian eta legealdi honetan. Orduan, elkarri zalantzan jartzen hasten baldin bagara uste dut proiektuari, benetan sinesten badugu proiektuaren bat egin behar dugula, ez diogu mesede gehiegirik egiten. Orduan, nik eskatuko nizueke proiektuarekin bat egitea eta helburuari begiratzea denok batera. Dakizuenean, jakin dakizuenean, atzerapenak, atzerapenak direla ez nuke esango nik, izan ere proiektua garatzeko bere denborak behar dira, lehiaketak egiteko baita ere, eta nik ulertu dezaket Mugimenduak eta Taldeak oso luze ustea prozesu guztia ez gehiegi ez ulertzea, baina udal ordezkariak zaraten aldetik, ez dut kexa hori pleno honetan azaltzeak ez dut ulertzen, uste dut dela itxurakeria bat eta ez diola helburuari mesede gehiegirik egitean."*

... Jarraian, alkateak Mugimendu Feminista Taldeko ordezkariari hitza eman dio: "Eskerrik asko mozioarengatik, denok ardua hartzea hori aurrera eramateko eskertzekoa da. Baina mozioan entzundakoan "jarraitzea transbertsalizatzea udaletxeko proiektu guztietan eta genero ikuspegia, e .a." burura etorri zait Iñauterietarako indarkeriaren aurka spota egin zena, agian inpulso gehiago edo jarraitu formazio hori ematen, izan ere ikusitakoak ez zidan ezer esan. Horregatik harritu naiz entzundakoan jarraitzea formazio ematen tekniko-politikoei. Jakin gabe nork egin duen...Jarraituz Emakume Etxearen inguruan, martxoaren 25ean bilera irekia daukagu eta geratu ginen, bertan azalduko zela proiektua, denborak, baita hausnartzeko denbora horiek murriztu daitekeen e.a.. Beraz, entzuteak, ziurtzat jotzea, 2021erako amaituko dela. Agian, teknikoki badakit prozesu horiek nola diren, lana egin baitut mahaiaren beste aldean, badakit murriztu daitezkeela. Gehiago edo gutxiago, murriztu daitezke, beti ere, politikoki esaten baldin badigute gaia atera behar dela. Horregatik, ziurtzat jotzea 2021 urteko udazkenara arte dela, itxoin pixkat, martxoaren 25eko bilera egin arte itxoin, badakigu epeak epeak direla, legeak legeak direla eta bete behar direla, baina nire uste apalean murriztu daitezke. Horrek txirriatu dit."

... Silbana Ostiza (EHBILDUko zinegotzi ohia): *Aipatua bezala, Olatz, zuen helburua baldin bazen EHBILDU isiltzea barkatu baina ni nengoen garai hartan eta ezin dut isilik geratu. Garai hartan ez zegoen laugarren olatua feminismoa,. batzuetan olatuak daudenean erraxagoa da, garai hartan emakumeak lanean ari ziren eta ni beraiekin, ni zinegotzia nintzen. Tamalez, EHBILDUko zinegotzi bat hil zen eta ni sartu nintzen. Nik sartzeko emakume taldea lanean ari zen Berdintasun batzordean. Lehenengoz, berdintasun batzordea irekia zen emakumearentzat, ordura arte ez. Lehenengo mahai ingurua hemen antolatu zena Emakumeen etxeari buruz, nik neonek ekarri nuen Udaletxera. Beraz, ez zu gehiago, ez ni gutxiago, denok egin dugu tokatu zaiguna. Orain laugarren olatuak asko laguntzen du, gai hartan ez zegoen laugarren olatua baina lan batzuk egin genituen."*



- ... Alkatea Asanblada Feministako ordezkariari erantzunez: *“Formazioaren inguruan: mozioetan saiatzen gara konpromisoak hartzen, ez da brindis bat izaten, baizik aurrera atera behar ditugunak sartzen ditugu mozioetan. Formazioa aipatzen da eta formazioa egiten da, bai udal langileekin genero aldetik lana egiteko garaian eta baita ere arduradun politikoekin egiten da formazioa. Spotaren inguruan esan behar dizut spotak buelta asko eman dituela, Berdintasun saileko bi teknikariak ikuskatuta dagoela, Niri asko gustatu zait, baina genero berdintasunean ez daukat zuk izan dezakezun formazioa, baina egia da Berdintasun teknikariak ikuskatuko spota dela eta gainera ez dela aurkeztu zuten lehenengoa baizik aldaketa pila bat egin dituzte. Nik besteak egindako lana ez dut zalantzan jarriko. Bermea emateko Udaletxean dauzkagu bi teknikari gauza horiek ikuskatzen dituztenak, kritikagarriak izan daitezkeenak Udalean egiten diren hainbat eta hainbat gauza bezala. Baina helburua jakin bat da eta helburuarekin bat egiten dugu, nire pertsonalki gustatu zitzaidan eta teknikarien baietzarekin argitaratua izan da. Bestalde, Etxearen data mozioan sartzea izan da konpromisoa jasota gera zedin nahiz eta konpromiso hori publikoki egin askotan. Gainera, ez dut hartuko konpromiso bat ezin dena hartu, eta ez da konpromiso politiko bat baizik aurrera eraman ezin bada administrazioak egin behar duena egin beharrekoa. Zu seguru zaude epea mozterik badagoela, baina nik aurkeztu genituen lan talde politikoak dira hirigintzako teknikariak emandakoa. Agian murriztu daitezke baina nik emandakoak aurkeztu behar ditut, nik pena askorekin eta ardura askorekin.*
- ... Alkatea Silbana Ostiza EHBILDUko zinegotzi ohiari erantzunez: *“Ni ere banengoen oposizioan garai horretan, udal honetan eta aurretik baita ere, baina hemen emakumearen etxearen eskaera oso aspaldikoa da eta hemen pausoa eta eman duen legealdi aurrekoa izanda eta inoiz ez dut hori aipatu beti saiatu gara eta askotan eta maiz esan dugu, gainera, emakumeen taldeak egindako eskaera bat izan denean, gaia gatazka politikotik ateratzea eta izan dadila batera denak aterako duguna, Emakume guztiok bat egin da.*
- ... Asanblada Feministako kideak: *“Miren Urkola zegoenean hasi ginen gai honekin, lantzen edo behinik behin aipatu egiten genuen eta gero, legealdia aldatu egin zenean, Aldundian, orduan bilerak egiten hasi ginen. Parte hartu zuen herriak izan ziren Orereta, Zumarraga eta Tolosa. Zumarragan eta Oreretan jada etxeak badaude, bat eraikin berrian eta bestea, Zumarragako kasua, egina zegoen eraikin batean. Ari naiz azaltzen zein da prozesua, zer egiten ari garen. Egoera berdinean geunden eta bi urte badira beste herrietan Etxeak jada badaudela eta gu egoera berdinean gaude.”*
- ... Alkatea: *“Herri batzuetan prozesua askoz motzagoa izango du eta bakoitzak baloratu behar du eta bere bidea egingo du. Uste dut Tolosan egindakoa oso aberatsa izan dela eta ez dela nolana hikoia izan, nahiz eta luzea izan. Bestalde, Nik Miren Urkolataz hitz egiten baldin badut gauza ona besterik ez daukat esateko. Izan genuen harreman pertsonala oso ona eta lan handia egin zen batzorde horretan. Orain, Emakumearen Etxearen inguruan hitzaldia bat egitea edo aipatzea ez da proiektua martxan jartzea. Proiektua martxan jartzen da jartzen denean, eta hori onartu egin behar duzue.”*

-----



TOLOSAKO  
UDALA

Alkateak mozioa irakurri du. Honela dio:

*“Azken urteotan, martxoaren 8ko nazioarteko grebarako deialdiak direla-eta nazioartean izan diren mobilizazioek eta Euskal Herrian bi urte honetan izandako grebek agerian utzi dute Mugimendu Feministaren goraldia, nola arlo teorikoan, hala antolaketarenean.*

*Mobilizazio horietan, beste aldarrikapen askoren artean, honako hauek exijitu dira: feminismo interseksionala; indarkeria matxistaren aurkako lege eta jarduketa eraginkorrak; eskubide sexual eta erreproduktiboak; segurtasun juridikoa emakume migratzaileentzat eta errefuxiatuentzat; baimen berdinak eta transferiezinak; menpekotasuna dutenei laguntzea; etxeko langileentzako eskubideak; pentsio duinak, eta abar.*

*Testuinguru honetan, emakumeen borrokek eta kaleetako mobilizazioek konpromiso irmoko jarduna eskatzen diete erakundeei, ondorengo helburuak lortzeko:*

*Genero-harremanak eraldatzea gure udalerrien eta gure administrazioen bizitzan.*

*Emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak erauztea eta egiturazko indarkeria horren biktimei erreparazioa ematea.*

*Baldintzak eta aukerak eraikitzea izaera guztietako emakumeek parte hartzeko tokiko bizitzako ekonomian, gizartean, politikan eta kulturean.*

*Diskriminazio mota guztien aurka borrokatzea.*

*Bizitza erdigunera ekarriko duten gizarte-antolakuntza erantzunkideak diseinatzea.*

*Aurrekari horiek aintzat hartuta, Tolosako Udalak erabaki hauek hartzen ditu:*

*Transformazio sakonak ekarriko dituzten prozesu estrategikoak sostengatzea, hala, agenda politikoa garatu eta posizionatu ahal izateko, eta gainera, aldi berean, sendotu ahal izateko Mugimendu Feminista bera eta bere egiturak, sareak eta aliantzak.*

*Jarraitzea estrategia garatzen, genero-ikuspegia zeharkakotasunez txertatzeko udal politikan, programa eta proiektuetan.*

*Beharrezko neurriak hartzea langile tekniko eta politiko guztiak prestatzeko eta gaitzeko arauen eta administrazio-egintzen genero-inpaktuaren ebaluazioa mailaz maila*



TOLOSAKO  
UDALA

garazteko.

*Udal politika guztietan eta sentsibilizazio- eta prestakuntza-programetan, irizpide intersektionala sistematikoki sartzeko, beste desberdintasun mota batzuk ere badaudela ikusteko, hala nola, klasea, generoa eta sexu-orientazioa, adina, etnia, dibertsitate funtzionala, erlijioa eta abar, eta agerian uztea desberdintasun horiek guztiak esanguratsuak direla emakumeentzat.*

*Tolosako Jabetze Eskolaren bitartez, balioen transmisioa azpimarratzea, bai kultura-aldaketak sustatzeko, berdintasunezko gizartearen lortze aldera, bai emakumeen ahaldunduntze banakakoa eta kolektiboa sustatzeko.*

*Bere eskumenen alorrean laguntzea, baliabideak eta zerbitzu publikoak garatu eta finkatu daitezkeen, zertarako-eta zaintza sostengatzeko eta zaintzen erantzunkidetasun sozialerako komunitateko estrategien artikulazioa sustatzeko.*

*Jarraitzea Tolosaldeko Emakumeen Etxearen proiektua garatzen, eta konpromisoa hartzea proiektu arkitektonikoa, obra eta beharrezko azpiegiturak lehenbailehen egikaritzeko eta etxearen mamia osatzeko baliabideak emateko, proiektuan parte hartzen ari diren emakumeei, horrela, 2021eko udazkenerako etxea inauguratuta eta martxa hartuta egotea ahalbideratzeko.*

*Tokiko jardueretan, aurrera egitea indarkeria matxistaren biktimei erreparazioa emateko printzipioaren aplikazioan.*

*Urratsak ematen jarraitzea aniztasun eta askatasun sexuala jendartearen esparru orotan gauzatu izan dadin, eta paradigma sexuala (hetero-araua) aldatzeko.*

***Azkenik, herritarrei dei egiten die modu aktiboan parte har dezaten, martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta, antolatu eta deituko diren ekitaldi eta ekintzetan.***

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xabier Martinez Quinquilla eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak aho batez **onartu du** mozioa, *Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta.*





## 11. MOZIOA: GIPUZKOAKO SENIDEAK ELKARTEA.

Parte-hartzeak:

- ... Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria (PSE-EE): *“Mozioan azaltzen den filosofiarekin bat egiten dut. Hala ere, aipamen tekniko batzuk idazteko erarekin lotuta dagoela eta, ez dut honen alde bozkatuko. Bestaldetik, Gipuzkoako Batzar Nagusietan Gizarte Politikako Diputatuak, Maite Peñak, konpromiso bat hartu zuen esanez martxoaren zehar kobratutako kuoten zatiak itzuliko dituela Foru Aldundiak. Hemen azaltzen den puntuko egoera aldatu eginda. Gatazka honen aurrean Sozialistak izan dugun jarrerara ondo adierazita azaldu zen urriaren 31n egindako Osoko bilkuran, orduan onartutako 5 puntuak ez ditut errepikatu behar, bakarrik esan puntu hauetako batean eskatzen zen gatazka honeta inplikaturako sindikatuetakoa eta eragile guztiei bilatzeko gatazka amaituko duen akordioa bat Gipuzkoako Adinekoentzako egoitza zentroetan lan hitzarmena negoziazioren lan esparruan. Eta azken puntuan Gipuzkoak Foru aldundiari eskatzen genion gatazka hau gaingaitu ahal izateko bideak jorratzen jarraitzea. Zoritxarrez irtenbideak ez dira aurkitzen eta konpondu gabeko gatazka baten aurrean gaude eta jarraitzen dugu. Baina jarraitu behar dugu insistitzen ezinbestekoa delako irtenbide batera iristea. Beraz, arrazoi guzti hauengatik Gipuzkoako Senideak Elkarteak aurkeztutako mozioaren alde ez dut bozkatuko.”*
- ... Kristina Pelaez Errazkin (EHBILDU): *“Nik ere horrela hasi behar nuen. Gaur prentsan irakurri dut Gipuzkoa Foru Aldunditik ziurtatu dutela egoiliarren senideek grebagatik eman ez diren zerbitzu portzentaia hori kobratuko dutela. Niri harritu nauena izan da enpresen esku uzten dela diru itzulketa hori, nahiz eta, Gipuzkoa Foru Aldundiak bai, hartzen duen ardura senideei esateko zenbateko dirua itzuli behar zaion baina bai da egia da enpresari uzten zaiola diru hori itzultzeko ardura. Orduan, ondo egongo litzateke, orain behintzat nahiz eta konpromiso hori Gipuzkoa Foru Aldundik hartu duen ez dadila orain burukatzen bihurtu Senideak berak enpresarekin Gipuzkoako Aldundiarekin baino. Alde horretatik berri horren inguruan egiten dugun hausnarketa da. Lau hilabete dira, gutxi gora behera, langileen grebaren inguruko mozioa eztabaidatu genuela Udalbatza honetan eta gatazka konpondu gabe jarraitzen du eta berriz ere termino berdinetan eztabaidatzen jarraitzen dugu, ez baita egia oraino honetan egoiliarren senideek direla beraien eskaerak egiten dizkigutenak, diru itzulketa horren eskaera ere badago baina beste eskaera batzuk ere bai egiten dituzte eta horrek eskaera horiek lan gatazkaekin zerikusia daukate. Buruz ari naiz, baina aurreko mozioa eztabaidatu genuenean buruan neukan Joxemari, zuk behintzat onartzen zenuela hirugarren agente bat ba zegoela gatazka honetan eta Gipuzkoa Foru Aldundia zela eta momentu honetan berdina pentsatzen jarraitzen dugu. Gipuzkoa Foru Aldundiak ematen duen zerbitzu bat izanik eta enpresak eta enpresak eta langileen arteko gatazka honetan Gipuzkoa Foru Aldundiak esku hartu beharko luke, mahai batean eseri beharko luke, eta ahalbideratu beharko luke hitzarmen kolektibo hori aurrera atera dadin. Udalbatza honetan parte aktibo edo konponbide honetan parte aktibo izateko modua erabakien aldetik ez daukagu baina parte aktibo izateko modua bai da ardura daukanari bere ardurak bete ditzala eskatzea. Gaur, kasu honetan gure irakurketa da arazo nagusia ezin dugula utzi bakarrik lan gatazka batean, azken finean, lan gatazka honen atzetik interes ekonomiko bat dago eta Adineko Arreta zerbitzuan beste askotan bezalaxe*



*horrela izaten ari da. Arazoa interes ekonomikoak direla diogu azpikontrataturako zerbitzuetan ematen diren gatazkak beti daukalako oinarri ekonomikoa eta kasu honetan arreta zerbitzua negozio bilakatzeko asmoa edo nahia dagoelako. Etengabe entzuten ari gara azken aldi honetan gero eta gehio gainera, Eusko Jaurlaritzatik. Aldundietatik, Udal Gobernu honetatik, beste erakunde askotatik gizartearen zahartzeak ekartzen dituen erronkak eta aukerak aztertu eta landu egin behar direla .EHBilduk garbi dauka aurrean daukan erronka gizartearen zehatzearekin eta dauzkagun aukerak ere izugarriak direla, baina aukera horiek bi moduetan ulertu ditzazkegu. Aukera bat izan daiteke gizarte juxtu eta duinago bat sortzeko aukera hartzea eta zerbitzu publikoetako kudeaketa diseinatzea edo aukera horiek negozio egiteko aukera bezala hartzea eta onura ekonomikoa ateratzea gizartearen beharretatik. Instituzioetatik ikusten dugu hartu den bidea hori izaten ari dela, arazoa ez litzateke hain handia izango behin baino gehiagoetan jartzen garelako egoera non administrazio publiko batek ez daukan nahiko baliabide berak zerbitzu horiek zuzenean eskaintzeko, baina arazoa ez litzake hain handia izango zerbitzu publiko horien ardura daukaten administrazioak beraien ardura beraien gain hartu eta langile lan baldintzak bermatuko dituzten kontratuak eta egitea ahalbideratuko baluke. Behin eta berriz jartzen gara kudeaketa eredu eta interes ekonomiko baten desberdintasun baten aurrean, Eusko Jaurlaritzak dekretuan aurkeztzen zituen erratioen inguruko hobekuntzak ez dira ematen, horren ondorioz Gipuzkoa Foru Aldundiak erratioak ez ditu hobetu beharrik, erratioak hobetzen ez direnez lan baldintzak ere ez dira hobetzen eta horretaz gainera patronalak ez ditu onartzen eta ez ditu proposatzen bere langilegoarentzako lan-baldintza duinak. Beste aldean dauzkagu langileak non ez daukaten inongo asmorik beraien eskubideak murriztuak izaten jarraitzeko eta borrokan jarraitzeko indarra daukaten beraien diren eta denonak diren eskubideek defendatzen eta ondo dakigu non kokatzen garen. Guk lan baldintza, arreta zerbitzu kalitatezko baten aldeko jartzen gara. Beraz, Gipuzkoako Foru Aldundiari mozio honetan Gipuzkoako Senideak egiten dituzten eskera guztiekin erabat bat gatoz. Behingoz gaia aurrez aurre hartu dezala eta eseri dadila edo behintzat deitu dezala eta bitartekari lana egin ditzala hitzarmen kolektibo duin bat lortu dadin Erratioen katalogoa berrikusi dezala horrek asko lagunduko duelako langileen lana hobetzen eta bueno bete dezala hitza eta enpresek betetzen ez badute betearazietela diruaren itzulketa bermatzea. Patronalari ere bai eskatuko genieke gatazka hau konpontzeko asmo zintzo edukita eseri dadila hitzarmen kolektiboko negoziazioko mahai horretan eta egin ditzala edo behintzat onartu ditzala langilengoaren lan baldintza duinak edo duintzeko proposamenak. Eta udal gobernu honi bide batez herrian eskaintzen diren zaintzako zerbitzuetan langileen lan baldintzak zaindu ditzala.”*

*... Alkatea. Gu Joxemarik aipaturakoarekin bat gatoz. Aurreko batean mozio bat onartu genuen eta orduan esandakoa berresten dugu. Hiru puntu ziren gatazka ere oraindik luzeago jotzen duen honetan zerbitzuak gauzatzerakoan erabiltzaileen eta haien senitartekoaren artean eragin daitezkeen gora baherengatik kezka azaldu,, inplikaturko sindikatu etako eta patronaletako eragile guztiei lan hitzarmenaren negoziazio mahai esparru batean akordio batera iristeko eskatu eta Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatu baita ere bermatzeko greba aldietan ezarritako gutxieneko zerbitzuak betetzen direla. Josemarik aipatu bezala atzo Maite Peñak egindako adierazpenetan diru itzulketa gauzatuko zela adierazi zuen eta nik uste dut eztabaida hau ere eman dela batzar Nagusietan, batzar nagusietan gaude ordezkaturata hemen gaude alderdi politiko berdinak . guk garai hartan onartutako mozioari eutsi eta*



TOLOSAKO  
UDALA

*oraingo honi kontra emango diogu.”*

-----

Mozioa irakurri aurretik, alkateak, argitzearren, honako hau azaldu du:

*“Gipuzkoako Senideak taldeak mozioa erregistroan sartu zuen. Udaletxe honetan inoiz ez da ukatu mozio bat eztabaidatzea pleno batean eta hartu genuen akordio bat udaletxe honetan hiru alderdi politikoak, sartzen ziren idatzi guztiak hiru alderdien sinadurarekin sartzea gero eztabaidatzeko. Horrez ez du esan nahi hiru alderdiok ados gaudela idatziarekin baizik eta bidea ematen diogula plenoan eztabaidatzeko. Hori azaldu nahi nuen, izan ere, arraroa geratu daiteke hiru alderdiak sinatzea aurkezterakoan eta gero iritzi ezberdinak izatea.”*

Andu Martinez de Rituerto Arregi EHBILDUko zinegotziak mozioa irakurri du. Honela dio:

*“Idazki honen bidez, Gipuzkoako Senideak elkarteak Udal honi eskatu nahi dio Osoko Bilkuraren moziora gai hauek aurkez ditzala:*

- Gure adinekoren arreta lehentasunezko gaia da, eta, aldi berean, presako kontu bat, irizpide politiko sindikalen gorabeheren mende egon ezin dena.*
- Gipuzkoako Foru Aldundiari dei egitea behar diren neurriak har ditzan laneko gatazka hori konpontzeko, gatazka horrek erabateko eragin pasiboa/aktiboa baitu. Era berean, Foru Aldundiari eskatzea kobratutako kuoten eta eman gabeko zerbitzuen ehuneko zatiak itzultzeko konpromisoa bete dezala, eta hori ukatzen ari zaien eskubide gisa espero dute egoiliarrek eta mendekotasuna duten pertsonak. Era berean, Foru Aldundiari eskatzea arreta-ratioak berriz azter ditzala, ez errentagarritasun ekonomikoaren irizpideen arabera, baizik eta mendekotasuna duten eta ahulak diren pertsonen zerbitzua emateko, zerbitzu instrumentalizatu bat baino zerbait gehiago behar baitute.*
- Gaur egungo lan-gatazka konpontzeko, Foru Aldundiari eskatzen diogu mahai bat deitzeko, non inplikaturako alderdiak eseriko baitira gatazka hori amaitzeko helburu bakarrarekin.*
- Tolosako Udaletik Gipuzkoako Egoitza eta Eguneko Zentroen Hitzarmen Kolektiboan gatazkan dauden sektoreko patronalei dei egitea, aurrerapauso bat eman eta arazo hori konpontzeko benetako ahalegina egin dezaten, beste pertsona batzuek gainditu ezin izan duten bizitza- luzera baitu.*



TOLOSAKO  
UDALA

- *Udaletxe honek konpromisoa hartzen du zentro publiko eta itunduetan dauden egoiliarrei eta mendekotasuna duten pertsoneri laguntzeko gutxieneko kanonak nabarmen urratzen dituzten enpresen aurka jotzeko.*

*Azkenik, zure Udalari eskatzen diogu, Osoko Bilkuran goian adierazitako puntuak onartu ondoren, ondorio horiek lehenbailehen Gizarte Politikako foru diputatuari helaraz diezazkiola.”*

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Olatz Artola Apezteguia, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla.

**Aurkako botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, ez du onartu Gipuzkoako Senideak Elkarteak aurkeztutako mozioa.

## **12. GALDERAK ETA ESKAERAK.**

Parte-hartzeak:

... Ander Figuerido Zubiria (EHBILDU) :”Azken egun hauetan informazio ugari jasotzen ari gara komunikabide desberdinetan Tolosaldeko osasuna arretaren gabezien inguruan. TOPAK udal honetako hiru alderdi politikoei urrian emandako informazioa eta datuak baieztatzen ari dira. Eskualde ospitale lanak egiten dituen Asuncion Klinikako mediku asko espezialitate titulua homologatu gabe jarduten ari dira. Salaketa hau gaur bertan berretsi dute hainbat hedabideetan Tolosaldeko ehun eta hirurogeita hamabost osasun profesionalek. Egoera hori normaltzat saldu nahi diguten arren, ez da beste eskualdetan gertatzen. Zergatik Osakidetzat kudeatzen dituen ospitaletan ez dago mediku bat bera ere espezialista homologatu gabe eta tolosan hamarnaka dauzkagu. Espezialista falta da jartzen duten aitzakia baina hara non orain gutxi arte bazituen eta ez dira ez jubilatu, ezta lan eskeintza batengatik joan. Klinikako kudeaketa jasangaitza zelako baizik. Benetan



espezialista falta egongo balitz ez litzateke hemen soilik gertatuko. Are gehiago, orain dela bi urte urte kasu aislatu batzuk ba zeuden klinika honetan baina momentu honetan hogeitahi gehiago badira Zenbait arloetan, anestesia, traumatologia kasu egoera are larriagoa da, izan ere, lan taldearen gehiengoak edo ia guztia etorri berriak dira eta espezialitatea homologatu gabe dute. Honek beste eskualdeekin desberdintasuna ekartzeaz gain, pazientearen segurtasuna ere kinka larrian jartzen du. Baina ez da desberdintasun bakarra, Osakidetzaren mediku historian sistema bera ez da erabiltzen klinika honetan, eta askotan arazoak daude beste ospitaletan Tolosaldeko herritarren historiak ere begiratzeko. Beste eskualdetan txertatzen diren protokoloa eta plan estrategikoak Gipuzkoako osorakoak, hemen ez dira inplementatzen kudeaketa pribatuak nahi ez duelako, besterik gabe. Pazientearen segurtasuna bermatzeko jartzen diren neurriak ere hemen ez dira jartzen. Adibidez, odol transfusioaren kasuan, oso garestiak iruditzen zaizkiolako klinikako jabeak. Homologazioaren afera ez da zuk Olatz aurreko egunean Atarian esan zenuen bezala hedabide amarilistarik eta jarri zenion batek argitaratutako informazioaren ondorioz hasi eta bide batez esan, adjetibo hori erabiltzea hedabide bati ustelkeri kasuak salatzen duelako ez dela oso demokratikoa, nahiz eta zuen gustukoa ez izan. Esan bezala, afera hau ezen hasi hedabide argitaratutako informazioaren harira baizik eta hori guzti eta gehiago duela hilabete batzuk klinikako batek salatu zuena eta egunkaria partzialki argitaratzen ari direna da. Ausardia osoz eskualdeko herritarren osasun kalitate aburuz ez besterik. Asuncion klinika ematen ari diren erregulartasunak salatu zituen eta ordainetan bere aurkako kanpaina, erasoak jasotzen ari dira, bai Klinikako lehendakariaren aldetik baita zenbait hedabideetatik ere. Horregatik, gure babes osoa azaldu nahi diegu bai langile ohi honi baita urtetan zehar klinika horretan lan egin eta egoera oso latzak jasan dituzten hainbat langileei ere. Eta nola ez, egun gaixotasun egoera bat pairatu behar dugun herritarroi ahalik eta artapen eta tratu egokiena jasotzeko lan eskaera egiten duten klinikako osasun langileei Baina esan bezala, espezialitateen homologazio falta iceberg-en punta besterik ez da. Azpian lan baldintza kaxkarrak, gehiegizko lan kargak, murrizketak, profesional lan taldeetan aldaketak handiak. Aurreko astean bertan hiru mediku joan ziren eta, ondorioz, Eskualdean otorrinolaringolo gabe geratu gara. Osakidetzaren protokoloetatik kanpo egotea, beste eskualdeak dituzten paziente segurtasuna bermatzeko sistema falta, historia medikua konpartitua, diru publikoaren desbidatzearen korapilatsuan, osasun eta gizarte segurantzarekin egin duen zorra betikoratzea. Osasun sailaren diru ekarpena eskasa Eskualdeari, ez dira gutxi. Guzti honen ardura gorena Osasun Saila da eta bere bitartekoa den Lurralde delegaritzak. Bistakoa da erregulartasunak egon badaudela eta ez gutxi. Eta Invizak Osasunaren sailaren duen kontzertua ez dela betetzen. Kontzertu horrek berak kontratu berak ahalbideratzen du kontratu bertan behera uztea ez bada betetzen. Gure helburua argia da tolosan gainontzeko eskualdeetan ematen ari diren osasun arreta berdina jasotzea ez gehiago eta noski ezta gutxiago ere orain gertatzen ari den bezala. Udal honek Tolosako herritarren ordezkariak izainik eta eskualdeko herria nagusia gare heinean Osasun sailari bere ardurak har ditzala eskatu behar dio. Lehenik eta behin, kontzertua bere osotasunean bete dadila, eta beste eskualdeekiko identitate izan dezagun lehenbailehen Osasun sailak har dezala Toloaldeko eskualde ospitalearen kudeaketa. Gainerako eskualdeetan duela urte mordera egin zen bezala, borondate politiko besterik ez da behar. Josemari, zuk ere lehengoan Atarian esan zenuen bezala, Asuncionez ez badu zerbitzu egokia eskaintzen aldatu egin behar da. Gehiago itxaron gabe kudeaketa publikoko



*ospitale publikoa nahi dugu. Horretaz, benetan pentsatzen duzu oraindik Eskualdean osasun zerbitzu ona eta beste Eskualdeetako berdina dugula, Olatz? . Zer egingo Udal gobernu honek desberdintasun nabari hauekin bukatzeko? Osasun Sailari argibideak eta erantzukizunak eskatuko dizkiozue eta, bide batez, Tolosaldeko osasun arreta ospitalearen kudeaketa publikoa eskatuko diozue?"*

... Alkatea: *"Uste dut aurreko plenoan berdina galdetu zenidala eta uste dut erantzun nizula. Egia da, azken garai honetan salaketa bat tarteko fiskaltzak ikerketa bat abiarazi behar duela medikuen espezialitatea homologazioaren inguruan, egia da, gai hori ez dela berria guretzako. TOPAk salatu izan duela publikoko eta gurekin ere bilera egin duela jakinarazteko egoera zein zen. Uste dut osasun delegaritzari ere igorri ziola kezka hori , gu geuk ere, igorri genion, ea guk beste hainbatetan esan dugun bezala, ikusiko dugu fiskaltzak zer esaten duen eta erantzukizunak eskatu beharko dira dagokion tokian, legea bete behar delako. Instrusiosko kasu bat dela esaten dute, komunikabideetan gauza asko agertu dira. Kontua da, guk beti esan dugun bezala, eta eskatzen dugu eta aldarrikatzen dugu Tolosaldean kalitatezko zerbitzua doako eta unibertsala orain arte kontzertazioaren bitartez posible izan dena Tolosaldean. Egia da, azken urte hauetan, zailtasunak ere handitu egin direla klinikan eta hainbat egoera jasaten ari garela Legealdi honetara kanpainen dagoeneko jada guk baita ere esan genuen titulartasun publikoko ospitale publiko baten aldeko lanketa bat egingo genuela, guk uste dugu eusko jaurlaritzarekin elkarlanean Tolosako beharretara egokitutako ospitale publiko bat eraikitzea behar beharrezkoa dela eta horretan ari gara lanean eta bai esan nahi dut argi eta garbi, salaketa jarri duen pertsona horren aurkako kanpaina bat badago kanpaina hori arbuia, uste dut mundu guztiak, noski zilegi dela bere iritzia demokratikoki, publikoki azaltzea eta uste dituen salaketa guztiak jartzea eta horrelako kanpaina erasokorraren kontrako jarrera irmoa azaldu nahi dut bai gai honetan bai beste edozeinetan, beste askotan ere gertatu izan direlako herri honetan. Prozedura eta protokoloak aipatzen dituzuen hain zehatzak, zu bertako langilea izan zarenez, nik horri ezin dizut erantzun ez dakidalako, baina bai Osasun Sailari eskatzen dioguna da kalitatezko zerbitzua doakoa eta unibertsala izatea, dauden zailtasun guzti horiek gainditzea ospitale publiko titulartasun publikoa duen ospitale publiko hori iritsi bitartean Asuncion klinikaren kontzertu horri heldu beharko diogulako ezinbestean. Bestela, ez dakit zer egoeratan aurkituko ginatekeen."*

... Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria (PSE-EE) :*"Nik uste dut azkenean Lurralde Delegaritzak eta Osakidetza eskatu behar diogula ikuskaritza egin dezatela ea azkenean lortzen dugun objetibo izan daitekeen diagnostiko bat egoerari aurre egiteko ezinbestekoa baita. Informazioa ezberdinak ari gara jasotzen, Klinikako hainbat profesionalak hainbat gauza kontatzen dizkirate et logikoki oso kezkatua nago. Eskatu behar da Ikuskaritza bat eta sinatutako dagoen hitzarmena betetzen ez bada ez da logikoa daukagun sistemarekin jarraitzea. Daukagun egoera oso berezia da duela hogeita bost urte hauetan. Euskal Autonomi Erkidegoan bakarrik gu gaude egoeratan , besteak sare publikoan dauden ospitaleak dauzkate. . Egia da posible dela kalitatezko zerbitzuak ematea. Nire sentsazioa da, erabat subjektiboa, noski, Klinikak orain arte zerbitzu txukunak eman dituela. Datuk objektiboak ez dauzkat baina hainbat gauza berri azaltzen ari dira, kezagarria da egoera eta aurre egin behar zaio."*

... Ander Figuerido Zubiria (EHBILDU): *"Esan duzun bezala, Olatz, aurreko plenoan*



*hitz egin genuen gaina honetaz, baina egun horretan nik galdetzen nuen zuen intentzioaz, kasu honetan nahiz eta egun horretan esan zuen titulartasun publikoa duen ospitale publikoa nahi duzuela. Horren harira argitu nahi uke titulartasun publiko horrek kudeaketa publiko ekarriko duen edo ez. Ez da berdina titulartasuna edo kudeaketa. Uste dut ordundik egoera aldatu egin dela informazio gehiago daukagula, zuk objektibotasuna esaten duzu, uste dut TOPAK emandako datuek eta gaur bertan 175 profesionalak berretsitako informazio uste dut nahiko objektiboa dela. Fiskalak zer erabakiko uden este kontu da epaiaren esku geratuko da. Zuk esaten duzu Olatz, ospitale publiko bat egingo dela kudeaketa edo titulartasuna gero hitz egingo dugu, baina epeak 8-10 urteko epeak izanik, bitartean egoera honetan jarraitu behar dugu?”.*

*.. . Alkatea: “Amaitzeko titulartasun publikoa, kudeaketa publikoa eta zerbitzu publikoa, bai?.gai guztietan hobea dela gardentasunak hitz egitea. Susmoa daukat hitz egiten digutenean ez daukazuela esaten dugunarekin horregatik errepikatu behar dugu gauza hainbeste aldiz, ez dago tranparik, ez dago ezkutuko ezer. Hori da aldarrikatzen ari garena Tolosatik. Beste gai aprobetxatuz, baita ere, aipatu nahi nuke erantzukizunaz jokatzeko beharra ordezkari publikoak garen heinean, hori baita ere, behi baino gehiagoetan aipatu dut. Batzuetan zaila da ulertzea halako batean azaltzen denean , bai espezialistak ez daukate homologaziorik Eta herritarrak ulertu dezakeela ez dira medikuak hain goian medikua edozer diren. Batzuetan hainbat zalantza eta hainbat sortzen direla komeni dela argitzea , gauzak esaten direnean behar baino alarma gehiegirik ez sortzea ere komeni izaten da. Afera guzti horretan homologazio arazo bat dago, bere Osakidetzan egia da baimentzen homologazio gabarik gabeko espezialistak lanean aritzea eta gertatzen ari da Asuncion klinikan baita ere egia da aldi baterako eta ezohiko egoeratan legeak hori baimentzen duela baina ez dakit hori den gure klinikaren egoera edo beste bat, eta hori Fiskalak esan beharko du eta ez gu. Hori bere bidea emango du. Guk 8-10 urteko epea jarri genuen epea jartzeagatik bermearekin, ez ditugu ospitaleak egun batetik egiten, ez dakigu esaten prozesu guzti horrek zenbat denbora emango duen, badaude berri proiektuak eta lehiaketan egin behar dira, udalari egokitzen zaigu eremua zehaztea, gero langileen eskualdaketa hori nola egin eta horrek ere bere lana ekarriko du eta horren gainean egon beharko dugu. Horregatik jarri genuen epe luze bat ez esateagatik 3 urte eta kontuak eskatzen hasteko. Gainera eskumen zuzena ez da gurea eta oso zaila da epe zehatza esatea. Horregatik arri genuen epe luzea, orientatiboa. Egia da hori iritsi bitartean gure Osasun arreta nolabait heldu beharko diogula. Orain arte Asuncion klinikaren bitartez egin dugu eta suposatzen dut egin beharko dugula baina hori izan beharko du berme guztiekin. Goazen ikustea zer gertatzen den homologazio afera honekin eta sortu daitezkeen kontuekin ere gainean egon eta Osasun sailari erreklamatu orain arte bezala.”*

*... Ander Figuerido Zubiria (EHBILDU) : “Zuk esaten duzun falta uste dut argudioak badaukagula horretarako. Orain dela hilabete batzuen arte ez zenuten berdina esaten. Ospitale publikoaren alde. Informazioarena esatearena, lehen aitzakia bezala erabiltzen dute homologazioarena, izan ere, esan bezala orain dela bi urte arte, kasu gutxi batzuk bazeuden baina lan taldeak ere mediku espezializatuak bazeuden, zergatik joan diren, ez da izan jubilatu direlako edo beste lan eskaintza hobea jaso duelako, gehienak izan dira egoera kaxkarrago batengatik, bertako egoera jasan ezina zelako. Medikuak badira espezialitatea suposatzen dela*



TOLOSAKO  
UDALA

*beraien herrialdean duela baina hemen ez daukate homologatuta eta hori ez da tramite administratiboa Montoya jaunak esaten duen bezalaxe, askenean azterketa batzuk daude, baldintza batzuk bete behar dira, bakoitzaren konpetentziak demostratu egin behar dira Epearena esan duzu, noski ez dakizkigu, ez dagoelako gure esku baina uste dut guk lehenbailehen eman beharreko pausoak eman behar ditugula. Esan duzu , gure eskumena lursaila finkatzea, goazen hastea horretan lehenbailehen. Batzuetan esan dizugu re San Estebaneko eremuan joango dela, gero plan orokorrean ikusiko dela, hasi baldin bazarete ondo legoke guri informazio ematea.”*

... Alkatea:”Homologazioaren afera Fiskaltzan esku utziko dugu. Nik ez dakizkit zer pausak hirigintza teknikariak badakite ardura hori daukatela, eta horretan ari dira. Orain arte ez daukazu ezer zehatzik eta horregatik ez dugu konpartitu. Baina begiratzen begiratzen ari gara. Iritzi aldatu egin dugula esan duzu, Kontua da eta hori Hauteskundeetan agure proposamena aurkeztu genuenean, esan genuen kontzertazioa zela gauza alderdi guztiek eskatu zutela edo genuela bere garaian eta izan dela formula bat balio izan duena eta hori esker Eusko Jaurlaritzak Klinikaren jabegoaren egindako kontzertazio hori esker izan dugu Osasun arreta zerbitzu on bat eskualde honetan, hainbat urteetan. Egia da azken urte hauetan eragozpen batzuk izan direla, zergatik arreta emateko moduak eta OSlak aldatu dira eta klinika hori jabetza pribatua izatearekin eragozpenak izan dira informatika aldetik eta askotan komentatu ditugun hainbat kontuengatik , horregatik esaten genuen zela garai zela ospitale publikoa erreklamatzeko. Baita ere esaten genuen aurreko ibilbidea egin gabe ez genuela ospitale publikoa izango eta ahalbideratu duela aurreko bide guzti horrek honaino iristeko. Beraz, ibilbide bat.

Bukatzeko TOPAko kideak hitza hartu dute, parte-hartzea DVDan jasota dago espedientean.

Besterik gabe, 21:35ean, bilera bukatutzat eman da, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, alkateak ontzat emanik.

ALKATEA  
O.e.

IDAZKARIA